

ERRIA

8

eraldaketarako aldizkari politikoa
2021eko abendua / www.eria.eus



ERRIA 8. zenbakia

Azaleko ilustrazioa:
Oier Zuñiga

Argitaratzailea:
Iratzar Fundazioa

Editoreak:
Andoni Olariaga
Gotzon Elizburu

Erredakzioa:
Andoni Olariaga
Gotzon Elizburu
Itziar Amunategi
Oier Narbaiza
Maialen Arteaga

Argazkiak:
Foku

Diseinua eta maketazioa:
Grafik Sarea

Itzulpenak:
Frantsesa: Itzurun

Ilustrazioak:
Oier Zuñiga

Egoitza:
Zuatzu enpresa parkea,
Easo eraikina 4, behea.
20018 Donostia
tlfnoa: 943 265982

www.eria.eus
eria@eria.eus

twitter: @eria_eus
facebook: www.facebook.com/eria.aldizkaria
Telegram: ERRIA

Erria aldizkaria Iratzar Fundazioa
eta Sorturena da.

Lege gordailua:
SS-0033-2018

Jabego lizentzia:
CC BY-SA




- 07 EDITORIALA
Lanak, klasea eta zaintza
- 16 **SAKONEAN** ARKAITZ RODRIGUEZ TORRES
ETA LUR ALBIZU ETXETXIPIA
“Euskal Herria askatzea da mundua
eraldatzeko gure estrategia”
- 36 **ERREPORTAJEA** Mikel Irastorza Artola
**Euskalduntze prozesuaren gorabeherak
Ipar Euskal Herrian**
- 50 **ERREPORTAJEA** Aitor Servier Etxexuri
Etxebizitza krisiari buru eginez
- 72 **ERREPORTAJEA** Maialen Arteaga Gonzalez
**Etorkizunik gabeko belaunaldia
etorkizunerako giltzarri**

DOSSIERRA: LANAK, KLASA ETA ZAINZA

- 92 **ERREPORTAJEA**
**Lanak, langile
klasea eta klase
borrokak**
D1
- 100 **ERREPORTAJEA**
**Enplegutik
banaketa
hirukoitzera**
D2
- 106 **ERREPORTAJEA**
**Gizarte
antolaketa berri
bat**
D3
- 116 **ERREPORTAJEA**
**Reivindicaciones
obreras en los
programas de
izquierda**
D4
- 126 **ERREPORTAJEA**
**Herri Batasunaren
proposamena:
“Iana banatu,
ondasuna banatu”**
D5
- 136 **SINADURA**
#GlovoEz!
D6

- 10 TXIO-TXIOKA
- 30 **ARTIKULUA** Jokin Bergara
**Bilbotik Marrakech-era, hegaldi
klimatiko laburra IPCCekin**
- 42 **ARTIKULUA** Eraitz Saez de Egilaz Ramos
eta Lur Albizu Etxetxipia
Erantzun zaharrei galdera berriak
- 55 **ERREPORTAJEA** Gari Garaialde
Jende txikia gauza handiak egiten
- 64 **ELKARRIZKETA** Maialen Arteaga Gonzalez
**Ibone Alonsori elkarrizketa.
(Donostiako Intziri neska* gazte
taldeko kidea)**
- 80 **ARTIKULUA** Miren Zabaleta Telleria
Izendatu ezin den estatutua
- 88 **Urriaren 18ko Adierazpena**
- 140 **ERREPORTAJEA**
**LES MULTIPLICATEURS
POUR EN FINIR AVEC
LA SPÉCULATION
IMMOBILIÈRE À BERLIN**
Raul Zelik. *Politologue et écrivain*
- 146 **ERREPORTAJEA**
**PRAKTIKATIK
ETA BIZIPENETATIK ASKO
IKASI DEZAKEGU ERE**
Ainhoa Etxaide Amorrortu
LABeko eskola feministaren arduraduna
- 148 **ERREPORTAJEA**
**MARXFEMEK ERAKUTSI DIGU
BORROKAN AURRERA EGITEKO
EZINBESTEKOA DELA KATEGORIAK
ETA KONTZEPTUAK BERRITZEA**
- 150 **SINADURA**
**EUROPAN HIRI HANDIAK DIRA
EZKERREKO ALTERNATIBA
ERAIKITZEKO MOTORRA**
- 156 **INFOGRAFIA**
ZAINZAREN DIMENTSIOA
- 158 **GERANIOAK LEHORTZEN**
- 160 **GOMENDIOAK**



Lanak, klasea eta zaintza

Mundu zabalean prekaritatea eta krisi soziala zabaltzen ari diren garaiotan, lanaren auziari erreparatu nahi izan diogu zenbaki honetan. Azken hamarkadatan, eta batez ere, pandemiaren geroztik, lanaren auziari ez zaio ganoraz heldu ezkerretik, ez bada feminismoak behartuta izan delako. Gaur egun, Europar ezkerrean eztabaida bizia dago eta proposamen ugari jarri dira mahai gainean; lana eta aberastasuna banatzeko, lan orduak murriztu eta aisia zein zaintza lanei beste erantzun bat emateko, errenta unibertsalarekin prekaritatea amaitzeko, zaintza lanak publikatu behar ote diren edo ez planteatzeko, ongizatearen indikadore nagusiak berdefinitzeko... Finean, gizarte eredu zahar baten agortzea adierazten dute aurreko planteamenduek, eta gaurko erronkei zibilizazio, herri zein norbanako bezala gizarte antolaketa berri baten beharra agerian jartzen dute.

Abiapuntua aurrekoa izanda, dosierrean luze landu nahi izan dugu gaia, luze eta ertz askotatik. Horretarako, LABek aurkeztutako Programa Sozioekonomikoak planteatzen duen gizarte eredu berriari eman diogu begirada bat, horrekin batera Igor Arroyok banaketa hirukoitzaren eta zaintzaren dimentsioa (infografian sakonago landu duguna) mahai gainean jarri digularik. Isidro Esnaolak ipar globaleko ezkerrean egiten ari diren proposamen desberdinak ekarri dizkigu, 35 orduko lanorduak, errenta unibertsala eta bestelako proposamenak zerrendatuz. Eta horrez gain, langile klasearen eta klase borrokaren garapen historikoa eta Glovo bezalako enpresen fenomeno ere aztertu ditugu. Atzera begira ere jarri gara, Herri Batasunak 98an egindako “lana banatu, ondasuna banatu” proposamenaren gaurkotasuna aztertuz. Ondorio garbiak atera ditugu aurretik: gure aldarrikapen historikoak, batzuetan bakarrik defendatu ditugunak, gure programa politiko, ekonomiko eta soziala, gaur egun ezkerrean, zein gizartean, oro har, eztabaidaezinak bilakatu dira. Izan ere, ezkerrearen gaitzetako bat da ideia batzuk hegemoniko bilakatu, lorpen batzuk erdietsi eta horiek gutxiesten hituratu. Gaur ikus daiteke, gure programa politikoak jarraikortasun bat izateaz gain, lehen baino erradikalagoa eta osatuagoa dela, feminismoaren eta borroka ekologikoaren ardatzak eta proposamenak inkorporatu dituen heinean. Gaur baldintza hobek

ditugu aldaketa politiko eta sozialerako programa hori gure lurraldean aurrera eramateko duela 20 urte baino.

Euskal Herriari dagozkion gaietan sartuta, Lorafnak 40 urte egin ditu, Nafarroako estatutuak, eta Miren Zabaletak horren oinarri juridiko, historiko eta politikoak izan ditu hizpide. Nafartasuna borroka esparru den hein berean, Erantz Saez de Egilaz eta Lur Albizu erantzun zaharrei galdera berriak ematen saiatu dira, abertzaletasunaren berritzeaz ertzetatik helduz. Haiek berak ere, Oihan Errekondo eta Ainhoa Buenorekin batera, etorkizunik gabeko belaunaldi prekarioaren parte dira, Maialen Arteagak orriotara ekarri digunez. Etorkizuna ez da prekaritate irakurtzen bakarrik, muga biosifikoetatik ere, Jokin Bergarak IPCCren azken txostenaren irakurketatik tiraka. Etxebizitzaren auzia eta euskararen auziak ere gure oraina eta etorkizuna baldintzatzen dute, eta Aitor Servierrek zein Mikel Irastorzak Ipar Euskal Herriko begiradatik ekarri dizkigute korapilook. Gure garaiko arazo larrienetakoa den migrazioaren arazoak, argazki bidez, Gari Garaialdek ekarri dizkigu, Irun-Hendaian zentratutik. Eta azkenik, nazioartean Europako hiri handiak ezkerrean motor gisa irudikatu dizkigu Onintze Oleagak.

Aurreko gai guztien sakoneko irakurketa politiko eta sozialaz mintzatu gara sakonean elkarrizketan Lur Albizu eta Arkaitz Rodriguezekin, Sorturen III. Kongresu prozesuaren kariatara: nazio pultsuaz, estrategia independentistaz, egoera globalaz eta ezkerreko alternatiba gauzatzeko aukerez aritu dira. Horrez gain, online bada ere (pandemiaren eraginean), Marxem konferentzia internazionala ospatu da gurean, marxismoaren, feminismoaren eta burujabetzaren ardatzak josiz, eztabaida aberasgarriak planteatuz, Euskal Herriko mundura eta alderantziz.

Bukatzeko, momentuaren taupada historikoa ongi irakurtzea tokatzen zaigu. Ezkerre porrot historiko batetik dator, ezin dugu ahaztu. Baina gaur aukera hobek ditugu aldaketarako atzo baino. Ez gara, inondik inola, daukagunarekin konformatzen. Orain, gure programa eta praktika politikoak erradikalizatu eta inplementatzea tokatzen zaigu, eta horretarako, gizarte eredu egingarri, eraldatzaile eta aske bat pentsatu eta gaurtik inplementatzen aritu behar gara.

Trabajos, clase y cuidados

En un contexto en el que la precariedad y la crisis social se están extendiendo por todo el mundo, en este número hemos querido centrarnos en la cuestión del trabajo. En las últimas décadas, y sobre todo a partir de la pandemia, la cuestión de los trabajos no se ha abordado con claridad desde la izquierda, si no es porque ha sido forzado por el feminismo. Hoy en día, en la izquierda europea hay un intenso debate y se han puesto sobre la mesa propuestas para repartir el trabajo y la riqueza, reducir las horas de trabajo y dar una nueva respuesta a las tareas de ocio y cuidado, acabar con la precariedad mediante la renta universal y redefinir los principales indicadores de bienestar, entre otros.

Siendo el punto de partida el anterior, en el dossier hemos querido ahondar largo y tendido sobre el tema. Para ello, hemos querido indagar en el nuevo modelo de sociedad que plantea el Programa Socioeconómico presentado por LAB, junto con la dimensión de triple distribución y los cuidados que Igor Arroyo pone sobre la mesa [y que hemos profundizado en la infografía]. Isidro Esnaola hace un análisis sobre las diferentes propuestas que se están realizando en la izquierda del norte global, con relación a las 35 horas de trabajo, la renta universal y otras propuestas del estilo. Además, hemos analizado el desarrollo histórico de la clase trabajadora y de la lucha de clases, y junto a ello, el fenómeno de empresas como Glovo. También hemos mirado hacia atrás, analizando la actualidad de la propuesta de Herri Batasuna de 1998, “trabajar menos para trabajar todos”. Hemos sacado conclusiones claras de lo anterior: nuestras reivindicaciones históricas, que hemos defendido en soledad, nuestro programa político, económico y social, hoy en día, tanto en la izquierda como en la sociedad en general, se han vuelto indiscutibles. Uno de los males de la izquierda es la costumbre de convertir algunas ideas en hegemónicas, de conseguir algunos logros y de despreciarlos después. Hoy se puede ver que nuestro programa político, además de tener continuidad, es más radical y completo que antes, en la medida en que ha incorporado los ejes y propuestas del feminismo y la lucha ecológica. Hoy tenemos mejores condiciones para llevar a cabo este programa de cambio político y social en nuestro territorio que hace 20 años.

Lorafna, el estatuto de Navarra, ha cumplido 40 años, y Miren Zabaleta analiza sus fundamentos jurídicos, históricos y políticos. Al mismo tiempo que la identidad navarra es un campo de batalla, Eraitz Saez de Egilaz y Lur Albizu han tratado de dar nuevas preguntas a las viejas respuestas en torno al abertzalismo, abordando la renovación del nacionalismo desde los márgenes. Ellos mismos, junto a Oihan Errekondo y Ainhoa Bueno, forman parte de una generación precaria sin futuro, según nos cuenta Maialen Arteaga. El futuro no sólo se lee desde la precariedad, también desde las fronteras biosféricas, que Jokin Bergara analiza partiendo del último informe del IPCC. La cuestión de la vivienda y el euskera también condicionan nuestro presente y futuro, y tanto Mikel Irastorza como Aitor Servier nos problematizan estos nudos desde la mirada de Ipar Euskal Herria. Los problemas de la migración, uno de los más graves de nuestro tiempo, son tratados desde la mirada de Gari Garaialde, centrado en Irun-Hendaia. Por último, Onintze Oleaga nos presenta las grandes ciudades europeas como motores de la izquierda.

Hablamos con Lur Albizu y Arkaitz Rodríguez sobre la lectura política y social en Sakonean sobre el trasfondo de todos los temas anteriores. En el marco del proceso congresual, han hablado sobre el pulso nacional, la estrategia independentista, la situación global y las posibilidades de una alternativa de izquierdas. Además, aunque haya sido online (debido a la pandemia), se ha celebrado en nuestro país la conferencia internacional Marx-fem, centrada en el marxismo, el feminismo y la soberanía, planteando debates enriquecedores desde Euskal Herria al mundo, y viceversa.

Para terminar, toca interpretar acertadamente el latido histórico del momento. La izquierda viene de un fracaso histórico, no podemos olvidarlo. Pero hoy tenemos mejores oportunidades para el cambio que ayer. No nos conformemos en absoluto con lo que tenemos. Ahora nos toca radicalizar e implementar nuestro programa y nuestra práctica política, y para ello debemos pensar e implementar desde hoy un modelo de sociedad factible, transformador y libre.

L'emploi, la classe et les soins

Dans un contexte où la précarité et la crise sociale s'étendent partout dans le monde, dans ce numéro, nous nous concentrons sur la question du travail. Lors des dernières décennies, et surtout en période de pandémie, la question du travail n'a pas été clairement abordée par la gauche, si ce n'est, lorsqu'elle y est forcée par le mouvement féministe. De nos jours, il y a un débat intense au sein de la gauche européenne à ce sujet et diverses propositions visant à répartir le travail et les richesses, à réduire le temps de travail ou à mettre en place un système de soins publics ont vu le jour. Entre autre, en se basant sur les principes de revenu universel et de redéfinition des principaux indicateurs de bien-être.

C'est pourquoi nous avons souhaité approfondir ce sujet dans le dossier de ce numéro. Pour ce faire, nous étudions le nouveau modèle de société défendu via le programme socio-économique de LAB, ainsi que la triple distribution et la dimension des soins qu'Igor Arroyo nous propose [approfondi par le biais d'infographies]. Isidro Esnaola analyse les différentes propositions formulées par la gauche dans les pays nordiques : les 35 heures, le revenu universel et d'autres propositions du même ordre. De plus, nous analyserons l'évolution historique de la classe ouvrière, de la lutte des classes, et du phénomène des entreprises tel que Glovo. Nous regarderons en arrière et analyserons à quel point, la proposition de Batasuna datant de 1998 est toujours d'actualité : « travaillons moins pour que nous travaillions tous ». Les conclusions sont claires : nos revendications historiques, souvent défendues seul ainsi que notre programme politique, économique et social, est aujourd'hui devenu incontestable, à la fois au sein de la gauche mais aussi au sein de la société en général. En effet, un des écueils de la gauche consiste à convertir ses idées en idées hégémoniques, obtenir certaines victoires, et, par la suite, minimiser leurs importances. Aujourd'hui, nous pouvons constater que notre programme politique s'inscrit dans une certaine continuité. En outre, du moment que sont intégrés les axes du féminisme et la lutte écologique, celui-ci est plus radical et plus complet qu'auparavant. Aujourd'hui, de meilleures conditions sont réunies pour mener à bien ce programme de changement politique et social sur notre territoire qu'il y a 20 ans.

LORAFNA, le Statut de la Navarre, a été adopté il y a maintenant 40 ans, et Miren Zabaleta analyse ses fondements juridiques, historiques et politiques. Alors que l'identité navarraise est au centre de la bataille des idées, Eraitz Saez de Egilaz et Lur Albizu donnent de nouvelles réponses au questionnement autour de l'abertzalismo, en vue d'œuvrer à son renouvellement. Oihan Errekondo et Ainhoa Bueno font partie d'une génération précaire et sans avenir, comme nous le décrit Maialen Arteaga. L'avenir est non seulement lié à cette précarité, mais aussi aux frontières biophysiques, comme le démontre Jokin Bergara dans son analyse du dernier rapport du GIEC. La question du logement et de la langue basque conditionnent également notre présent et notre avenir. Ainsi, avec leur vision du Pays basque Nord, Mikel Irastorza et Aitor Servier mettent en perspective ces problématiques. La problématique des migrations, l'une des plus graves de notre époque est traitée par le biais d'un reportage photographique de Gari Garaialde, entre Irun et Hendaia. Enfin, Onintze Oleaga nous présente les grandes villes européennes, motrices pour la gauche.

Nous avons questionné Lur Albizu et Arkaitz Rodríguez sur la lecture politique des thèmes évoqués précédemment. Dans le cadre du 3ème congrès de Sortu, ils évoquent l'élan national, la stratégie d'indépendantiste, la situation globale et les possibilités d'une alternative de gauche. En outre, bien qu'elle ait eu lieu en ligne (en raison de la pandémie), la Conférence internationale Marx-fem, axée sur le marxisme, le féminisme et la souveraineté, a permis de poser des débats enrichis par les visions basques et extérieures.

En conclusion, nous devons interpréter correctement le moment historique que nous vivons. La gauche est issu d'un échec historique, nous ne pouvons l'oublier. Mais aujourd'hui, plus que jamais, les opportunités de changement sont réelles. Nous ne nous satisferons en aucun cas de la situation actuelle. Il est temps de mettre en œuvre et de radicaliser notre programme ainsi que notre pratique politique dans le but de mettre en place un projet de société réalisable, transformateur et libérateur.

ERRIA 8

30

16



36



50



64



88



140



146



148

150

TXIO-TXIOKA

2021

Atal honetan azken hilabeteetan gertatutako enolabaiteko bilduma bat aurkituko duzu, motzean. Umorea, satira, salaketa, aldarrikapenak...

Azpimarratzekoak dira, besteak beste, Urriaren 18ko Adierazpena eta erreakzioak, Morlansko sarraskiaren urteurrena, Baionan etxebizitza eskubidearen alde egindako mobilizazio erraldoia, argi indarraren eta oro har prezioen gorakada, EH Bilduren mobilizazio erraldoia, Glasgowko COP26 goi bilera, Durangoko Azoka fisikoaren itzulera, euskararen eguna... eta askoz gehiago.

Eraitz Saez de Egilaz Ramos
@EraitzSaez

Mezu argi bat sekula isildu ez diren gizonentzat: isildu. Punto.
Zenbat egi @LurAlbizu

Translate Tweet

erria @erria_eus · 18/9/21

Lur Albizu: "Gizonak ikusten ditut toki guztietan. Prestigioaren lehian. Errealitatea toki konkretu horretatik irakurtzen duzue zuek, espazio osoa zuena izatek. Eta uste dut baduzuela garaia gauza batzuk ikasteko+ praktikatzeko".
@sortuEH @ernaigazte
labur.eus/afetp

IRITZIAK

Fenomenoak
Lur Albizu Etxebarria

Urtzi Urrutikoetxea
@urtziurruti

Hauxe Zinemaldiko sail ofiziala eta araudia:
- espainolez % 100 derrigor
- Filma ez bada esp/eus/ing, esp azpidatziak eta ingelesezko azpidatzi elektronikoak. Euskaratutako lanik ez aurten ere ez sail ofizialean. 2021ean, euskaldunari debekatu egiten zaio aurten ere Zinemaldia

Translate Tweet

SIFF - 69

ICULO 6

04:29 · 8/9/21 · Twitter Web App

Javier Durán
@tartondo

En el camping, intentando comunicarse con Julien.



22:03 · 8/8/21 · Twitter for iPhone

ekai txapartegi
@ekainet

Estaturik gabeko 6000 nazio munduan, desagertzen. Haietara guztietara ikastolen esperientzia nola esportatu pentsatzen beharrean, ikastolak ixtearekin amesten duten miopeak. Adituak gara gure buruak gutxiesten, zigortzen eta autosaboteatzen.

11:00 · 15/9/21 · Twitter Web App

Maialen Errekart
@maialener

Baxoko filosofia idazlana euskaraz egiteagatik, alabak 2/20en bildu du, « arrazoin politikoengatik » hizkuntza garbian ez eginik.
#BaxoaEuskaraz
#HerriErresistentzia

Translate Tweet

Notation

Appréciation

19:41 · 26/7/21 · Twitter for iPhone

Oihana Etxebarrieta Legrand
@BetaurrekoMorea

Euskal Herriko kaleak hartu ditugu feministok.

Bilbon hezurretaraino busti gara, baina hainbeste elkartu izanak, indarkeria matxistei aurre egiteko indarrak eta oihuek barruak berotu dizkigute!

Minutuko isiluneen aurrean amorrutz oihu eta indarrez borrokatzeko prest gaude!

Traducir Tweet



Antton Telleria
@antton_telleria

Fase berri bat abiatu dugu Euskal Herriaren historian.
Euririk gabeko fase bat.

TXIO-TXIOKA 2021



Hordago Nafarroa
@hordagofarfoa

Nafarros eskubideak zatikatzen dituen Euskararen Lege bidegabearen 35 urte.

Nafarroan edozein bereizketarekin amaitzeko garaia da. Urrats ez denon artean euskararen zonifikazioa gaindituko duen hordagoa botatzera goaz.

#ZonifikaziorikEz
#CorteskoAdierazpena
#GoraEuskara

Translate Tweet

hordago!

¡Que viva Navarra!
¡Que viva el euskera!
De Cortes a Bera,
Vianatik Gardera.
Pasando por Altsasu,
Pamplona y Tuteru.
Montaña, Zona Media
Erribera entera.

12:53 · 15/12/21 · Twitter Web App



Amaia Arenal Vidorreta
@amaia_av

Nire aitak Alzheimerra dauka. Apirilean #BasurtokoOspitalean tratamendua eten zuten. Joan den astean ingresauta egon zen ta baliabide ta empatia eza jasan genituen. Bihotzeko gaixotasuna ez dakit, baia murrizketak gehien pairatu dituenetarikoa ziur. #EsanBeharNuen #eitbmaratoia

Translate Tweet

20:55 · 12/12/21 · Twitter for Android



Ane Udazkena
@aneudazkena

"Ze arriskua ez da homosexuala, puta, beltza, arabiarra. Aberatsena da arriskutsua den minoria bakarra."

#Xilaba #MirenArtetxe ❤️

Translate Tweet



4.614 views

22:12 · 14/11/21 · Twitter for Android



(H)ITZARTU EITB
@Itzartu_EITB

Ametz Arzallus: "Herri honek pentsatu beharko du zerbait erdarari buruz, baina herri hau ezin da pentsatu erdaraz, herri hau euskaraz pentsatuko dugu, edo ez da izanen." #EITBeuskaraz

Translate Tweet

18:35 · 12/12/21 · Twitter Web App



Enai Errortzapea
@Eerrortzapea

Goizean auzoko komertzio ezberdinak laguntzeko auzolanarekin jarraitu dugu. GORA AUZOA!

Translate Tweet



SortuRTX and 4 others

13:04 · 12/12/21 · Twitter for Android



izarkom
@izarkom

Nahiz eta ahalik eta tarifa txikiena jartzen saiatzen garen, oso argi daukagu merketasun hori ez dugula gure langileen lan baldintzak murriztuz edo bazkidenganako zerbitzua okertuz egingo. Ondorioz, nahiz eta tarifa merke xamarrik ditugun beti egongo dira gureak baino tarifa



Lur A. Etxetxipia
@LurAlbizu

Azaroaren 20a ez da edozein egun. Gaurkoa gogoan izanen dugu luzaroan; Euskal Herria martxan, milaka lagun lanean eta borrokan. Etorbizuna dugu irabazteko!

#LortuArte
#EspekulazioariEz
#EzZirenBakarrakizan

Translate Tweet



Bizi!
@bizimugi

Le Pays Basque inondé : on sort les canoës

Tempêtes de plus en plus intenses et fréquentes, inondations.... Le dérèglement climatique s'intensifie et nous commençons déjà à en subir les conséquences.

Translate Tweet



Philosophy memes
@PhilosophymemeD



01:50 · 8/12/21 · Twitter Web App



Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapaterietxe
@AFullaondo

El Rock Radical Vasco es parte de nuestro patrimonio cultural, reflejo de una época social, económica y política convulsa. Hacer revisionismo pseudohistórico con fondos públicos para sacar rédito político es bastante lamentable. #RRR

Translate Tweet

10:15 · 9/12/21 · Twitter for Android

TXIO-TXIOKA 2021



Anacleto Panceto
@Xuxipc

OJO A ESTO: EL 74% DE LOS MUERTOS EN CARRETERA EN 2020 LLEVABA PUESTO EL CINTURÓN DE SEGURIDAD.



mario zubiaga
@zuribia

Sindikatuak, eragileak eta herritarrak gara indar harremana hobetu behar dugunak, ordezkarari politikoena itzultzaile lana da: dagoen indar harremana ahalik eta modurik txukunenean eramatea erabaki publikoetara. Bakoitzak du bere ardura: ez besterendu norberaren ahulezia. Gurea.

Translate Tweet

08:30 · 3/12/21 · Twitter Web App



Izaskun Duque
@KaleGorria

♥ «Que la energía sea para la vida, no para el enriquecimiento de las multinacionales». Lolita Chávez Ixcaquic, activista de Guatemala, denunciando el abuso y el robo de las multinacionales eléctricas. Lucha y resistencia!

[#DeskonektatuElektriketatik](#)



Ana Morales
@AnaisNi

Kokotaraino nago ipuinzaletasuna "gure garaion arintasunarekin" lotzearekin. Presaka bizi dira Borges zaleak? Eta Mila gau eta bat gehiago-ren irakurleak? Bestalde, nobela mardul batek eskatzen duen arreta eta ahaleginaren aldean, hasi eta buks direnez, modan-edo daude ipuinak 1/2



Karlos Renedo
@otxargorri

A tope comprometidos contra el cambio climático. Construyamos 5.000 viviendas en una isla inundable ¿Qué puede salir mal? [#Bilbo](#) [#PNVstyle](#) [@GaraziPerea](#) bidez

Translate Tweet



15:11 · 29/11/21 · Twitter for Android



Ane Lindane
@AneLindane

1. abisua [@ArnaldoOtegi](#): Nafarróa esaten entzuten dizudan hurrengoan GIPUZKÓA esaten hasiko naiz!!!

Translate Tweet



10,2K views

15:01 · 29/11/21 · Twitter Web App



Oihane Agirre
@ulaaiar

Sistema benetan iraultzeko saiakerak egin beharrean, atzera zankada erraldoietan... Hori erreakzionario izatea ez bada, ez dakit.

Guk argi dugu, jo ta ke independentzia, sozialismoa eta feminismoa lortu arte! 💜🔥👊



Maialen Arteaga
@MaialenArteaga

Feministok ez dugu beste alde batera begiratuko.

Bide gogorrena bada ere, beti zurekin batera egingo dugu Saio.

Saioa, Arantza, Naia eta auziperatutako beste kide denak aske!

👤: [@iratxe_E](#), [@anebebeal](#) eta Joanes Zeberio.

Translate Tweet



22:04 · 25/11/21 · Twitter for iPhone



@ErreHarria
@ANckerleriSTOP
@Erreharria1

Se me ha roto el microondas, he llamado a Jonan Fernández para que me lo arregle.

Translate Tweet

18:19 · 3/8/21 · Twitter for Android



Maddi Isasi Azkarraga
@maddisasi

[#Aiaralde](#)ko langile klaseko sektore ezberdinek, fabrika huts baten hondarretatik etorkizuna borrokatzeko proposamen irmoa egin dute.

Albistegietan jada agertzen ez den arren, hemen bada eskualde duin bat. Bere oraina eta etorkizuna borrokatzeko konpromisoan AURRERA GOAZ.

Traducir Tweet





Josu Estarrona Elizondo
@Josu_Estarrona

Euskarazko OTT eskaintza:

- Filmin % 0,65
- Netflix % 0,07
- Amazon % 0,01
- HBO % 0
- Disney + % 0

36.000 edukietatik 70 soilik euskaraz.



▶ Pantailak Euskaraz

15:58 · 8/11/21 · Twitter Web App



Irene Arrarats
@ulaiar

Lehen, dena zen ETA.
Orain, dena da burguesia.

Translate Tweet



Jule Goikoetxea @JuleGoi · 9/10/21

Si el 70% del voto (PNV mas EH Bildu) es burguesia, y el otro 20% tambien (PP, PSE, Vox), entonces el capitalismo produce burgueses como churros, en vez de pobres explotados.

Un lino, este señor



Xabi Marrero
@XabiMarrero

Cada día tengo más claro que EH Bildu representa al "barrio de Salamanca vasco". Clases altas que no quieren mezclarse con los pobretones no vascos y además copan el empleo en la administración sin dar oportunidad a inmigrantes. Supremacismo. VascosFirst!



Ikama Nafarroa
@ikama_nafarroa

Gaur Abenduaren 15a Nafartarantz borroka eguna dela argi utzi dugu ikasleok. Ley del Vascuence-k 35 urte betetzen zituen egunean, ikasleok Nafarroa bustitzen ari duen euskararen aldeko uholdea indartu dugu gure olatuarekin.

Translate Tweet



Ainar Lasa Perez
@ainariss

Maiz entzun dugu ikasgeletan erabiltzeko euskarazko material osagarria falta dela, euskaraz eta Euskal Herriko ikuspegitik sortua. Hemen da ba @BERRIA-ren edukietatik abiatuta sortutako Ikasgela. berria.eus/ikasgela/ Hartu, eman, erabili, zabaldu. #Eguneroikastendelako



Gaizka Izagirre @Gaizka... · 1d
Euskaltzaindiak onartu badu, guk zergatik ez?



GAZTEZULO @Gazt... · 1d
♥ Badakizu Euskaltzaindiak onartu duen hitzen artean dagoela "portzierto"? Bada orain, horrenbeste erabili duzun hitza, soinean harrotasunez eramateko aukera duzu kamiseta honekin! Euskaltzaindiak onartu badu, zuk zergatik ez? Eskuratu zurea gure dendan: labur.eus/RA7GV



Irati
@irati

Pero conoce "al varón" tan bien como conoce el País Vasco? Porque eso sería muy bien. Tan bien que el otro día defendió haber escrito Patria viviendo en Alemania con el argumento de que Julio Verne tampoco estuvo en el centro de la tierra. O sea que Patria era ciencia ficción?

Translate Tweet

¿Cómo es este asunto, pero quiz un término medio pudiera ser una solución temporal. No creo que la prohibición de la prostitución sirva de nada. Puede traer castigo, sí, pero no el final de la prostitución. Yo conozco al varón y sé que tiene una pulsión sexual que no puede controlar ni postergar. Es imposible que un hombre deje de eyacular dentro de una mujer porque lo diga una ley. Es imposible. No me lo puedo imaginar. Por otra parte, claro que tenemos que impedir la explotación, la injusticia hay que impedir la a toda costa, pero si una señora considera que puede tener una fuente de ingresos



CULTURA / ENTREVISTA AL AUTOR
Aramburu: "Es imposible que un hombre no eyacule dentro de una mujer porque lo diga una ley"

Después del desahucio de "Patria", el autor vuelve con "Los venecianos", una novela sobre la crisis del

17:50 · 3/9/21 · Twitter for iPhone



Ugo Mayor
@Ugo_Mayor

Parece que finalmente nuestro principal experto en epidemiología y pandemias se deshace de un LABI técnico que sólo servía como pantalla para encubrir su férreo control de la mayor parte de las decisiones relativas a la pandemia.



elcorreo.com
El nuevo LABI técnico queda reducido a la cúpula de Salud y el exviceconsejero Berraondo



mario zubiaga
@zuribia

El presentismo ético –revisar y juzgar la historia pasada desde el sentir moral actual–, es una forma fraudulenta de despolitizar la memoria. La tensión entre las posiciones antisistema es inevitable, la "colonización" del punk por el MLNV, una simplificación.

#memoriaeraikiz



Igor Goikolea
@goikoleaigor

25-10-2021 | 07-12-2021

Osakidetzak prescinde de 4.000 sanitarios contratados durante la pandemia

En el último mes ha perdido su empleo gran parte de los trabajadores y del personal que trabajó en los "secundarios"



Euskadi suspende cirugías y consultas de ambulatorios por la presión generada por los casos de COVID-19

La consejera de Salud sigue sin conseguir nuevas restricciones más allá del pasaporte COVID a pesar de admitir que es "uno de los peores momentos" de la pandemia.
— Gisañola Rega a la tasa más alta de toda la pandemia y la sí no toca techo



fermin perez-nievas
@mintxopn

"Nadie habla euskera en la Ribera ni se ha hablado nunca" dice hoy el alcalde de Tudela Alejandro Toquero en El Mundo. No sé si es peor la mentira, la ignorancia o el desconocimiento de su tierra.



Euskal Herriko Neska* Gazteak
@EH_NeskaGazteak

Asteburu honetan 600 NESKA*
GAZTE ELKARTU GARA ELIZONDON!
🔥🔥🔥

Krisi anizkoitzari nola erantzun
behar diogun hausnartu, gure
subjektua berrezaugarritu eta gure
problematika propioak mahai
gaineratu ditugu, besteak beste 😊

ESKERRIK ASKO BIHOTZ-
BIHOTZEZ!!

#LurrikaraGara

Traducir Tweet



Jule Goikoetxea
@JuleGoi

Ortuzar, querido, no hay que tener
miedo a las relaciones abiertas. Quizá
aprenda trucos picantes y resurja la
pasión del primer día.

Andoni Ortuzar | Presidente del EBB del PNV

«El PSE deberá elegir entre estar
cómodo con el PNV o aventuras con
Bildu»

«Lo de Otegi fue marketing», lamenta Ortuzar, convencido de que
la izquierda abertzale ha querido «utilizar» al PSOE para
blanquearse



Ibai boreobil
@Ibaiboreobil

Iragana, orains, etorkizuna. Memoria, konponbidea,
askatasuna.Gudariak, presoak, batasuna #Donostia
#Morian #ibilianbilanetxerakobidean @sare_herriarraz
@sortuEH

Translate Tweet



Arkaitz Rodriguez Torres
@arkarodriguez

No se trata de condenar, sino de
asumir la responsabilidad de cada
quien.

Y no hay que obviar que estamos ante
un conflicto político irresuelto al que
tan solo cabe dar solución de forma
democrática, dando la voz y la
palabra al pueblo vasco.



4314 visualizaciones · De EH Bildu Legebiltza...



Sortu Gasteiz
@SortuGasteiz



Lander
@Landerlandia

Hoy es un mal día para el PNV. Ahí lo
dejo, los detalles los darán ellos
mucho mejor que yo, cuando salgan
de su cueva con su estrategia
comunicativa #Aiete1Ourte
replanteada para seguir atacando a la
izquierda independentista ante la
incomprensión generalizada de la
sociedad.



Sortu Aiaraldea
@SortuAiaraldea

#Tubacex

Herri borrokak berriz ere erakutsi digu
boteretsuak ez direla ukiezinak.

Ez da lantegi/gatazka txiki bat;
multinazional erraldoia da eta
aspaliko partez, txiki sentiarazi ditugu.

Kapitalari gerra beti, garaipena
posible delako, GORA ZUEK KOPON



ZUTIK AIARALDEA 🙄🔥



Chucki
@chuckiclampy

Creo sinceramente que nada define mejor al
capitalismo que un calvo multimillonario
viajando al espacio en un cohete con forma
de cipote, mientras tiene a los trabajadores
de su empresa meando en putísimas
botellas de plástico.


Translate Tweet

07:20 · 21/7/21 · Twitter Web App



grafismo
@grafismo


"Urkullu reprocha a Bildu que parte de
los retrasos del TAV se deben a la
violencia de ETA".



ELKARRIZKETA: ERRIA
ARGAZKIAK: FOKU

SAKONEAN

Arkaitz Rodriguez Torres
eta **Lur Albizu Etxetxia**



“EUSKAL HERRIA
ASKATZEA DA MUNDUA
ERALDATZEKO GURE
ESTRATEGIA”

SAKONEAN ERRONKAK HERRIGAIAREN ARGITAN



Pandemiaren ondorioz urtebetez atzeratu behar izan da Sorturen III. Kongresua. Herrigaia ponentzia onartuta eta honen inguruko eztabaida prozesua itxita, Arkaitz Rodriguez Torres [Altza, 1979] eta Lur Albizu Etxetxipia [Artazu, 1993] Nazio Kontseiluko kideekin elkartu gara hurrengo urteetarako Sortuk dituen erronka politikoez hitz egin eta gakoetan sakontzeko.

Hamar urteko trantsizioa isteko garaia dela dio Herrigaia ponentziak eta askapen prozesuan jauzi bat emateko baldintza hobeak daudela orain baieztatzen da. Zer esan nahi da horrekin?

Arkaitz: Herrigaiaren oinarri zen balantzean aipatzen genuen gure ustez urrats handiak egin ditugula bai mugimendu gisa eta bai herri gisa azken hamar urteetan. Laburbiltzearen, lehenik, aurreko ziklo politikoa arrakastaz ixteko gai izan gara, gogoan hartu behar baita, Estatu biren erasoan eta oztopoen gainetik egin behar izan dugula hori. Bigarrenik, EH Bildu eta EH Bai ezkerreko subiranismoaren erreferentzia politiko/instituzionala diren horiek indartu egin ditugu eta hori, ez horretan bakarrik, baina haien emaitza elektoraletan eta haien botere instituzionalean islatu da. Hirugarrenik, behar baino askoz beranduago eta motelago baldin bada ere, lortu dugu Estatu bien espetze politikan, presoen auzian, arrakala bat zabaltzea. Laugarrenik, urte guzti hauetan eman diren borroka eta mobilizazio emantzipatzaile eta

askatzaile horietan guztietan egon da hein handiagoan edo txikiagoan Sorturen eta ezker abertzalearen hauspoa.

Itxiztat eman dezakegu, estrategiaren egokitzapenari dagokionez bederen, hamar urte hauetako trantsizioa eta oinarri politik jarri ditugu, Herrigaiaren defenditzen den bezala, askapen prozesuan jauzi bat emateko.

Jauzi horrek nagusiki gauza bat eskatzen du: nazio bulkada berri bat abian jartzea.

Kongresu honetako tesi nagusietakoa izan da Euskal Herriaren nazio pultsua ahulduta ageri dela. Baina aldi berean, kontraesankorra eman dezakeen arren, EH Bildu eta EH Bai maila elektoralean zein agenda politikoan eragiteko gaitasunean inoiz baino indartsuago ageri dira. Askapen prozesuaren egoeraren neurria ez ote da ezberdina ala ere administrazio eremu bakoitzean?

Lur: Nazio pultsua bera ere toki ezberdinetatik interpretatu behar da, ze normalizazioaren

sintoma ere izan liteke. Jada ideia normalizatu bat da hein batean Euskal Herria eta, beraz, maila batean ez da gatazka iturri, lehen izan zitekeen bezala. Aldaketa asko gertatu dira azken hamarkadetan.

Ez zait iruditzen kontraesankorra nazio pultsuaren ahultzearekin. Aberasgarria eta aukera berriak irekitzen dituen zerbait dela uste dut, posible delako hegemonia berriak leihatzea hortik eta nazio pultsu horrek agian beste forma batzuk hartu ditzakeelako. Gure esku egonen da.

Estrategia konfederalak lurralde administrazio bakoitzetik osotasuna inpugnatzeko aukera ematen digu, adibidez. Palanka berri bat da, aldaketa eragiten duena. Kontua da eskema konfederal horri nola eransten zaion nazio pultsu berritu bat, gaur egunera egokitua. Ipar Euskal Herrian Euskal Elkargoaren sorrerarekin eta Nafarroa Garaian nafartasun berri baterantz eman diren aldaketekin, hegemonia lehiatzen ari gara. Deserosoagoa

den eszenatoki batean gaude baina oso urrats garrantzitsuak eman dira. Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban normalizazioarekin lotu behar genuke sintoma hori, zerbait naturala den gisan eta beraz beste gatazka batzuk sortu behar dira.

2017ko Kataluniako erreferendumak inflexio puntua markatu zuen Espaniar Estatuko politikan eta baita Euskal Herrian ere. Batasun girotik zatiketa girora igaro da independentismoa ordutik. Zer eman dezake Sanchezen Gobernuaren eta Aragonesen Gobernuaren arteko negoziazio mahaiak?

A: Ez dugu gure burua engainatzen eta ez dut uste Katalunian mahai horren aldeko

apustua egiten duten sektore independentistek, ERCK nagusiki, bere burua engainatzen dutenik. Guk pentsatzen dugu litekeena dela Espaniar Estatuak bai Kataluniaren bai Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea ez aitortzea sekula. Afera ez da hori. Afera da zer nola jokatu dugun egunen batean Estatuak behartzeko gure autodeterminazio eskubidea onartzera edo bestela nahikoa baldintza sortzeko gure azken helburuetararteko bidea, alegia errepublika bana eraikitzeko bidea, aldebakarki egin ahal izateko.

Azken batean, oinarrian dagoena aldebikotasunaren eta aldebarkatasunaren arteko eztabaida da. Hori da

“Itxitzat eman dezakegu hamar urte hauetako trantsizioa eta oinarri politik jarri ditugu Herrigaiian defenditzen den bezala, askapen prozesuan jauzi bat emateko.”

ARKAITZ

“Jada ideia normalizatu bat da hein batean Euskal Herria eta, beraz, ez da gatazka iturri, lehen izan zitekeen bezala.”

LUR

“Deserosoagoa den eszenatoki batean gaude baina oso urrats garrantzitsuak eman dira.”

LUR



“2017ko urriaren lehen horretatik aurrera ikusi dugu aldebakartasunak badituela bere mugak eta bere kosteak. Parez pare duzuna Espainiar Estatua denean bederen.”

ARKAITZ



une honetan Kataluniako independentismoa zeharkatzen duena eta zatitu ere egiten duena. Eztabaida antzua da. Ezin daiteke planteatu gure prozesuek, nahi eta ez, hasieratik bukaerara aldebikoa izan behar luketela, horrek, lehen egin dudana analisiaren argitara, Estatuari beto eskubidea ematea suposatuko lukeelako. Baina aldi berean diogu, ezin dela planteatu, prozesuek soilik aldebakarrekoa izan behar dutela. Zergatik? 2017ko urriaren lehen horretatik aurrera ikusi dugulako aldebakartasunak badituela bere mugak eta bere kosteak. Parez pare duzuna Espainiar Estatua denean bederen.

Beraz, aldebikotasuna jorratu beharra dago, subiranismoak etengabe bilatu beharra duelako legitimatzea lehenago edo beranduago aldebakarrez aurrera egitearen beharra. Eta horretarako behin eta berriro Estatuari eskua luzatu behar zaio: behin eta berriro gatazkaren soluzio demokratikorako eskaintzak edo proposamenak mahai gaineratu behar dira, modu horretan subiranismoa soluzioak bilatzeko eta eskaintzeko duen borondatea azalduz. Izan dadila Estatua soluzioei atea ixten dizkiena. Pedagogia hori egitea funtsezkoa

da independentziarako bidea jorrazteko, batetik, independentismoak bere posizioa eta bere oinarriak zabalduz joateko eta, bestetik, nazioartean begietara, bere planteamenduak eta posizioak legitimatzeko, eta aldebakarreko bidea legitimatzen joateko.

“Behin eta berriro gatazkaren soluzio demokratikorako eskaintzak edo proposamenak mahai gaineratu behar dira, modu horretan subiranismoa soluzioak bilatzeko eta eskaintzeko duen borondatea azalduz.”

ARKAITZ



“Kataluniako zein Euskal Herriko prozesuen aurrerabiderako giltza izan daiteke indarren artikulazioa.”

ARKAITZ

“Funtsezkoa da datozen urteetan bai Madrilen eta bai Bruselaren aurrean gehiengo demokratiko bana paratzea, nazio izaeraren errespetua eta onarpena exigituko dutenak.”

ARKAITZ

“Ezkerreko abertzaleen agenda bideorri komuna bilakatu da, eraldatzaileak diren eremuetan gainera. Bloke historikoaren zeregin nagusia hor betetzen da.”

LUR

Urte hauetan ekintza batasunaren aldeko lan politiko sendoa egin da ezkerreko independentismoaren eta Kataluniako independentismoaren artean. Zergatik da garrantzitsua Llotja de Mar bezalako aliantza esparrua?

A: Funtsezkoa da arrazoi batengatik: Kataluniako zein Euskal Herriko prozesuen aurrerabiderako giltza izan daiteke indarren artikulazioa. Nahiko garbi daukagu elkarrekin eginez gero, beharbada ez dugula lortuko, baina zeinek bere aldetik jo ezkerreko zihurra da ez dugula lortuko, aurrean daukaguna ez delako edonolako estatua. Nahiz eta azken aldian aspaldiko krisirik sakonenean murgilduta egon, estatu indartsua eta boteretsua izaten jarraitzen du.

Funtsezkoa deritzogu indarrak artikulatzeari plano eta maila guztietan. Kataluniarekin nagusiki, baina baita Espainiar Estatuko gainontzeko nazio zapalduekin eta Europako estaturik gabeko nazioekin ere. Gure ustez, funtsezkoa da datozen urteetan bai Madrilen eta bai Bruselaren aurrean gehiengo demokratiko bana paratzea, nazio izaeraren errespetua eta onarpena exigituko dutenak eta beren bidea demokratikoki edo baketsuki urratu ahal izateko bitartekoak eskatuko dituztenak.

Ipar Euskal Herrian hazkunde krisi modukoa izan du ezkerreko abertzaletasunak azken urteetan. Duela hamarkada bat pentsaezina zatekeen agendan instituzionalizazioak, euskarak edo etxebizitzaren aferak halako zentraltasuna hartzea. Zein da erronka orain?

L: Gatazkaren ondorioen konponbiderako sortu den aliantza edo bloke historikoak ahalbidetu du bestelako eremu batzuetan aurrerapauso batzuk eman ahal izatea. Hasteko, Euskal Herria marraztu ahal izatea ahalbidetu du, Euskal Elkargoaren bidez instituzionalizazio prozesuan jauzi bat emanez. Aliantza horrek berak, marko instituzional mugatu horren potentzial osoa biderkatzeko aukera ematen du. Hori asko da. Ibilbide historiko bat izan duten bestelako borroketan salto bat emateko balio izan du. Etxebizitzarena paradigmaticoa da. Espekulazioaren aurka eta eskubide sozialen alde hamarkadetan eman diren borrokek dira, baina orain argazki oso bat ikusten da. Euskararen aurkako erasoaren aurrean ere nolako herri erantzuna eman den edo orain bereziki ekologismoaren bueltan landatzen ari diren hazi berriak ere aipagarriak dira.

Ezkerreko abertzaleen agenda bideorri komuna bilakatu da, eraldatzaileak diren eremuetan gainera. Bloke historikoaren zeregin nagusia hor kokatzen da. Kontua da ze aliantza esparru kokatzen dituzun eta gainera horiek nola kokatzen dituzun ezkerrean, beste herri bat eraikitzeko. Beste jauzi batzuk emateko egoeran dago Ipar Euskal Herria, baita instituzionalizazio prozesuan ere. Aukerak zabalik daude.



Ze aliantza mota behar ditu askapen prozesuak jauzi kualitatiboak emateko?

A: Askotarikoak. Ezker abertzalean oso termino estrategikoetan ulertu izan ditugu, kasik helburuen eta bidearen osotasunean ados egotea exigituko luketen aliantzen moduan. Bestetik, pentsatu izan dugu bilatu beharra zegoena zela EAJrekiko aliantza bat, zeinak ahalbidetuko lukeen burujabetzaren bide osoa ibili ahal izatea, sikiera Maltzagaraino.

Bada, ezin gaitezke geratu EAJrekiko balizko aliantza baten esperoan, gerta daitekeelako halakorik ez gertatzea, eta bien bitartean eskuak lotzen dizkigu. Bestetik, aliantza estrategikotzat jo genitzakeen horietaz aparte, egon daitezke bestelako elkarlan edo aliantza asko maila apalagokoak, baita txikiak ere, baina lagun dezaketenak ezkerreko subiranismoaren posizioa indartzen, gure proiektu politikoaren posizioa hobetzen eta zentzu horretan bidea urratzen.

“Lagunduko du Estatuetik indar harremana hobetzen? Bai ala ez. Erantzuna baiezkoa bada, aurrera.”

ARKAITZ

Edozein elkarlanen aurrean galdera bat da, nagusiki, planteatu behar dena: lagunduko du ezkerreko subiranismoaren posizioa hobetzen? Lagunduko du Estatuetik indar harremana hobetzen? Bai ala ez. Erantzuna baiezkoa bada, aurrera.

Askapen prozesua testuinguru jakin batean garatu behar da eta hori pandemiak markatu du azken boladan. Egoera oso irekia dela eta edozer gertatu daitekeela dio Herrigaia ponentziak. Indibidualismoaren, eskuinaren eta faxismoaren gorakada ere aipatzen dira. Ezkerreko alternatiba eraikitzeke ze aukera daude?

L: Ezkerreko eragileok Europan eta munduan azken hamarkadetan izan dugun ibilbidea aztertzea ezinbestekoa da non gauden ulertzeko; alegia, ze porrot eta ze garaipen egon diren azken hamarkadetan. Neoliberalismoa bera, indibidualizazio prozesuak, ezegonkortze prozesuak, prekarizazio prozesuak, eta abar, ez dira pandemiak ekarri dituen joerak, atzeragotik datoz. 2008ko krisiak gauza asko aldatu zituen jendearen espektatibetan, zer esanik ez gazte belaunaldietan. Orain modan da zinema eta serie produkzioetan apokalipsiaren ideia, munduaren amaierarena, distopien zerumuga. Herrigaiak ongi adierazten du gauza bat dela zein testuingurutan gaudenaren jabe izatea, eta beste kontu bat dela etsipena bilakatzea gure egunerokoa, nihilismoan eta baloreen hustuketa batera ihes eginez. Horren kontra proposamen politiko gauzagarriak egin behar dira eta eraldaketarako perspektiba eraiki behar da. Gure erantzukizuna da Euskal Herrian alternatiba gauzatzeko itxaropen eta gogo bat eraikitzea.

Guk ez dugu mundua bukatzea nahi, kapitalismoa da bukatu behar dena. Euskal Herria askatzea da mundua eraldatzeko gure estrategia, burujabetza

prozesuak amaieraraino eramanez. Bide orri hori jarraitu behar dugu. Eta gure ambizioa ez da inolaz bizirautea soilik, irabaztea baizik. Galtzaile izatera jotatzea galtzeko modu bat besterik ez da, eta ez gaude horretarako momentuan. Posible da gaur eta hemen, baina egin egin behar dugu, erantzukizun hori dugulako eta Euskal Herriari eta munduari zor diogulako.

Euskal Herria eraikiz zapaltzen gaituen sistema horren osotasuna inpugnatzea da gure ambizioa. Adibidez, zaintza sistema publiko eta komunitario bat eraikitzeke bidea jorratzen badugu, horrek sistema inpugnatzen du, kapitalismoak oinarriak arrakalaten dituelako; edota pentsio duin batzuk Espainiar Estatuak oligarkia finantzieroek onartu ezin dituen bezala. Krisi ekologikoari aurre egiteko eman behar diren aldaketa guztiak egungo sistema ere inpugnatzen dute, goitik behera. Ambizio horrekin busti behar ditugu aldaketarako eragile guztiak.

A: Pandemiak agerian utzi ditu aspaldian ez bezala sistema kapitalistaren hutsuneak, desorekak eta bidegabekeriak. Bide batez, pandemiak agerian utzi du aspaldi ez bezala, estatu propio bat ez izatearen ondorioak.

Álvaro García Linerak esaten du krisi garaian sinesmenen hustuketa bat ematen dela, hegemoniko izan diren dogmen kuestionamendua ematen delako eta horrekin batera hutsune hori bestelako sinesmen edo ideia batzuekin betetzeko aukera sortzen da. Beraz, gure kasuan aukera dago, oraindik ere hegemoniko den

“Proposamen politikoak egin behar dira eta eraldaketarako perspektiba eraiki behar da. Gure erantzukizuna da Euskal Herrian alternatiba gauzatzeko itxaropen eta gogo bat eraikitzea.”

LUR

“Oraingo hau da inoiz baino gehiago boterea konkistatzen saiatzeko unea. Boterea konkistatu, boterea eraldatzeko eta botere hori herri honen eta bere gehiengo sozialen interesen eta beharren zerbitzura jartzeko.”

ARKAITZ

mundu ikuskera neoliberal eta hein batean unionista hori, ikuskera subiranista eta eraldatzaile edo aurrerazale batekin ordezkatzeko. Bataila horren emaitza ez dago idatzita, hein batean guk egiten dugunaren arabera ere izango delako. Beraz, horrek zer eskatzen digu indar emantzipatzaile guztioi? Guztia irabaz daitekeenaren anbizioarekin jokatzeko. Botere anbizioarekin eta botere estrategiarekin jokatu behar dugu. Honako hau ez da ez konfort politiko-ideologikoko eremu batera erreplegatutako edota ihes egiteko unea. Oraingo hau da inoiz baino gehiago boterea

konkistatzen saiatzeko unea. Boterea konkistatu, boterea eraldatzeko eta botere hori herri honen eta bere gehiengo sozialen interesen eta beharren zerbitzura jartzeko. Horretarako estrategia behar du ezker abertzaleak eta hala planteatzen du Herrigaia ponentziak. Sarririk esango lukeen bezala, gauza bat delako iraultzaile izatea, eta beste bat, zeharo ezberdina, iraultza egitea. Eta guri ez zaigulako aski iraultzaileak izatearekin; guk iraultza egin nahi dugu, eta horrek eskatzen du inoiz baino gehiago artikulazio zabalak eta gehiengoak eraikitzea eta boterea lehiatzea eremu guztietan.





“Borroka eta aldarri guzti horiek, gero eta gehiago, sistemaren osotasuna inpugnatzen dute eta subjektibitate eraldatzaile eta askatzaile bat ereiten laguntzen dute.”

ARKAITZ



Garai nahasi hauetan, nazio bulkada berri baten beharra dagoela adierazi duzue eta horrekin batera, belaunaldi erronka irudikatzen duten ildo estrategikoak zehaztu dituzue: lana eta bizi baldintzak, ekologismoa, feminismoa, euskara, hezkuntza, migrazioak... Ze motako ekarpena egin behar du Sortuk esparru horietan?

A: Borroka esparru guzti horiek indartzea izan behar du bere kezka eta egitekoa. Borroka eta aldarri guzti horiek, gero eta gehiago, sistemaren osotasuna inpugnatzen dute eta subjektibitate eraldatzaile eta askatzaile bat ereiten laguntzen dute. Aldarri horiek, beraz, askapen bidean urrats berriak egin ahal izateko oinarriak jartzen laguntzen duten dinamikak dira. Fronte instituzionalak indar harreman sozial hori gero garaipen juridiko/legaletan itzuli behar du.

Zeren, badago joera bat, kasu batzuetan, ezkerreko sektore batzuen aldetik eta eragile sindikal batzuen aldetik, ardurak besterentzeko. Argi esan beharra dago: fronte instituzionalak nekez gauzatuko ditu aldaketak, ez badago atzetik indar harremana baldintzatu eta aldaketaren alde jartzen duen herri mugimendurik.

Horrela izango da posible fronte instituzionalak indar harreman horiek konkista juridiko, legal eta politika publiko konkretuetan itzuli ahal izatea.

Barneratze independentista kontzeptua ere aipatzen da azken boladan bai Sortun eta baita EH Bildun. Zer esan nahi du horrek?

A: Askapen prozesuan aurrera egiteko funtsezkoa da independentismoa gizarte esparru guztietan presente egotea eta ahal dela lidertza paper bat jokatzeko. Bereziki boterea dagoen eremuetan edo gizaratearen eremu traktoreetan. Urruti gabe, Katalunian ikusi genuen gakoa dela. Ez da berdina egiaren orduan, aldebakarreko jauziak emateko garaian, sindikalismo independentista bat izatea edo ez; ez da berdina merkataritza ganbera independentisten esku egotea ala ez; ez da berdina udalen gehiengo

“Askapen prozesuan aurrera egiteko funtsezkoa da independentismoa gizarte esparru guztietan presente egotea eta ahal dela lidertza paper bat jokatzeko. Bereziki boterea dagoen eremuetan edo gizartearen eremu traktoretan.”

ARKAITZ



independentista izatea edo ez; ez da berdina kirol federazioak independentistak izatea edo ez; ez da berdina unibertsitateetako errektoretzak independentistak izatea edo ez; ez da berdina, bide batez, polizia lokalen edo autonomikoen gehiengoa independentista izatea edo ez. Ez eta polizia horien zuzendaritzak edo goi mailako ardurak independentistak izatea edo ez.

Urriaren lehenaren osteko egunetan luze hitz egin zen kontu hauetaz. “Egiaren orduan” zer behar duzu? Ahalik eta gehiago nabarmenena, nazioartean aldetik ahalik eta onarpen handiena eta lurraldearen kontrola. Ba hori.

Arkaitz. Duela hiru urte egindako elkarrizketan zenioen 2018a presoan auzia konponbidean jartzeko ibilbide orria adosteko urtea izan behar zela. Hala gertatu da. Espainiako eta Frantziako Gobernuak azken urteetan jarrera aldaketa txiki bat izan

dute eta urrats batzuk eman dira preso politikoen afera konpontzen hasteko. Urriaren 18ko Adierazpenak eta EPPKren erabakiak markatu dute agenda neurri handian azken asteetan. Aldebakarreko urrats hauek zeri erantzuten diote?

A: Azkenerako posible izan bada Estatuaren hormatzar horretan pitzadura bat irekitzea, izan da hamarkadetako borrokaren, mobilizazioen, adostasun zabalen eta aldebakarreko urratsen ondorio. Herriak behartu ditu Estatuak urrats horiek egitera. Aurrera egiten jarraitzeko funtsezkoa izango da aipatutako eremu horietan guztietan urratsak egiten jarraitzea, azken hamar urteetan urratzen ari garen bidearen baitan.

“Aurrera egiten jarraitzeko funtsezkoa izango da aipatutako eremu horietan guztietan urratsak ematen jarraitzea, azken hamar urteetan urratzen ari garen estrategiaren baitan.”

ARKAITZ

Bi ekimen horiek hein batean lotuta daude. Horien lehen helburua izan da Aieteko bide orriak jasotzen duen hirugarren puntuan sakontzea. Izan ere, Ezker abertzaleak konpromiso bat hartu zuen Aieteko Adierazpenarekin eta berriki Urriaren 18ko Adierazpenarekin konpromiso hori berritu dugu. Ze konpromiso? Gatazkaren konponbide osoaren baitan,

biktima guztien aitortza eta erreparazioa. Bi ekimen horien helburua ETaren biktimen aitortza eta erreparazio konpromiso horretan sakontzea izan da. Bigarren helburu bat ere izan dute; gatazkaren konponbiderako agendaren osotasunari bultzada berria ematea. Eta bide horretan, inportantea da ETaren biktimen mina ahal den neurrian arintzea; baina, zalantzarik gabe, hori bezain inportantea da gaur gaurkoz biktima kontsideraziorik ere ez duten Estatuaren milaka biktima horien aitortza eta erreparazioa egitea. Horrez gain, konponbideak eskatzen du preso, iheslari eta deportatu politikoen auziari aterabide definitiboa ematea. Adierazpen hauen helburua horretarako behar diren adostasunak erraztea izan da, orain artekoak gehiago zabalduz. Eta, jakina, azkenik, konponbideak eskatzen du ere gatazka politikoa den honi soluzio demokratikoa ematea. Nola? Bada, demokrazian egin litekeen modu bakarrean: herri honi hitza eta erabakia emanaz eta horiek errespetatuz.

Urrats horiek aliantzetan izan ditzaketan ondorioez ere asko hitz egin da azken boladan...

A: Adierazpen hauen erreakzioei erreparatuta, bistan da ondorio erantsi bat dela hamarkadetako kriminalizazio eta estigmatizazioaren ondorioz ezkerreko independentismoaren proiektuaren bueltan altxatutako harresiak eta lubakiak desagerrarazten lagun dezaketela. Zentzu horretan ezkerreko subiranismoari aliantza berrietarako aukerak zabaldu dakizkioke, baita proiektu horretara gizarte sektore berriak erakartzeko aukera ere.

2017an Sortuk bere burua feministatzeko konpromisoa hartu zuen eta gaur Plan Feminista martxan dago. Zer ekarri beharko luke hurrengo urteetan plan horren aplikazioak?

L: Prozesu bezala irudikatu behar dugu. Hau ez baita egun batetik bestera bukatuko. Bi alde ditu planak, barnera begirakoa bata, kanpora begirakoa bestea. Konpromiso batzuk ekarri ditu aurrekoak, zuzendaritza mailakoak eta antolakunde bezala hartzen ditugunak. Konpromiso horiek egiturazkoak dira eta horrela ulertu behar da. Horregatik da bukatuko ez den prozesua. Hurrengo urteetan antolakundea feminismoz busti behar da; geruza askotara iritsi

behar da, oinarri sozialean eragin behar du eta halako eraldaketa prozesuak oso luzeak direla kontuan izan behar du.

Plana osatu aurretik egin zen diagnostikoak ze hutsune eta ze gabeziari erantzun behar zitzaion ondo zehaztu zuen. Emakumeen presentzia eta parte hartze politikoan erronka garrantzitsua dugu eta Plan Feminista ahalduntzerako eta desboteretzerako tresna izan behar da. Hain zuzen, ahalduntzean jarriko nuke arreta. Militantzia ereduari buelta eman behar diogu Sortuk berak feminismoak planteatzen dituen egiturazko aldaketak metabolizatuz. Erronka konplexua da, eta ez da

emakumeoi tokia ematea bezain "sinplea". Parte-hartzean jartzen dugu askotan fokua, eta erronka handia dugu eremu horretan. Prozesuak, ordea, askoz harago joan behar du.

Edukien aldetik Sortuk feminismoarekiko ze harreman, ze kokapen politiko egiten duen eztabaidatzea ere oso inportantea da gure planari eta ikuspegiari beste leku bat emateko. Horrek emakumeon aldetik ahalduntze prozesu bat egitea eskatzen du, baina zama hori ez ezin da gudan erori; antolakunde osoarena izan behar da. Konpromisoak praktikan jarri behar dira eta hori guztion erantzukizuna da.



Lehen aipatu duzue, baina EH Bildu eta EH Bai eraikitzen lan handia hartu du Sortuk azken urteetan. Horiek errealitate sendoa izanik orain, ze funtzio egozten dizkio bere buruari Sortuk?

A: Sortuk EH Bildu eta EH Bai koadro politikoz eta ekarpen politikoz hornitzen jarraitu behar du. Orain arte egindakoak ez du agortzen Sortuk horiekiko duen ardura. Sortuk oso garbi du bi bitarteko horiek estrategikoak direla askapen prozesuaren baitan, euskal gizarteari etorkizun hobe baten eskaintza politikoa luzatzeko eta hegemonia lehiatzeko.

Hori esanda, urte hauetan egindako lan guztiak beste zeregin batzuetan indar gehiago jartzeko aukera ematen digu orain. Zeintzuetan? Lehen ezinbestekotzat jo ditugun herri mugimenduen edo mugimendu sozialen sustapenean. Zertarako? Sistemaren osotasuna inpugnatzeko, eta burujabetza beharraren ideia indartzeko, hau da, mundua aldatu nahi duten pertsona guztiei aldaketa hori gauzatzeko marko bat eskaintzeko, baina baita burujabetza beharra aldarrikatzeko ere, aldaketa guzti horiek egun herri gisa ez daukagun erabakitze gaitasuna eta botere politikoa izatea eskatzen duelako. Dinamika guzti horiek subjektibitate berriak sortzea ahalbidetzen dute, subjektibitate neoliberal eta kapitalistarekin hautsiz. Subjektibitate berri bat askatzailea; subjektibitate berri bat subiranista; eta subjektibitate berri bat kolektiboa, soziala, sozialista, azken batean.

Finean, guzti horren eskutik abiatu behar da lehen aipatu

“Militantzia ereduari buelta eman behar diogu Sortuk berak feminismoak planteatzen dituen egiturazko aldaketak metabolizatuz. Erronka konplexua da.”

LUR

“Emakumeon aldetik ahalduzko prozesu bat egitea eskatzen du, baina zama hori ez ezin da gudan erori; antolakunde osoarena izan behar da ardura.”

LUR

“Sortuk EH Bildu eta EH Bai koadro politikoz eta ekarpen politikoz hornitzen jarraitu behar du.”

ARKAITZ

“Gurea bezalako 3.000.000 pertsonako herri txiki batean milaka pertsona saretu ditzakeen mugimendu bat egotea anomalia da eta bere horretan garaipen handia.”

LUR

dugun bulkada nazional berri hori.

Ezker abertzalearen oinarri soziala eta bere inteligentzia kolektiboa aktibatzea hartu zuen erronka Sortuk Zohardian. Lortu al da lan filosofia hori martxan jartzea? Antolatzaileen antolakunde izan beharraz mintzo zarete Herrigaian.

L: Zohardian oso helburu handia jarri genion gure buruari, prozesu luze bat eskatzen duena: milaka pertsona artikulatzea. Gurea bezalako 3.000.000 pertsonako herri txiki batean milaka pertsona saretu ditzakeen mugimendu bat egotea anomalia bat da, eta daukan balioa aitortu behar zaio. Komunitate hori artikulatu eta misio bat ematea, ordea, oso lan zaila da. Azken urteetan esperimintatzen ibili gara, bide berriak ireki nahian. Oinarri bat jarri dugula uste dugu, eta badakigu oinarri horrek duen potentziala zein den.

Herrigaian bi ideia aipatzen dira: joko banatu eta misioa eman. Hori da Herrigaian potentzial handiena duen ideia. Ez da hainbeste klabe bat eta bakarra izango duen mugimendu politiko bat jartzea martxan, baizik eta inteligentzia kolektibo oso handi bat aktibatzea eremu ezberdinetan: izan herri mugimendu estrategikoetan, izan barneratze independentistaren logikan, burujabetzaren esparruan, gatazkaren ondorioen esparruan... Martxan dagoen mugimendu bat behar dugu, herri hau mugiaraziko duena, eta horretarako militante bakoitzak ezagutzen duen edo borrokatzen duen esparru horretan bere alea jarri behar du; horretarako prest dagoen

“Martxan dagoen mugimendu bat behar dugu, herri hau mugiarazten duena, eta horretarako ezagutzen duen edo borrokatzen duen esparru horretan bere alea jartzen duen oinarri sozial bat behar dugu.”

LUR

oinarri sozial bat behar dugu. Erronka handia da, engranaje oso bat jarriko duelako martxan, jakinda gure anbizioa dela osotasuna kontuan hartzen duen askapen estrategia bat garatzea.

Azken urteetan EH Bildun, EH Bain zein herri mugimenduetan koadroen ekarpen militante handia egin du Sortuk horiek indartzeko xedearekin. Ba al du bere burua berproduzitzeko gaitasunik Sortuk? Zer egin behar du horretarako?

L: Izan behar du. Lehen hitz egin dugu datorren apokalipsiaz. Sortuk jakin behar du horren aurrean helduleku batzuk ematen jendeari. Izango dugun erronka handienetako bat da momentu bakoitzean erronka estrategikoak zeintzuk diren irakurtzen asmatzea, nondik jo behar dugun eta militante horien elikadura politikoa nondik eta nola egiten dugun.

Eragiteko gaitasuna baldin badugu, koadroak sortuko dira. Koadroak praxi politikoaren bidez sortzen baitira, dinamizazio politikoan, alegia, eta hori da ezker abertzalea hain urrun iritsi izanaren arrazoi funtsezkoetako bat. Adibidez, ekologismoan mugimendu indartsu bat sustatzeko gai bagara, militante gehiago sortuko dira.

Bestalde, azken urteetan eskola politikoa, eskola feminista, Erria aldizkaria bera jarri dira martxan. Borroka ideologikorako eta trebakuntzarako tresna horiek indartu eta behar diren tresna guztiak jarri beharko dira martxan.

A: Antolakunde honen funtzio nagusietako bat da iraunkorki eta etengabe koadro politikoz hornitzea EH Bildu, EH Bai, herri mugimenduak eta oro har euskal gizarteko esparru guztiak. Eremu horietan guztietan egingo dugun lanak biderkatuko ditu koadroak eta beren burua antolakunde honetan antolatze beharra eta desira izango duten pertsonak.

Ezker abertzaleak borroka tradizio bat eta kultura politiko organizatibo bat ordezkatzeko du, gure ustez altxorra dena egungo testuinguruan. Jakina delako gizarte hau gero eta indibidualistagoa dela, balore kolektiboak ahultzen ari direla, eta abar. Konpromisoa, herriarekiko lotura, eskuzabaltasuna, kolektiboarekiko leihaltasuna, diziplina... Funtsezkoa da balore horietan hezitako militanteak sortu eta biderkatzea. Lur-ek esan duen bezala, praxiak sortuko ditu koadroak eta erakarriko du jendea, ikusten badu antolakunde honetan bitarteko funtzional bat bere zereginerako, bere kezkei bidea emateko. Funtzionala den



heinean, bere burua birsortuko du.

Hamarraldi berrian sartu gara. 2030 urtean nola nahi zenukete egotea Euskal Herria?

L: Etorkizuna ziurgabea da, hori da ziur dakigun bakarra, paradoxikoki. Krisi ekologikoaren kontuarekin, badago amildegia ertzean egotearen sentsazioa. Belaunaldi batek ez du ezagutu soldata duin bat eta prekarizazio prozesuan gauza asko aldatu dira. Bizi eta lan baldintzen esparruan aurrerapausoak eman dituen herri bat irudikatzen dut, soziologikoki ezkererago egongo den jendartea. Herri bat buruaskiagoa izango dena, burujabetza esparru ezberdinetan aurrerapausoak emanda. Gustatuko litzaidake Estatu bat izango garela esatea baina estadioa edozein dela ere, Euskal Herriak segiko du izaten



bere askapen prozesuan urratsak ematen jarraitzen duen herri bat. Gure proiektuaren aldeko borroka eta emantzipazio prozesuak aurrera jarraitzen badu, irabazten ariko garen seinale izango da.

A: Sakoneko aldaketa politiko eta sozialerako herri nahi bat artikulatuta irudikatzen dut. Euskal Herria gehituta European martxan den olatu subiranista/ autodeterminista horretara. Gatazkaren ondorioez ari garela, preso, iheslari eta deportatu politikoen auzia konponduta. Ezkerreko subiranismoaren proiektu aurrerazalea hegemoniko bilakatuta, alegia, gizartearen gehiengo baten aukera bilakatuta. Azken batean, bere askatasunerantz eta gizarte justuago, solidarioago, berdinzaleago baterantz urrats sendoz bidea urratzen ari den herria.

“Koadroak sortzen dira praxi politikoaren bidez, dinamizazio politikoan eta hori da ezker abertzalea honaino iritsi izanaren arrazoi funtsezkoetako bat.”

LUR

“Konpromisoa, herriarekiko lotura, eskuzabaltasuna, kolektiboarekiko leihaltasuna, diziplina... Funtsezkoa da balore horietan militanteak erreproduzitzea.”

ARKAITZ

“Gure proiektuaren aldeko borroka eta emantzipazio prozesuak aurrera jarraitzen badu, irabazten ariko garen seinale izango da.”

LUR



Bilbotik Marrakech-era, hegaldi klimatiko laburra IPCCrekin



Jokin Bergara
Sozio-ekologian ikerlaria

Argazkiak: FOKU

Europako Ingurumen Agentziak gizarte sistema jasangarriak eta hazkunde ekonomikoaren helburua aldi berean bilatu ezin diren egitasmoak direla esan du urte honen hasieretan.

Gai ekologiko eta sozialak gertutik jarraitzen dituenak izango zuen aurtengo abuztuan klima aldaketaren gaineko adituen taldeak (IPCC) argitaratu zuen azken txostenaren berri. Txosten horretan, azken datuak eguneratzeaz gain iraunkorra den berotze globalaren joera are gehiago berresten du, adostasun zientifikoa zabaltzearekin batera.

Aipagarriak diren ondorioen artean, bi dira bereziki azpimarra berezia merezi dutenak. i) Negutegi efektuko gasen murrizketa sakon eta esanguratsua gertatu ezean datozen 5-10 urteetan, XXI. mendeak 2°C tik gorako berotzea ezagutuko du, 5,7°C-ko berotzea aukera erreala izanik. ii) Jada gizarte industrialen aroak isuri dituen gasek konponezinak diren ondorio kaltegarriak lagako ditu mendeetan zehar, bereziki ozeanoetan, ipar eta hego poloetan eta itsasoaren altueran. Ez da kasualitatea Europako Ingurumen Agentziak gizarte sistema jasangarriak eta hazkunde ekonomikoaren helburua aldi berean bilatu ezin diren egitasmoak direla esan izana urte honen hasieretan.



Scenario	Near term, 2021-2040		Mid-term, 2041-2060		Long term, 2081-2100	
	Best estimate (°C)	Very likely range (°C)	Best estimate (°C)	Very likely range (°C)	Best estimate (°C)	Very likely range (°C)
SSP1-1.9	1.5	1.2 to 1.7	1.6	1.2 to 2.0	1.4	1.0 to 1.8
SSP1-2.6	1.5	1.2 to 1.8	1.7	1.3 to 2.2	1.8	1.3 to 2.4
SSP2-4.5	1.5	1.2 to 1.8	2.0	1.6 to 2.5	2.7	2.1 to 3.5
SSP3-7.0	1.5	1.2 to 1.8	2.1	1.7 to 2.6	3.6	2.8 to 4.6
SSP5-8.5	1.6	1.3 to 1.9	2.4	1.9 to 3.0	4.4	3.3 to 5.7

Iturria: IPCC-ren 2021eko txostena (Climate Change 2021, The Phxysical Science Basis)

Taulan antzeman litekeen gisa, IPCCko zientzialariek bost eszenatoki posible aurreikusten dituzte, mundu mailan hartzen diren neurrien arabera. Adostasun politiko zabalarekin eta karbono isuriak berehala jaitsita, 2100. urterako gradu 1 eta 1,8 artean igoko litzateke bataz besteko tenperatura SSP1-1.9 agertokian. Adostasunik gabe eta isuriak apenas mugatuta 2081-2100 aldian 3,3°C eta 5,7°C arteko mailalara iritsiko ginateke, ondorio dramatikoekin planetaren lurralde askorentzat. Tarteko agertokiek ere (agian probableenak irakurketa politiko zorrotza egiten badugu) ez dakarte berri onik, 3°Cren bueltako berotze mailan kokatzen dira, horrek esan gura duen guztiarekin.

Aipatu genezake ere gaur CO2 isuriak zerora mugatuko bagenu planetak 50-60 urtetan berotzen jarraituko duela, bere erritmoak eta prozesuak behar baititu metatutako kopuru guzti hori desegiteko. Edo azpimarra egin genezake ere Artikoaren izotza urtzeak permafrostaren karbono galera dakarrela, eta horrek milloika tona metano zabalduko dituela atmosferan, berotze globalaren suari oraindik eta egur gehiago jaurtiz. Garrantzitsua da, ordea, auzia begirada zientifikotik bezainbeste begirada politiko-sozialetik aztertzea, Santiago Muiño antropologo eta ikerlari ekosozialak dioen moduan klima aldaketa modu atmosferikoan adierazten den problema soziala delako.

Tarteko agertokiek ere (agian probableenak irakurketa politiko zorrotza egiten badugu) ez dakarte berri onik, 3°Cren bueltako berotze mailan kokatzen dira, horrek esan gura duen guztiarekin.

Garrantzitsua da auzia begirada zientifikotik bezainbeste begirada politiko-sozialetik aztertzea, klima aldaketa modu atmosferikoan adierazten den problema soziala delako.



Erantzuleen artean arakaten hasirik, argia da herrialde batzuen jardun industrialaren eta masa-kontsumoaren inpaktua nabarmen handiagoa dela beste batzuen bano. Bloke geopolitikoetan pentsa dezakegu, ipar-hego harremanetan, nazioarteko lanaren banaketan

(Txina egin genuen mendebaldearen lantegi) edota klase sozialen bereizketan. Zehazki, ipar aberatsak (biztanleriaren %10) jarraitzen du emisore nagusi izaten, tartean gu. Oroitu dezagun, EAEko herritar bakoitzak 4,32 hektarea globaleko kontsumoa izan zuen 2019. urtean. Horrez gain geure ekoizpen eta kontsumo erudian horren barneratua dugu erregai

fosilen erabilera, ezen sektore prekarioen ere (mila eurotik beherako diru-sarrerekin) 2 planetatik gorako zor ekologikoa dutela. Besterik da mapa globalean posizio subalternoa duten herrialdeen langile eta herri klaseen egoera. Jakin badakigu balio-kate globalek estraktibismoa edo hango proletalgoaren lan-indarraren erabilera baliatzen dutela ipar aberatseko supermerkatuak, dendak eta industriak ondo hornituta egoteko. Bestela esateko, planetaren biogaitasunarekin gaurko kontsumo mailan 983 milioi Luxenburgotar mantendu ahalko lirateke iraunkorki planeta guztian; Eritrearren kontsumo mailarekin 25.700 milioi.

Ipar aberatsak (biztanleriaren %10) jarraitzen du emisore nagusi izaten, tartean gu.

Planetaren biogaitasunarekin gaurko kontsumo mailan 983 milioi Luxenburgotar mantendu ahalko lirateke iraunkorki planeta guztian; Eritrearren kontsumo mailarekin 25.700 milioi.



IPCC-k aurreikusitako berotzea gauzatuko balitz, 2100ean Bilbon gaur Marrakech-en duten klimaren antzeko egoera izango genuke.

Batek pentsa lezake etorriko dela hidrogeno berdea, asmatuko dutela auto elektrikoak masan ekoizteko modua edo energia berriztagarrietan sakonduta egon daitekeela konponbiderik. Eztabaidatu liteke asmakuntzez eta hipotesiez, ingeniarietan fedea izan, baina termodinamikaren bigarren legea burugorria da oso, edozein bihurtze hartuta ere han egongo da gure zain, nondik ezin garen pasa esateko. Errelato berde eta digitalaren mozturroak hanka laburrak ditu beraz, zientifikoki sostengatu ezin delako batetik eta epe luzeko aterabide eraginkorra martxan jartzea oztopatzen duelako bestetik, krisia aukera gisa ikustearen printzipio neoliberal arriskutsuan. Soziologiaren lege klasikoak dio, berdin dela gertakari edo kontakizun bat faltsua izatea, errealtzat jotzen bada sozialki, erreala izango da bere ondorioetan. Araba

eta Nafarroa eguzki-plakez eta haize-errotez betetzen ari diren honetan, ematen du zer pentsatua.

Eztabaidatu liteke asmakuntzez eta hipotesiez, ingeniarietan fedea izan, baina termodinamikaren bigarren legea burugorria da oso.

Lurreratu gaitezen baina Euskal Herrian. Lurralde heze berde eta urdinak josi ditu irudiz gure literatura, kanta eta imaginario kolektiboa. IPCC-k aurreikusitako berotzea gauzatuko balitz, 2100ean Bilbon gaur Marrakech-en duten klimaren antzeko egoera izango genuke, eta gaur gaurkoz ezagutzen dugun euskal kostaldea guztiz itxuraldatuta

legoke, itsas mailaren igoerak kalteturik. Ez dakit inork pentsatu duen Kantauriren oldarraldiari eusteko dike erraldoi bat sortzea Getxotik Angeluraino, edo Bilboko kaleak fresko mantentzeko hozte-sistema konplexua instalatzea, azken Basque Innovation Center-i enkargua pasatuta. Ez dirudi geoingeniaritzan edo teknologia salbatzailean sinesteak arazoari ertz sensibleenetik eustea ahalbidetzen duenik; lagungarri izan daiteke, tokian tokiko energia sistemak egokitu, optimizatu eta sare orokorrekarekin nolabaiteko oreka bilatzeko, baina ez da konponbidearen ardatz nagusia.

Ez dakit inork pentsatu duen Kantauriren oldarraldiari eusteko dike erraldoi bat sortzea Getxotik Angeluraino.

Ardatza beste nonbaiten dago, hegemoniaren borrokan, are, hegemonia ekosoziala eraikitzeko ariketan, prozesu sozial eta historikoeekin lan egin behar den eremu ziurgabe eta prekario horretan. Zentzu gramsciarrean pentsatzeko, nola egin desazkundera zentzu komun? Nola itzuli ebidentzia zientifiko dena pentsabide eta mundu ikuskera hegemoniko? Zeregin horretan gure gaitasunik onenak jartzea dugu erronka, geure gizartearen azpikorronteetara jaitsi eta handik norabide berriak emanaz iritzi fluxuei. Lagunduko du teknologiak, ingeniartzak, zuhaitzak landatzeak eta garraio sistema jasangarriagoak pentsatzeak, baina gatazkaren nerbio nagusia geure azpiegitura soziokulturala da, iraupen luzekoa, ondo errotua eta edozein eraldaketari oso erresistentea. Oinordekotza marxistatik jaso dugun begiradak sarritan eroan gaitu dimentsio kulturala zerbait arina, moldagarria eta gainegiturazkoa zela pentsatzera, baina nahikotasunaren kultura bat edo automugatutako norbanakorik ez dugu lortuko esku-hartze kultural sendo eta eraginkorrik gabe.

Zentzu horretan argigarri zaigu Jorge Riechmann pentsalari eta ekologo sozial entzutetsuak darabilen aporia: ekologikoki beharrezkoa dena eta teknikoki bideragarria, politiko eta kulturalki ezinezkoa da: bestela esanda, politikoki eta kulturalki gaur bideragarria dena dramatiko da ekologikoki (eta ondorioz sozialki). Alternatiba ekosozialaren eraikuntzak ezinbestez igaro beharko du horren harro aritzen den itsaso politiko-kulturaletik, bere

atzera- aurrerekin, moldaketa eta konponketekin, baina norabidea garbi edukita. Eskura izango ditugun baliabide gutxiak justizia sozialeko terminoetan birbanatzeko ariketa politikoa posible izan dadin, aurrenik gehiengo sozial ekologisten artikulazioa egin behar dugu posible, bataila ideologiko eta kulturala planteatuz, zientziarik onenak (IPCC) ematen dizkigun datuekin eskutan, nahiz jakin badakigun egiak ez duela itzulpen politiko zuzenik izaten. Postazkunderaren gizartea sozialismoaren eskutik etorriko bada, eraldaketa material sakonetik bezainbeste eskatuko du erroko eraldaketa kultural-subjektibotik. Bilbotik Marrakech-era ordubetean iritsi gaitezke hegazkinez gaur. Termino historikoetan ere, berehala.

Lagunduko du teknologiak, ingeniartzak, zuhaitzak landatzeak eta garraio sistema jasangarriagoak pentsatzeak, baina gatazkaren nerbio nagusia geure azpiegitura soziokulturala da.

Politikoki eta kulturalki gaur bideragarria dena dramatiko da ekologikoki (eta ondorioz sozialki).

Eskura izango ditugun baliabide gutxiak justizia sozialeko terminoetan birbanatzeko ariketa politikoa posible izan dadin, aurrenik gehiengo sozial ekologisten artikulazioa egin behar dugu posible.

Postazkunderaren gizartea sozialismoaren eskutik etorriko bada, eraldaketa material sakonetik bezainbeste eskatuko du erroko eraldaketa kultural-subjektibotik.

Euskalduntze prozesua Ipar Euskal Herrian

Azken hilabeteetan euskarak Ipar Euskal Herrian egituraz pairatzen duen egoeraren ondorioak argiki azaleratu dira, oso bereziki irakaskuntzaren arloan. Paul Molac diputatu bretoiaren ekimenez, hizkuntza gutxituak babesteko lege-proposamena eztabaidagai izan da Frantses Estatuko instituzio nagusietan. Tartean murgiltze sistema orokortzeko neurriak jasotzen zituen egitasmo horrek. Azkeneko, legea onartua izan zen gehiengoz, nahiz eta Emmanuel Macronen Gobernuak bereak eta bi egin dituen bide hori oztopatzeko.



Mikel Irastorza Artola
Euskalgintzako militantea eta Sortuko kidea

Argazkiak: FOKU





Euskara Murgiltzearen alde!
Euskal Konfederazioa

Euskara ez da inoiz...

ARBEROAKO IKASTOLA
DONAMARTIRI

LARRAINE-ko
Eskola publikoa
MURGILTZEAN

IDAUZE-MENDI-ko
Eskola publikoa
MURGILTZEAN
2021eko sartzean!!

AIHERRA-ko
Eskola liburua
MURGILTZEAN
2021eko sartzean!!

LARRAINE-ko
Eskola publikoa
MURGILTZEAN
2021eko sartzean!!

ORTZAIZE
San Mikel
Eskola pribatua
MURGILTZEAN

ORTZAIZE
KOLA
XU
KEXU

BARDOZE-ko
Ikastola
2021eko sartzean!!

MARRITZE-ko
BAZETAKO
IKASTOLA
PUBLIKOA

AHATSA
Eskola publikoa
MURGILTZEAN

ARBONA
Eskola publikoa
MURGILTZEAN

ORTZAIZE
RPI OSSES AFFROS
EKOZE PUBLIQUE
BILINGUE

ORTZAIZE
POUR QUE VI
NOTRE
LANGUE BASQ

HABIA
ASTOLA
BIDARTE

XALBADO
KOLEGIOA
KANBO

LARRAINE-ko
ESKOLA



Kontseilu Konstituzionalak mutilatu eta, besteak beste, murgiltze sistemaren hedapena galarazteko erabakia hartu zuen.

Murgiltze sistemaren defentsak ikastolak gainditzen ditu eta eskola publiko zein pribatuetako komunitateek ere bere egin dute belaunaldi berriei euskara transmititzeko funtsezkoa den xedea.

Kate horren katebegirik argiena bere gehiengoaren 60 bat diputatuk legea onartu eta oren gutxitara ezarri helegitea izan zen. Ondorioz, Kontseilu Konstituzionalak mutilatu eta besteak beste, murgiltze sistemaren hedapena galarazteko erabakia hartu zuen. Hautsak harrotu zituen deliberoak, frantses Estatuan berean kontrako erreakzioak piztuz. Maiatzean hizkuntza gutxituetako lurraldeetako kolektibo ezberdinek deitu mobilizazioen kariatara, milaka eta milaka izan ziren Baionako karrikak zeharkatu zituzten herritarrak, neurri horretan gutxitan ikusia. Manifestazio handia inondik ere, bertako eragile eta hautetsien sustenguekin.

Argazki horrek zerbait erakusten du. Egun, murgiltze sistemaren defentsak ikastolak gainditzen ditu eta eskola publiko zein pribatuetako komunitateek ere bere egin dute belaunaldi berriei euskara transmititzeko funtsezkoa den xedea. Sare ezberdinetako eragileak elkarrekin mobilizatzen ikustera ohitu gara azkenaldian, baina ez da horrenbeste denbora pasa bakoitza berean zebilenetik. Klase elebidunak irekitzeko eskaerak hedatzen joan dira hainbat herritan, guraso, irakasle eta hautetsien aho bateko adostasunarekin. Estatuak debekatu edo galarazi izan du maiz, baina azkenerako, klase horiek irekiak izan dira. Hiriburukoa da adibide ezagunenetakoa.

Berdin esan daiteke arlo politiko eta instituzionalari buruz. Jada ez direlako soilik abertzaleak euskara haien agendan markaturik dutenak. Ikusi ahal izan den bezala, urteak gibelera, kontraktasunean izan diren frantses sektore politikoetako egungo ordezkari ainitz herri eragileekin batera ikusi ditugu ezberdinetan ekinbide ezberdinak aitzina eramaten ere.

Mugimendu abertzalearen funtsezko ideia batzuk jendartearen hedatzen ari dira, elektoralki ere borroka horiek kapitalizatzen ari da.

Zenbait aldarrikapenen espantsio garai bat bizi dugu Ipar Euskal Herrian eta horiek, zailtasunak zailtasun, manera bateratuan eramateko apustua egiten ari da azken hamarkadan.

MUGIMENDU ABERTZALEAREN BULTZADA

Izan ere, hizkuntza ordezkapen eta asimilazio prozesu luzeak etenik izan ez badu ere, zenbait gauza aldatu dira Ipar Euskal Herrian. Duela ez hainbeste euskararekiko kontrakotasuna nabarmen hedatuagoa zegoen gizarte sektore zabaletan, eta zer esanik ez, arlo politiko zein instituzionalean. Euskararen defentsa abertzaleen eta euskaltzale suharrenen kezka zen batez ere. Faktore gehiagorengatik izan badaiteke ere, oro har mugimendu abertzaleak azken bi hamarkadetan egin dituen aitzinamenduen emaitza dela erran genezake. Bere funtsezko ideia batzuk jendartearen hedatzen ari dira, elektoralki ere borroka horiek kapitalizatzen ari da emeki-emeki eta familia politiko ezberdinek egokitu behar izan dute beren posizioa.

Zalantzarik gabe, abertzaleak eta euskaltzale konbentzituena izanen dira geroan ere Euskal Herriaren euskalduntze prozesuaren motorra, baina beste fase baten aitzinean egon gaitezke herri ikuspegitik adostasun berriak eta ekinbide bateratuak garatzeko. Zenbait aldarrikapenen espantsio garai bat bizi dugu Ipar Euskal Herrian eta horiek, zailtasunak zailtasun, manera bateratuan eramateko apustua egiten ari da azken hamarkadan. Ipar Euskal Herria aintzat hartzen duen lehen instituzioa erdiestea edota gatazkaren ondorioen konponbidean eramandako ekinbidea dira hurbileko ibilbide horren adibide esanguratsuenak.



Frantses Estatuak ez du Hizkuntza
Gutxietuen Itunaren berrespenik egin.
Bada, Euskal Herrian Herriko Etxe
horiek abenduan egin dute ekitaldi
ofiziala elkarrekin.

Estatua ez da aldatu, bai haatik parean den Euskal Herria. Euskara «barne» konfrontaziorako gaia izan da luzaz gurean, baina pausoz pauso, Estatuarekiko konfrontazio elementu zentral bilakatzen ari da. Erran daiteke hori dela fase politiko berri honetako funtsezko gakoa: Euskal Herrian adostasunak eraiki, bide komuna egin eta Estatuak ezartzen dituen langak gainditzeko erabakitasunez jokatzea.

Aipamena merezi dute herriko etxeetan azken hilabeteetan bideratzen hasiak diren hainbat proiektuk. Frantziar alderdietako tokiko ordezkariak euskaldunon hizkuntz eskubideen bermea xedetzat hartuko duten egitasmoen alde engaiatzen ikusi ditugu gizartearen aitzinean, Hendaian kasu, Euskalgintzaren Kontseiluak sustaturiko Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa izenpetzen Euskal Herriko lehen hiru herrien artean kokatu baita. Gisa berean, Itsasuko herriaren inizatibari tiraka, Euskal Konfederazioaren bultzadarekin, hamarnaka dira Europako Hizkuntza Gutxietuen Ituna izenpetu duten herriak. Gogora ekartzekoa da, halaber, frantses Estatuak ez duela Itun horren berrespenik egin. Bada, Euskal Herrian Herriko Etxe horiek abenduan egin dute ekitaldi ofiziala elkarrekin. Bi borondate ageriko: Euskal Herria eta Estatuak.





ESTRATEGIAK BERPENTSATU

Ipar Euskal Herrian zerbait mugitzen ari da eta horrek estrategiak berpentsatzea galdegingo du, euskara normalizatzeko helburuan aitzinamendu kuantitatibo eta kualitatiboak eman nahi badira. Frantses Estatutik heldu diren erasoek blokeo egoera jasanezinak inposatzen dituztelako, ez soilik murgiltze sistemaren hedapenerako, hizkuntza politika ausart eta eraginkor bati buruz baizik. Egun misio hori bete behar duen Euskararen Erakunde Publikoaren jardura bera baldintzaturik dago, legeek eta Parisen hartzen diren erabakiek kateaturik.

Ez da ahaztu behar euskal hiztunen komunitatea %20 ingurukoa dela soilik hiru lurraldeetan. Nahikeria sozial eta politiko bat dago euskarari beste hauspo bat emateko, baina ez dezagun ahantzi koadro legalik gabe segitzen duela euskarak, babes eta ofizialtasunik gabe, frantsesa hizkuntza bakartzat hartzen duen estatu baten esanetara hala moduz bizirauten. Aldaketa garrantzitsuak aipatu baditugu ere, ez da begi bistatik galdu behar egun ere egoera zinez makurrean dela gure hizkuntza.

Dena ez da ez xuri ez beltz. Baikorrak izan gaitezke, baina egoera ongi aztertzen jakin behar dugu, ondotik estrategia egokiak pentsatzeko eta ekinbide berritzaileak asmatzeko.

Nahikeria sozial eta politiko bat dago euskarari beste hauspo bat emateko, baina ez dezagun ahantzi koadro legalik gabe segitzen duela euskarak.

Erantzun zaharrei galdera berriak



Eraitz Saez de Egilaz Ramos eta Lur Albizu Etxetxipia
EH Bilduko legebiltzarkidea eta Sorturen Nazio Kontseiluko kidea

Argazkiak: FOKU



Aberria askatzeaz hitz egin da herri honetan urte luzez. Aberriaren ideia disputan dago, ordea, aberria bera ulertu eta erreproduzitzeko aukerak eta moduak aldatu egin direlako nahitaez. Horrez gain, azken naziometroaren arabera nazio pultsua ahuldu egin da.

Nor da gai Euskal Herria bere luze zabalean irakurtzeko? Non galdu da nazio pultsua? Atzera egin ote du leku guztietan?

Abertzaletasuna da jokoan ote dagoena, ala, aitzitik, abertzaletasun bat eta bakarra uneoro birsortu duten subjektu unibertsalaren espazioa eta figura da jokoan ote dagoena?

Zalantza asko ditugula aitortzen dugu, baina konfiantza gehiago ematen digu zalantzak, tokitik mugirarazteko gaitasunik ez duen ziurtasun tematiak baino.

ABERRIA (BER)ASMATU

Aurrekoarekin ados egonda ere, ertzetako begiradatik baieztapen batzuk tentuz erabili behar liriatekeela uste dugu. Izan ere, baga: nor da gai Euskal Herria bere luze zabalean irakurtzeko? Non galdu da nazio pultsua? Atzera egin ote du leku guztietan? Biga: norena izan da orain galtzear omen dagoen aberriaren ideia? Nork gorpuztu du abertzale hegemonikoaren figura? Zein aberriz aritu gara? Nola definitzen da? Eta higa; abertzaletasuna da jokoan ote dagoena, ala, aitzitik, abertzaletasun bat eta bakarra uneoro birsortu duten subjektu unibertsalaren espazioa eta figura da jokoan ote dagoena?

Lur eta Eraitz gara, eta aberria uneoroko disputa politikorako espazio garrantzitsua dela uste dugu. Espazio horretan, orain arte baino subjektu gehiago, gatazka gehiago, ideia gehiago eta eremu gehiago barnebiltzen dituen aberrian sinesten dugu. Zalantzak eta galderak planteatzera gatoz, ez ideia finkoak, are gutxiago dogmak. Eztabaida astindu nahi dugu: esanen ditugun hainbat esaldi gehiago dira probokazioak egia borobilak baino. Nahiago tentsioak eta eztabaidak, azken horietatik sortzen baitira ideia berriak. Zalantza asko ditugula aitortzen dugu, baina konfiantza gehiago ematen digu zalantzak, tokitik mugirarazteko gaitasunik ez duen ziurtasun tematiak baino.





Ezin dugu mendetan zehar erresistentzian ibili den herri mitikoa soilik irudikatu. Lehenik eta behin, ez garelako izan hori bakarrik, eta, batez ere, ez dugulako hori bakarrik izan nahi!

ABIAPUNTUAREN ETA HELMUGAREN ARTEKO TENTSIOA. ESNA GAITEZEN!

Abiapuntua argia da: nazio pultsua ahultzen ari da. Hori horrela bada, gure ustez, krisi horrek aukera bat ireki beharko liguke: agian nazioa ez da ereserki bat (soilik), ez dira bi ikur (bakarrik), ez da ezinbestean sentimendu bakarra, ez da historia edo istorio bat, ezta lurralde zati soil bat. Hori guztiak eta hori baino gehiago da. Irudi bat da, aurrera begirako iruditeria bat. Arantza Santestebanek horrela problematizatzen du:

“Bizitzatik bertatik sortu daitezke irudiak (...) sentsibilitate jakin bat... Ezin gara bakarrik izan irudi mobilizatzaileak sortzen dituzten subjektuak, beste zerbait behar dugu irudiak sortzeko. Guri ez digute eragiten beti ukabilen eta tirabikeen eta mobilizazioen, akzioen, irudiek. Gure afektuak mobilizatzen ditu beste irudi mota batzuk, askotan bizitzarekin zerikusia dutenak, ongi identifikatzen ez ditugun irudiak baina gure gorputzetik pasatzen direnak, gure sentsibilitatetik, gure egunerokotasunetik”.

Santestebanek afektuak mobilizatzeko auzian jartzen zuen itua. Horiek dira egin beharreko galderak: zein irudi sortu nahi ditugu? Zein abesti kantatu? Zein sentimendu birsortu? Noski, behar dugu

ereserkia, behar ditugu ikurrak, behar ditugu irudiak: baina ez hori bakarrik.

Nazioa ideia mitikoa izan da, balio nazionalak garraiatu eta sentimendu kolektibo birsortzeko sortu dira mito nazionalak. Eta guk galdetzen dugu: mito berberak elikatzen jarraitu nahi ote dugu? Gaur artekoak ba ote dute gaur egungo kolektiboak, indibiduoak, identitate anitzak mugitzeko anbizio eta gaitasunik? Izan ginena eta gaur garena ezin baitira berdinak izan. Alegia, mitoaren betierekotasunean ez dugu helmuga komunik topatuko. Izan ere, ezin dugu mendetan zehar erresistentzian ibili den herri mitikoa soilik irudikatu. Lehenik eta behin, ez garelako izan hori bakarrik, eta, batez ere, ez dugulako hori bakarrik izan nahi! Ezin diogu, hortaz, ideia horri zentroa eskaini, eraikuntza ikuspegi batetik agorpen zantzuak erakusten baititu. Iraganak ekarri gaitu honaino, eta eskerrak! Gaur garenaren oinarriak jarri ditu: hura gabe ez ginateke apenas ezer. Baina ez dugu zahar/berri, iragan/orainaldi gisako dikotomietan sinesten: ez gaitzala batak jan, besteari bere bidea egiten uzten ez dion bitartean.

ABERTZALETASUNAREN ULERKERA ZIKLO HISTORIKO HONETAN

Abertzaletasuna ezin dugu ideia bakarrarekin lotu: eraikuntzan dagoen ideia bezala ulertzea interesgarriagoa iruditzen zaigu. Sortzen eta birsortzen den zerbait da. Ez delako berdina sortzen den zerbait edo dagoeneko definitua eta sortua dagoena. Ez da berdina bestelako subjektu batzuk “erakartzea” (zenbat aldiz esan dugu “X talde edo kolektibo jakin bat erakarri behar dugu”) edo subjektu horien posizioa abertzaletasunean sortzea. Logika desberdina da, erabat. Guk ez dugu esentziarik gorde nahi: oinarriak hartu eta zabaldu baizik.

Izan ere, nazioaz hitz egiteak soilik ez ditu abertzaleak sortzen. Gatazkek, tentsioek eta egoerek dekantatzen dituzte posizioak: alegia, ez da berdina Aberri Eguneako ekitaldietan Ikusi mendizaleak kantatzea edo uztailearen 7an, Iruñeko prozesioan, protestarako ikur den Kuria kalean kanta berbera kantatzea, edo Errigoraren kalejiran egitea, Tuteran. Ekintza berdinak esanahi eta efektu arras desberdina izan dezake gure herri luze zabaleko txoko desberdinetan.

Nazioaren ideia akaso ahuldu da, baina ahultze horren zergatian ez gaude ados. Izan ere, abertzaletasuna askatu behar dela uste dugu. Orain arteko subjektu unibertsalak abertzaletasunaren erreprodukzio konkretuan kokatu gaitu, abertzalea bera, gizona, zuria, heterosexuala...



izan baita, hots, abertzale puruaren figura gizonek errepresentatu dute, edo bestela esanda, osotasun hori ez dugu emakumeek gorpuztu. Orain arteko subjektu buruaski eta burujabearen ideia ezin da mantendu, ezta indartu ere, hortaz, errealitatean hori ez delako existitzen. Subjektu burujabe berrietarantz joan behar gara, interdependentziaz, komunean sortu eta asmatzen baikara; bakarka eta singularrean munduratu baino, komunean eta pluralean irakurtzen diren subjektuak behar ditu herriak.

**Guk ez dugu
esentziarik gorde nahi:
oinarriak hartu eta
zabaldu baizik.**

**Abertzale puruaren
figura gizonek
errepresentatu dute,
edo bestela esanda,
osotasun hori ez dugu
emakumeek gorpuztu.**

Komunean garenez, elkarrekikotasunaren ideia garatu eta mantendu behar dugu denboran. Dialektikoa eta askotarikoa izanzen da prozesua. Egiaz, ez dugu herri bat eraikiko ez bada tentsio berrietatik, guztiok kabitzeke moduko joko zelaian emango den uneoroko disputatik. Hegemonia disputatzea ez baita gehiengoak inposatu eta betiketzea, logika komunak iraunarazteko moduko joko zelaiak (ber) eraiki eta (ber)asmatzea baizik, uneoroko gatazka ideologiko eta zalantzak kontuan hartuz eta eraldatuz joanen dena. Izan ere, normalitate berri baterantz bagoaz, orain arteko gorpuzte eta normak ere disputan dihardute: norma berriak ezartzeaz ari gara, hortaz, zabalagoak eta pluralagoak izango direnak. Bazter utzi direnen zentralitateaz ari gara, horrek ondotik dakarren gatazka eta ondorio guztiarekin.

**Norma berriak ezartzeaz ari gara,
hortaz, zabalagoak eta pluralagoak
izango direnak.**

Noiztik eta zergatik da ezinbestekoa natalitatearen hazkundera? Beharbada, hara iritsi aurretik zaintza sistema publikoaz aritu behar gara, baita familia ereduaz ere.

MUNDU ZAHARRA HIL DENEKOA

XX. mendeko betaurrekoak erabiltzen ditugu XXI. mendeko gertakariak irakurtzeko, bueltatuko ez den mundu bat desagertzen ari denaren kezka. Nazioa gertaera eta auzi politikoek artikulatzen dute, komunitatean gertatzen denak zuzeneko zerikusia du nazioaren ideiarekin sorkuntzan. Kontua da, “nazioaren” uneoroko asmakizun eta interpretazioan, nork eta zerk eskuratzen duen erdigunea.

Frantziar Estatuan, adibidez, gehiengo pilula antikonzeptiboan aurka zegoen garaian, jaiotza-tasa ziplo erori zen. Ezinbestean, nahi ez ziren haurren jaiotza ezeztatu baitzen antisorgailuei esker. Gertaera horretan bi auzi antzeman daitezke: emakumeak bere gorputzaren gaineko erabakimena eskuratzea edo datuak adierazten zuten jaiotza-tasaren jaitsiera gertakari katastrofiko modura irakurtzea. Bat aukeratu behar da.

Euskal Herrian, momentu honetan, auzi nazional eta politikoa da demografiaren eraldaketa (batzuentzat arrazoia jaiotza tasaren jaitsiera da), baina erantzuna ezin da izan erredukzionista: noiztik eta zergatik da ezinbestekoa natalitatearen hazkundera? Beharbada, hara iritsi aurretik (eta ondoren agian ere ez) zaintza sistema publikoaz aritu behar gara, baita familia ereduaz ere. Beraz, zergatik ez diogu buelta ematen baieztapenari? Emakumeok ere sortu eta asmatzen dugu,

Zailagoa izanagatik ere, denonagoak izango diren eskaintza kolektiboak eraiki behar dira, dena delakoa izanik norbera eraikuntza horretan murgiltzera eramane duen arrazoi politikoa.

Betikoa egiteak ez baititu emaitza diferenteak ekarriko. Betikoan pentsatzea frustrazioa izan daiteke, ez beste ezer.

egunero, nazioa. Jaiotza-tasaz katastrofe bezala nork, nola eta zergatik hitz egiten du? Zertan oinarrituta? Ondorioak zeintzuk lirateke? Auzi nazionala gatazkak izango dira gure gorputzak zeharkatzen dituen edozer gai, baina erantzunak ezin dira betiko gorputzetatik eskaini, ez eta betiko norma erreproduzitu. Ematen diren erantzunak normalitate berri hori irudikatu eta asmatzeko balio behar dute.

Bestalde, politizazio prozesuak ez dira gaur duela hamar, hogeita hamar, berrogei urte bezala ematen. Onartzea ez da kezkatzea, ez eta kexatzea. Onartzea da bide berrietan saiatzea. Onartzea da jakitea orain askoz zailagoa dela, akaso, nazio gatazkaren orain arteko ulkerak hori borrokarako akuilu izatea. Onartzea da krisi ekologikoak kezkatuta borrokatzen duen norbaitek sinesgarria izango den eskaintza emantzipatzaile nazional eta sozial bat ikusi behar duela gure proiektuan islatua sentitzeko. Zailagoa izanagatik ere, denonagoak izango diren

eskaintza kolektiboak eraiki behar dira, dena delakoa izanik norbera eraikuntza horretan murgiltzera eramane duen arrazoi politikoa.

Praktika gehiago eta hitz gutxiago behar ditugu auzi honetan. Epika gehiago lotzen da egunerokoan ditugun lanekin, proiektuekin, e(ra) giteko zerbaitekin eta kolektiboan lan egitearekin. Epika ere (er)aldatuko da. Agian, epika bera nahi eta nahi ez gure inguruan eman diren eraldaketek beste zentzu bat ematea izanen da gure lan eta helburua datozen denboretan. Betikoa egiteak ez baititu emaitza diferenteak ekarriko. Betikoan pentsatzea frustrazioa izan daiteke, ez beste ezer. Gauzak bere horretan mantendu, eta horretan tematuta ere, gauzek ez dute hartuko ezagutzen genuen forma. Ezagutzen genuena jada ez delako bueltatuko, eta agian nostalgia edo oroimen kolektibo baten parte izango da: ez gehiago, ez gutxiago. Tresna bat, baina ez bakarria. Beharbada, ez zentrala.



AURRERA BEGIRA, ZER? BURUJABETZA

Asko hitz egiten dugu mundua asko aldatzen ari dela eta gehiago aldatuko dela, eta egia da, baina obsesio pandemiko-postpandemikoak basoa ikustea zailtzen digula sinetsita gaude. Apokalipsi gutxiago eta alternatiba gehiago behar ditugu, distopiez nazkatu gara. Mundua asko aldatzen ari da, bai, baina asko aldatzen ari zen dagoeneko. Kontua da oraingo azkartzeari ezin izan diogula beste alde batera begiratu, eta dagoeneko ez dugu beste alde batera begiratzeko denborarik. Ezagutzen ez dugun mundu bat ate-joka dugu. Hala ere, etsipenean eta distopien fantasietan erortzea baino, interesgarriagoa iruditzen zaigu ezkerrek beste paper bat hartzea, apokaliptikoa izango ez dena: «borrokak merezi du, kolektiboki lan egiteak merezi du, sakrifizio gutxiago eta alaitasun gehiago behar ditugu». Ez dugu paradisuari sinesten: sufrimenduak, dramak, ez gaitu libreago eginen.



Eta azkartze honen erdian, askori burutik pasa zaion galdera da honakoa: nola iraunen du Euskal Herriak mundu berri horretan? Iruditzen zaigu burujabetzaren ideia nahikoa zabala, zehatza eta orokorra dela guztiontzako bide komuna izan dadin. Berdin da abertzalea kontsumo eredu honekin amaitu behar dugula uste duena, lurra zaintzen duena, kooperatiban buru-belarri dabilena burujabetza desberdinen alde; berdin da abertzalea heterosexualitatea

-Espainia bezala- fikzio politikoa dela uste duen bollera; abertzalea da fabrikari greba mugagabeen dagoen hori, etxetik alde egiteko aukerarik ez duen gaztea; abertzalea da arrazismoaren kontrako militantea, Europa hilerri handi bat izatearen aurka dagoena, harrera herriaren alde lanean diharduen kidea; abertzalea da zaintza sistema publiko eta komunitario baten alde, sistema goitik behera irauli nahi duen hori; haurrak D ereduan matrikulatzen dituen erdalduna; edo duela gutxi Euskal Herria zapaldu, eta hemen bizitza duina egin nahi duen hori. Abertzaleak dira horiek guztiak, egitasmo konpartitu baten parte izan daitezkeelako. Potentzialki, horiek guztiek zalantzan jartzen ahal dutelako statu quo.

Hortik aurrera, nola eraiki kolektibitate hori? Ez dakigu. Inork ez daki. Badakiguna da lekua zabaldu behar dugula: Euskal Herria beste modu batera imajinatzen, berreraikitzen eta ertzak hartzen arriskatu eta ausartu. Beste zentralitate batzuk disputatzeko proba egin. Beldurrik gabe. Abertzaletasuna izanen da horren guztiaren erdigune? Bai eta ez. Izan ere, abertzaletasunak badu bereizgarria den plastizitate bat, bada tresna eta helburua, aldi berean. Bada finitua ez den ideia, irudia eta praktika politikoa.

Funtsean, etengabeko (er) aldaketan imajinatu behar dugu, abertzaletasuna herri baten ezaugarrien menpe eraiki behar delako. Uneoroko aldaketan

sortu eta birsortzen den herria da gurea. Badakigu identitateak sortu, birsortu eta birdefinitu egiten direla: “pankartetako leloak bizkor aldatzen ahal badira ere, borroka segituko du” (Leslie Feinberg, 2021). Orain arteko abertzaletasunaren ideia ez bada aldatzen, hil egingen da: baina ez euskal Estatuaren proiektua, ez emantzipazio prozesua. Eta hiltzen bada ere, ernalduko dira besteak. Lekukoa esku batetik bestera dabil dagoeneko.

Apokalipsi gutxiago eta alternatiba gehiago behar ditugu, distopiez nazkatu gara.

Burujabetzaren ideia nahikoa zabala, zehatza eta orokorra da guztiontzako bide komuna izan dadin.

Abertzaletasunak badu bereizgarria den plastizitate bat, bada tresna eta helburua, aldi berean. Bada finitua ez den ideia, irudia eta praktika politikoa.

Etxebizitza krisiari buru eginez

2021eko Azaroaren 20a. Zortzi mila pertsona bildu dira Baionan, “Herrian lan eta bizi, espekulazioari ez” lelopean antolaturiko mobilizazioan. 32 eragilek bat egin dute etxebizitza eskubidearen aldeko herri ekimen honekin: gehiengo sindikala, ezkerreko alderdiak, herri mugimenduko eragileak edo etxebizitzaren arloan esku hartzen duten elkarteak egon dira pankarta beraren gibelean.



Aitor Servier Etxexuri
Sortuko kidea

Argazkiak: FOKU



ARAZOAREN ITURBURUAK

Ipar Euskal Herrian bizi dugun etxebizitza krisiaren arrazoiak ez dira atzo goizekoak. Lehendik zetorren Miarritze eta beste zenbait kostaldeko hiriren “erakarpen efektuz” oharturik, 1967tik goiti, Frantziako Gobernuak, MIACA, Akitaniako Kostaldearen berrantolaketa planaren baitan obratu zuen Ipar Euskal Herriko kostaldearen turistifikazio progresiboa. Azken batean, Paristik hartu zuten hiru herrialdeetako ekonomiaren zati handi bat lehen sektorera bideratzeko erabakia. Ezaguna dugu ondoren etorri zena: garapen industrial eza eta arrantza nahiz laborantzaren gainbehera.

Ondorengo hamarkadetan, turismoaren uhinaren gainean surf egin zuten promotoreek, etxebizitza agentziek eta zerbitzuetan inbertitzeari ekin ziotenek. Nolabaiteko dikea osatu arren, herri-borroka ekintzak ez ziren aski izan prozesu honi galga jartzeko. Hala ere, mugimendu ezkertiar eta abertzalearen zenbait proposamen politiko aplikatzen hasi ziren hainbat herriko etxe: bigarren etxebizitzaren gaineko zerga, kasurako.

Frantziako Gobernuak, MIACA, Akitaniako Kostaldearen berrantolaketa planaren baitan obratu zuen Ipar Euskal Herriko kostaldearen turistifikazio progresiboa.

Mugimendu ezkertiar eta abertzalearen zenbait proposamen politiko aplikatzen hasi ziren hainbat herriko etxe: bigarren etxebizitzaren gaineko zerga, kasurako.



Lapurdin langabezia tasa oso apala bada ere, bertan lan egiten dutenen hilabete sariak biziki urrun daude aipaturiko erosle berrien batz besteko soldatetik.

Hilabete gutxitan %20 eta %50aren artekoa izan da salgai jarritako etxebizitzaren prezioaren igoera zenbait kasutan eta etxebizitza turistikoen hedapenak abiadura hartu du.

PANDEMIA ETA ETXEBIZITZA

Gatozen pandemiaren garaiotara. Konfinamenduak klase ertain-altuko jende ugari bizi espektatibak aldatu zituen. 2020ko udaberrirako, telelana demokratizatzen hasi

zen heinean, Paris, Bordele edo beste hainbat metropolia utzi eta Lapurdiko kostaldetik lan egin ahal izatearen perspektiba ireki zitzairen bertan etxebizitza bat eskuratzeko ahalmen ekonomia zuten hainbati. Lapurdin langabezia tasa oso apala bada ere, bertan lan egiten dutenen hilabete sariak biziki urrun daude aipaturiko erosle berrien batz besteko soldatetik.

Merkatuaren legeari jarraiki eta egoerari etekina atera diotenen erruz, espero zitekeen eskariaren hazkundeak, eskaintzaren garestitzea ekarri du. Turista eta biztanle berriak Ipar Euskal Herria erakartzeko iragarki kanpaina publiko nahiz pribatuak biderkatzearekin batera, hilabete gutxitan %20 eta %50aren artekoa izan da salgai jarritako etxebizitzaren prezioaren igoera zenbait kasutan eta etxebizitza turistikoen hedapenak abiadura hartu du.

Gero-eta jendarte sektore zabalagoen ezinegona egoki irakurriz, EH Baik udazkenerako mobilizazio bat antolatzeko deia egin zuen 2021eko apirilean, Euskal Elkargoaren etxebizitza plana salatzen zuen egun berean. Orduetik, gazteriak kolektibo gisa are prekarioago egiten duen problematika salatu du gazte mugimenduak ere. Aldak berriz, Airbnb eta bestelako plataformek eragindako bidegabekeriaren aurka antolatu ditu herritarrak.

Gazteriak kolektibo gisa are prekarioago egiten duen problematika salatu du gazte mugimenduak ere. Aldak berriz, Airbnb eta bestelako plataformek eragindako bidegabekeriaren aurka antolatu ditu herritarrak.



Etxebizitzen %21a bigarren etxebizitza den lurralde honetan, ezinbestekoa da lurren kontrol publikorako politikak garatu eta existitzen den etxebizitza parkea banatzea.

EH Baik, bere aldetik, egoiliar estatusaren eztabaida mahai-gaineratzeko asmoa agertu du.

LURRALDEAREN ANTOLAKETA ETA HERRI EREDUA AUZITAN

Proposamen politikoa argiaren inguruan gorpuztu da azaroaren 20ko mobilizaziorako herri-dinamika. Funtsean, etxebizitzaren krisiari buru egiteko irtenbideak egon badaudela plazaratu dute antolatzaileek. Lurren eta etxebizitzaren merkatuaren erregularizazioa posible egite aldera, Ipar Euskal Herria esperimendatzat onartzeko eskaria egiten zaio Parisi, instituzioek merkaturatu arautzeko eta espekulazioa eteteko klausulak plantan

ezartzeko bitarteko legalak eskuratu ditzaten. Etxebizitzen %21a bigarren etxebizitza den lurralde honetan, gehiago eraikitzeko politiken ifrentzuan, ezinbestekoa da lurren kontrol publikorako politikak garatu eta existitzen den etxebizitza parkea banatzea. Gaur egungo eraikuntzak etxebizitza sozial bilakatzeko programen behar gorria dute lurralde honetako sektore zaugarrienenek. Larrialdi klimatikoari erantzuteko, premia neurriak dira bizitegi hutsen zaharberritze ekologikoa zein hiri zentroen trinkotzea.

EH Baik, bere aldetik, egoiliar estatusaren eztabaida mahai-gaineratzeko asmoa agertu du. Frantses Estatuaren menpeko Korsika edo Britainiako lurraldeetan aztergai duten neurria da honako hau, lurralde jakin batean etxebizitza edo lur bat erosi ahal izateko eroslea aitzinetik bertan urte kopuru jakin batean bizitzera behartuko lukeena. Gaur-gaurkoz, Korsikako lurralde kolektibitateak uhartearentzako egindako egoiliar estatusaren proposamena legez kanpokotzat jo du Frantziako justiziak.

Etxebizitzatik hasita, lurraldearen antolaketarako erronkak agertzen zaizkigu begi bistan. Izan ere, Baiona-Angelu-Miarritzeko hirigunean kontzentratzen den jarduera ekonomikoari eusten dioten langileak haien lantokitik ordubetera bizi dira kasu anitzetan; etxebizitzaren merkatuak Behe-Nafarroan bizitzera beharturik. Garraio publiko hain urria izanik, ikuspegi ekologikotik jasanezina den den mugimendu pendularren fenomeno bizi du Ipar Euskal Herriak. Aipamen berezia merezi du, hiru hilabetez luzatu den Arbonako Berrueta lursaileko ELB eta Lurzaindiaren okupazioak. Ipar Euskal Herriko laborarien sindikatuek eta laborantza lurra erosteko herritarren funtsak Miarritzetik 10 minutu eskasera kokatu zuten espekulazioaren aurkako lubakia. Azkenean, hiru hektareako laborantza lurra eta etxalde bat hiru milioi euroko prezioan saldu ahal izatea oztopatuz, nolabaiteko garaipena erdietsi du herritar andanak zein hautetsien gehiengo batek babesturiko ekimenak. “Eraiki orde, jatea hobe” zioen okupazioan jarritako pankarta batek; elikadura burujabetzaren bidea jartzen gaituen laborantza herrikoia balioetsiz.

Pertsona ororen oinarrizko beharrezana den etxebizitza eskubidea egikartzeko dinamika honek, gehiengoak artikulatzeko ageriko potentziala du. Herritarren suminarekin konektatu, neurri konkretuak proposatu eta Ipar Euskal Herrian modu duinean lan

Baiona-Angelu-Miarritzeko hirigunean kontzentratzen den jarduera ekonomikoari eusten dioten langileak haien lantokitik ordubetera bizi dira kasu anitzetan.

“Eraiki orde, jatea hobe” zioen okupazioan jarritako pankarta batek; elikadura burujabetzaren bidea jartzen gaituen laborantza herrikoia balioetsiz.

egin eta bizitzea helburu desiragarri eta lorgarritzat proiektatzea dagokigu heldu diren hilabete eta urteotan. Etxebizitza eskubidearen aldeko borrokan lidergo ukaezina duen mugimendu ezkertiar eta abertzaleak orain dauka burujabetzaren zein eraldaketa sozialaren aldeko subjektibitate berriak sortzeko parada.



Jende txikia gauza handiak egiten

Lehenago ere pasatzen ziren, pasako ziren, baina jende asko 2018ko uztailea amaieran jabetu zen geuk arazorik gabe gurutzatzen genuen Bidasoaren gaineko zubi hura oztopo handi bat zela jaioterria utzi eta bizitza hobe baten bila Euskal Herria gurutzatzen zuten paperik gabeko afrikarrentzat.

Egun batetik bestera dozena bat lagun azaldu zen Irunen; muga pasatzen saiatu eta poliziak gerarazi ondoren, atzera egin eta non garbitu, non jan eta non lo egin ez

zutenak. Lagun haiei babesa eskaintzeko jende multzo bat mugitzen hasi zen herrian, eta hasierako desorganizazio hura, nolabait, organizatu ondoren Irungo Harrera Sarea sortu zuten udara hartan.


Sareak ez du etenik izan azken hiru urte eta erdian eta milaka lagun artatu dute bertako kideek. 2021ean bakarrik 6.000 lagunetik gora izan du bideari jarraitzeko aukera Irungo Harrera Sareak emandako laguntza eta informazioari esker.



Argazkiak eta testua: Gari Garaialde. *Bo5tok Photo*

















“Orain indarberritu eta
berpizteko aukera dugu,
ez gara une beltz honetan
blokeatuta gelditu
behar”



Maialen Arteaga Gonzalez
Ernaiko militantea

Argazkiak: FOKU



Ibone Alonso Sagarna [2000, Donostia] Lehen Hezkuntzako ikaslea da, eta langilea ere bai. Donostiako alde zaharrekoa da, eta bertako neska* gazte taldean militatzen du, Intzirin. No Future garaiko belaunaldikoa izatea egokitu zaio, bere gurasoak baino kaskarrago biziko den belaunaldia, gartzetasuna pandemian bizi duen belaunaldia, eta prekarietatean normalizazioan bizi den belaunaldia, alegia. Guzti horri emakume gisa sozializatua izatea ere gehitu behar zaio, eta beraz, sistemaren aurpegi berriei aurre egiteko moldeak aurkitzen dihardu. Urrian Euskal Herriko 600* neska gazte bildu ziren Elizondon, neska eta gazte bezala egoera nola irauli asmatzeko.

No future belaunaldia omen zarete. Zein da belaunaldi hori? Etorkizun ezaren zein zantzu daude zure orainean hori horrela izango dela determinatzeko?

Askotan entzun dugu etorkizunik gabeko belaunaldia garela, eta bai, izan daiteke, edo hala sinestarazi nahi izan digute, baina beste alde batetik uste dugu etorkizuna gure esku dagoela. Hau da, ezerezean edo besoak gurutzatuta gelditzen

bagara sistema kapitalista cis-heteropatriarkalak gure etorkizuna erabakiko du Covid-19aren etapa gordinen bezalaxe. Baina esango nuke horiek ez direla gure belaunaldiaren ezaugarri bakarrak. Adibidez, azken urteetan ikusi da mugimendu feministak olatu berria dakarrela. Hori gure saretze gaitasunaren adierazlea da. Argi dago, ez direla garai errazak gure indarrak batu eta antolatzeko

baina nahi eta grin hori gure belaunaldiaren eta batez ere neska gazteon ezaugarrietako bat dela esango nuke. Ikusi besterik ez dago etorkizun ezaren aurrean Elizondon eman eta sortu genuena.

Etorkizuna, etorkizuna da, ez dakigu zer gertatuko den baina guk gure horretan eta gure borrokan jarraituko dugu inork ez dezan gure etorkizuna erabaki.

“Etorkizuna, etorkizuna da, ez dakigu zer gertatuko den baina gure gure horretan eta gure borrokan jarraituko dugu inork ez dezan gure etorkizunaz erabaki.”

“Harremantzeko esparruan, hau da, antolatzeko garaian izugarritzko trabak izan ditugu azken hilabeteetan baina hori ez da nahikoa izan, gure gure jardunean jarraitzeko gakoak berrasmatu ditugulako.”

“Gure etorkizuna Euskal Herria feminista eta burujabe bat eraikitzea da, belaunaldi berri honek behar dituen ezaugarriak barnebilduko dituen herri askea eraikiz.”

Eta belaunaldi horretako nesken kasuan, zeintzuk dira gehitzen zaizkizuen ezaugarri edo bereizgarri horiek?

Covid 19ak krisi anizkoitz baten aurrean utzi gaitu eta horrek zuzeneko eraginak izango ditu guregan, areagotu egin baitu jasaten dugun biolentzia estruktural hau. Harremantzeko esparruan, hau da, antolatzeko



garaian izugarritzko trabak izan ditugu azken hilabeteetan baina hori ez da nahikoa izan, gure gure jardunean jarraitzeko gakoak berrasmatu ditugulako. Hori izan daiteke neska* belaunaldi horren ezaugarri bereizgarrienetako bat, saretzeko eta borroka molde berriak sortzeko gaitasuna. Argi dago alderdi batzuetan asmatu dugula eta mahai gainean jo dugula, baina beste askotan, lan esparruan edo hezkuntzan oraindik gure jardunean lan handia dugula aitortu behar dugu, urratsak urrats aurrera jarraitu ahal izateko.

Hau da, krisi horrek neska* eta gazte garenok bete betean harrapatu gaitu, gure lana eta etorkizuna balantzan jarriz. Argi dugu etorkizun beltza dugula, baina oraina ere beltza da. Ikasketa arloan, esaterako, geroz eta pribatizatuagoa dagoen hezkuntza sistema baten aurrean gaude, non ikasleak kriminalizatzea eta epaitzea den helburu bakarra, bizitzak erdigunean jartzearen ideia alde batera utziz. Hori horrela, gure etorkizuna Euskal Herria feminista eta burujabea eraikitzea da, belaunaldi berri honek behar dituen ezaugarriak

“Mundua gelditu zen, baina guk ordu berdinak edo gehiago sartu behar izan ditugu soldata berdina edo gutxiagoren truke.”

barnebilduko dituen herri askea eraikiz.

Ibone, zer da zuretzat etorkizuna?

Etorkizuna zer den definitzea konplexua egiten zait, izan ere, etorkizuna norberak bere barnean eraikitzen duen ametsa edo nahia da. Hau da, norberak bere etorkizuna amestu dezake baina ondoren ez daki zer izango duen aurrean. Etorkizuna utopia bat dela esan dezaket, beti dugulako ikusmiran baina inoiz ezingo dugulako ukitu. Etorkizuna beti joango delako gure nahi eta ekintzen aurretik. Utopikoa da bai, baina irudikatzea eta planifikatzea ezinbestekoa dugu, finean antolatzea eta epe luzera begirako helburu estrategikoak garatzen joatea ahalbidetzen digulako.

“Etorkizuna utopia bat dela esan dezaket, beti dugulako ikusmiran baina inoiz ezingo dugulako ukitu.”

“Krisi anizkoitz honek gure bizitza frenetikoa azkartu egin du eta ez dugu ia gelditzeko eta pentsatzeko unerik, berez beharrezkoa dugu horretarako tarte bat hartzea.”

Garai hauetan planifikazioa ezinbestekoa dela ikusten dut, bai orokorrean zein bizitza pertsonalean. Izan ere, krisi anizkoitz honek gure bizitza frenetikoa azkartu egin du eta ez dugu ia gelditzeko eta pentsatzeko unerik, berez beharrezkoa dugu horretarako tarte bat hartzea. Kolektiboki zein pertsonalki zein etorkizun nahi dugun diseinatu ahal izateko. Argi dago, diseinu hori aldakorra izango dela, jendeak beldurra izango duelako batzeko, arazoak izango ditugula kolektibo bezala ekintzak gauzatzeko...erronka horiei eutsi beharko diegu. Baina beste alde batetik uste dut belaunaldi berriok amorrua antolatzeke beharra dugula, eta hori neska* eta gazte garen horretatik kolektibizatzeke gaitasuna izan behar dugu, gure olatua indartu ahal izateke.

Etorkizunak larritzen zaitu? Zein arlok zehazki?

Gehien larritzen nauen esparrua hezkuntzarena da. Beti gabiltza hezkuntza sistemaren inguruan eztabaidatzen eta gako berriak asmatzen; benetan gure etorkizuna hezkuntzan dago. Gaitasun eta indar berri horiek garai horretan hazten dira eta Unibertsitate etapan loratzen dira, beraz horretan jarri behar ditugu indarrak benetako hezkuntza feminista eta burujabea eraikitzeke. Zeren, gure ondorengo etorkizuna zaintzen ez baldin badugu, gure herriaren etorkizuna jokoan dago.

Zein faktorek eragiten dute zure etorkizunaren duintasunean?

Gure etorkizunaren duintasuna harremanek sortzen dute. Argi geratu da harreman sozialak eta bizitza soziala gaur egungo sostengu direla. Hilabete askotan gure harremanak, etxekoenetara mugatu behar izan dugu. Askok eta askok etxekoekiko harremana berrartu eta berriz ere lotura hori sendotu dugu, baina beste askok etxekoekin edo inguru gertuenarekin egoera zailak bizi behar izan dituzte, horrek euren etorkizunaren duintasuna balantzan jarriz. Harremanak helduleku izan dira. Nire kasuan laguntasuna izan da helduleku nagusia, bai etxean geundenean, eta baita kanpoan ere.

“Kalera atera ginen egunean ohartu nintzen zenbaterainoko garrantzia duen bizitza sozialak eta bereziki gaztaroan, gure bizitza harreman sozialen inguruan eraikitzen delako.”

Kalera atera ginen egunean ohartu nintzen zenbaterainoko garrantzia duen bizitza sozialak eta bereziki gaztaroan, gure bizitza harreman sozialen inguruan eraikitzen

delako: aisialdian, lagun taldeetan... Horrek aldi berean, duintasunaren kontzientzia dakar. Erakutsi digu zenbaterako garrantzia duen norberaren duintasun sozial hori zaintzeak, eta inguruko duintasunean gehitzeak.

Orokorrean, lan baldintzek okerrera egin dute pandemian, baina emakumeak sektorerik kolpatuenetako bat izan zarete gazte eta etorkinekin batera. Lan-ikasketa esparruan, non nabaritzen da gazte eta genero zapalkuntza?

Argi dago gure duintasuna lan baldintzen menpe ere badagoela. Hauek okerrera egin dute eta zer esan neska* eta gazte garenoi. Askok eta askok pandemia baino lehen beltzean kobratzen genuen: haurrak zaintzen, klase partikularrak ematen... Pandemia garaian batzuk etxeetatik lan prekarioak egiten jarraitzen genuen, klaseak bideodeiez adibidez. Ez da batere duina, baina hori zen gure sostengu bakarra. Behin larrialdi egoera bukatuta, lan baldintza horiek okerrera egiten jarraitu dute, eta berdina esan

dezakegu ikasketen inguruan. Mundua gelditu zen, baina guk ordu berdinak edo gehiago sartu behar izan ditugu soldata berdina edo gutxiagoren truke. Askok bezala, nik nire ikasketak aurrera eramaten ditudan bitartean, lanean nago, baina hezkuntza sistema planteatuta dagoen moduan ordu gutxiko lanetan aritu behar du. Honek nahiz eta diru apur bat eman, zure gastuak ordaintzeko eta emantzipaziorako aukera ezinezko bilakatzen du; eta gurasoen etxean bizitzera kondenatzen zaitu. Askok lan



baldintza horiek onartzen ditugu, gure etorkizuna eraikitze horretan lan baldintza prekario horiek onartzea besterik ez baitugu.

Suizidio tasak eta depresioak nabarmenki egin du gora. Zein lotura du horrek gazteok dituzuen lan baldintzekin eta etorkizun ezarekin?

Dena dago lotua. Gure bizi baldintzak eta neska* gazteongan jartzen diren espektatibak zuzen zuzenean eragiten dute gure osasun mentalean. Hamaika dira

jasotzen ditugun biolentzia estrukturalak eta pandemiak hauek guztiak indartu ditu, espaziorik gabe geratu gara (gurasoen etxearen menpe), baldintza ekonomikorik gabe (neska* gazte askok beltzean kobratzen genuenez - klase partikularrak, umeen zaintza, taberna- ez dugu inolako diru sarrerarik izan edota kaleratu gaituzte), emantzipaziorako aukera gutxi bagenituen pandemia aurretik, orain askoz gutxiago... honen guztiaren ondorioz esan dezakegu genuen botere apurra kendu egin digutela eta guztiz menpeko bihurtu garel.

Baina ezin gara kexatu. Zeinen kontra, zergatik? Askotan guk ere ez dugu ulertzen, bizitzeko baliabide oinarrizkoenak baditugu baina ez dugu erabakitze aukerarik, menpekoak gara. Gure gain inposatutako espektatibak jartzen dituzte (zintzoak izan behar gara, jendea zaindu behar dugu...) eta ez dugu ahaztu behar helburu gorena: etorkizunerako prestatu behar garel. Baina zein etorkizun? Gaztaroa trantsiziozko etapa gisa saldu digute. Gure etorkizuna familia eredu hetero normatibo bat, etxe bat eta soldata bat izateko prestatzeko tartea. Baina nork galdetzen digu guri orain zerk egiten gaituen zoriontsu eta zer egin nahi dugun?

Esaten diguten gure bizi proiektu perfektu horren bila gabiltza eta horrek ikaragarriko frustrazioak sortzen dizkigu. Dena egin behar dugu gizartean esleitu dagoen moduan eta esleitu dagoen denboretan. Zurrumbilo batean sartuak geunden eta bat-batean dena gelditu da. Baina guk aurrera egin behar genuen, denbora

aprobetxatu behar genuen, esleitu diguten moduan ikasketekin aurreratzeko, gure gorputzak “perfektuak” bilakatzeko, bikote bat bilatzeko...

“Genuen botere apurra kendu egin digute eta guztiz menpeko bihurtu gara.”

“Sare sozialen kontsumoa ikaragarri igo da, eta etengabe gure bizitza perfektu/errromantiko hori proiektatzen saiatzen gara.”

Hau dena gure osasun mentalean (estresean, beldurrean, erruan) erreparatu gabe eta elkar zaintzarako denborarik izan gabe. Hau guztia sistema cis-heteropatriarkal kapitalistaren ondorioa da, baina, pandemiak sorturiko zurrumbilo honek guztiak azeleratu eta aztoratu du, eta neska* gazteok bizi genuen egoera are eta okerragoa bihurtu du, hala nola, elikadura nahasmen kasuak ikaragarri igo dira, esaterako. Honetan sare sozialek ikaragarriko papela izan dute. Sare sozialen kontsumoa ikaragarri igo da, eta etengabe gure bizitza perfektu/errromantiko hori proiektatzen saiatzen gara. Gure “akats” guztiak tapatzen 200.000 filtroekin... jatetxe eleganteenetako argazkiak ateratzen... argazkietan ahalik eta argalen agertzen...

Aurreko guztia kontuan



izanda nola ba ez du gora egingo suizidio tasak? Osasun metalaren kalteak bizi ditugun baldintza negargarri eta ezegonkorren ondorio dira, baldintza onek eta etorkizun duina izateak osasun mentala hobetzea dakarren arren behin behineko neurriak beharrezkoak dira. Osasungintza publikoak gai hau landu eta bitartekoak indartu behar ditu. Baina hau burutzeko ezinbestekoa da arazoaren muina aurkitzea, hau da, sistema cis-heteropatriarkal kapitalista erauztea.

“Osasun mentalaren kalteak bizi ditugun baldintza negargarri eta ezegonkorren ondorio dira.”

Harremanak ere jomugan izan dira. Baina ba al dago harremanik gabeko zaintzarik? Zer garrantzi dute harremanek neska* gazteen identitate edo izatearen eraikuntzan?

Harremantzea gure baitan dago, pertsona guztiak dugu harremantzeko beharra, gure funtsa da eta zer esanik ez neska* gazteen artean. Pandemiak harremantzea zaildu du, gure artean beldurra eta antsietatea sorraraziz, lagunak galtzeko beldurra baikenuen. Une beltz hau aukera moduan ikusi behar dugu gure artean sartzeko eta harremantzeko aukera ematen diguten espazioak aprobetxatuz eta modu horretan neska* gazteen identitatea eraikiz, espazio horietan elkar zaintza

dago oinarri, une honetan ezinbestekoa dena gaur egun faktore desberdinengatik okertu den osasun mentala lantzeko aukera ematen baitu.

“Une beltz hau aukera moduan ikusi behar dugu gure artean sartzeko eta harremantzeko aukera ematen diguten espazioak aprobetxatuz eta modu horretan neska* gazteen identitatea eraikiz.”

“Gazteok arduragabeak ginenaren diskurtsoa aurrez barneratuta zegoen, eta orain berau indartu dute, noizbehinka guk geuk ere sinisteraino.”

No future belaunaldiaz gain, erruaren belaunaldia ere izan zarete. Zer interes dago etorkizun eza gazteei egoztearen atzean?

Errudun bat aurkitu behar zen. Eta argi zegoen ezin ziotela errua bota beraiek elikatzen duten sistemari, ez eta instituzioek dituzten ezintasunei... Eta zein da ba errua botatzeko subjekturik errazena? Beno, ba beti bazterrekoak. Ahots gabekoak, eragiteko gaitasunik ez duten horiek... Bai gu, gazteok eta horren baitan neska* gazteok.

Gazteria ez dute subjektu bat bezala aitortzen, eta horrek erraztasunak ematen dizkie errua botatzeko orduan. Gazteok arduragabeak ginenaren diskurtsoa aurrez barneratuta

zegoen, eta orain berau indartu dute, noizbehinka guk geuk ere sinisteraino.

Sistemak behar du gazteok asimilazio prozesu bat izatea. Hau da, poliki-poliki asimilatzea eta onartzea datozen urteetan oso bizitza gogorra izango dugula. Eta ondorioz, bizitza honetan zoriontsu izan nahi baldin badugu, gure buruak prekarieztatu beharko ditugula, ondokoa zapaldu beharko dugula, baina, esfortzu handia egiten baldin badugu (menpekoak izan, egoera gogorak asumitu...) zoriontasuna lortu ahal izango dugula: familia bat eraiki ahal izango dugula eta etxe bat erosi.

Beraz, sistemarentzat garrantzitsua da menpekoak izatea, bai gure belaunaldia eta baita datorrena ere, eta gure amets indibidualak modu indibidualean irudikatzea sistema heteropatriarkalak eskaintzen dizkigun markoetan.

600 neska* gazte elkartu zineten Elizondon, Baterajotzean, krisi anizkoitzari aurre egiteko giltzak aurkitzeko. Zeintzuk dira atera dituzuen ideia nagusiak? Nora eta nondik jo behar da aurrean dugun horri aurre egiteko?

Oinarrizko gakoekin atera ginen krisi anizkoitz honi erantzuteko eta neska* gazte subjektua berrezaugarritu genuen. Salto kuantitatiboa emateaz gain, salto kualitatibo bat ere eman genuen gure burua neska* gaztea subjektu bezala izendatuz eta borroka molde berriak berreraikiz. Beraz, inflexio puntu bat izan da baterajotzea.

Baterajotzeak mundu mailako pandemia baten erdian harrapatu gaitu eta mugimendu feminista duela urte askotatik esaten ari dena agerian utzi du: sistema sostengaitza dela eta bizitzak vs kapitala eztabaidan, kapitala jartzen dela bizitzaren aurretik zaintza eta bizitzak erdigunean jarri behar direnean.

Pandemiak dena indibidualizatzeraz eraman du eta sektore asko zapaldu ditu. Horietako bat gara neska* gazteak. Orain indarberritu eta berpizteko aukera dugu, ez gara une beltz honetan blokeatuta gelditu behar. Ditugun aukerak aprobetxatu behar ditugu eta palanka moduan erabili, zapalkuntzen aurrean indarberriturik altxatzeko. Asteburu horretan behin eta berriz esan genuen bezala “mugimenduan gaude eta lurrikara gara” eta mugimenduan jarraituko dugu.

Beraz etorkizun zail honen aurrean bi aukera ditugu: bata, neoliberalismo basatiak aurrera egiten jarraitzea, edo bestea, krisia palanka bezala erabili eta egoera iraultzea. Gure erabakia argi dago: erresistentzia egingo dugu eredia aldatzerantz.

No future belaunaldia, erruaren belaunaldia, aro teknologikoaren belaunaldia, feminismo berriaren belaunaldia. Zuk zer izen jarriko zenioke zure belaunaldiari? Eta zergatik?

Itzalek kontrolaturiko belaunaldia. Ez dugu gure kabuz erabakitze eskubiderik, ez dugu botererik, nahiz eta guk ez igarri gure kabuz erabakitzen dute (Itzalak). Ezkutaturiko kate batekin gaude lotuak.



“Etorkizun zail honen aurrean bi aukera ditugu: bata, neoliberalismo basatiak aurrera egiten jarraitzea, edo bestea, krisia palanka bezala erabili eta egoera iraultzea.”

No Future
belaunaldia

Etorkizunik gabeko belaunaldia etorkizunerako giltzarri



Maialen Arteaga Gonzalez
Ernaiko militantea

Argazkiak: FOKU




Belaunaldiak sailkatzeko joera dago, egin duten ekarpenaren arabera, bizi duten mugimenduaren arabera edo eta utzi duten mundu antolaketaren arabera. Z belaunaldia da izendatutako azkena, millennial belaunaldiaren ostean etorri dena. Era digitalean jaio dira, eta paradigma aldaketak lanaren, hezkuntzaren eta mundu ulerkeraren agertoki berriak eskaini dizkie, baita Euskal Herrian ere. Azken urteetan goiburu argi batekin izendatu dituzte: etorkizun ezaren belaunaldia.

**«Ez dugu etorkizuna irudikatzeko tresnarik. Agian lehengo gazteek norabide edo ipar jakin batean eraikitzen zuten haien bizi-proiektua, arrakasta lortzera bidean urratsak zehaztuago egonik. Guk ez, guk ezin dugu; ipar hori ezabatu digute»
Ainhoa Bueno.**

“Etorkizuna” hitza sareko bilatzailean jarri, eta 65 milisegundotan aurkitu ditu erantzunak. Azkar. Azkarregi, akaso, orainean dauden zantzuei erreparatuz gero. Baina, zer da etorkizuna? “Etortzeko den denbora, mintzatzen den unetik aurreragoko denborahedadura, gertatzeko dagoena” dio hiztegiak, argi. Belaunaldi batzuek ordea, Googlek ez bezala, ez dute etorkizunaren inguruko erantzunik izan orainean. Geroaz mintzatzea arrotza, nekeza eta pentsaezina zaie. No Future-Etorkizun ezaren

belaunaldi bezala izendatu dituzte azken bi urteetan egungo gazteak; beraien gurasoak baino okerrago biziko den lehenengo belaunaldia, alegia. Paradoxikoa da, baina ez dagoen zerbaitek ematen die abizena gaurko gazteei.

«Etorkizuna hortik dagoen garai anbiguo gisa pertzibitzen dut, noizbait helduko dena eta ez dakidana oso ongi irudikatzen», aitortu du Ainhoa Bueno Munarriz gazteak. 20 urte ditu, eta Abaurregainakoa da, Nafar Pirineoetakoa. Orain Historiako



gradua ikasten ari da Gasteizen, eta bertan bizi da, lagun batzuekin batera konpartitzen du pisua. Errealitate horretatik geroaren zerumuga «ezabatuta» dagoela ikusten du: «Ez dugu etorkizuna irudikatzeke tresnarik. Agian lehengo gazteek norabide edo ipar jakin batean eraikitzen zuten haien bizi-proiektua, arrakasta lortzera bidean urratsak zehaztuago egonik. Guk ez, guk ezin dugu; ipar hori ezabatu digute». Ipar orratzak ez die etorkizunerako norabiderik markatzen, baina hori ezin da modu hutsalean

ulertu: «Gure bizitza baldintza materialetan eraikitzerako orduan krisi garaiak bakarrik ezagutu dituen gazte subjektuak gara, 2008tik hasita gaur arte. Gure belaunaldiak baldintza emozional zein materialak krisi horien erreferentziapean garatu ditu», dio Oihan Errekondo Altuna gazte usurbildarrak. Beste paradoxa bat mahaigaineratu du Errekondok: «Inoizko belaunaldirik prestatuena gara, bizi proiektua eraikitzeke txikitatik besteak baino gehiago izatea exijitu zaiona, bizi baldintza duinik izan gabe. Konpetentzia horretan hezi gaituzte umetatik. Baina, aldi berean, etorkizunean pentsatzeko baldintzarik ez duen belaunaldia gara, espektatibarik egin ezin ditzakeena». Bueno bat dator Errekondorekin; begirada geroan jarriz gero, lausotuta ageri zaio dena. «Zaila egiten zait bizi-proiektu bat irudikatzea hainbeste ziurgabetasunekin, jakin gabe etxebizitza bat izanen dudan, hori ordaintzeko lan duin bat izanen dudan... Eta baldintza materialetatik haratago, etorkizun hori jasoko dugun gazteok nola biziko garen, zer bizi-eredu garatuko dugun». «Oso zaila egiten zaigu, ez daukagulako exijitu diguten espektatiba hori betetzeko bermerik; ez bizitza pertsonalean, ez belaunaldi bezala, ez dakigu etorkizuna nola kaskartuko zaigun. Saldu diguten etorkizuna irudikatsetik materializatzerara arrakala izugarria nabaritzen da», gehitu du Errekondok.

EGUNEROKOAN, MILAKA ADIBIDE

Teoria eta hitz potoloen atzean eguneroko adibide garbiak ikusten dituzte. Emantzipatzeko adina, esaterako. 30 urtetan dago Hego Euskal Herriko bataz bestekoa. Larria deritzo Errenkondori: «Emantzipazioa salto kualitatibo oso garrantzitsua da bizi proiektua garatzera bidean. Bataz bestekoa adin buelta horretan egotea basakeria bat da. No future belaunaldiaren islada garbia da». Nafar Pirineotako ikuspegitik ere afera berdina bizi du Buenok. Etxebizitza eskubidearen urraketak beste

«Gure bizitza baldintza materialetan eraikitzerako orduan krisi garaiak bakarrik ezagutu dituen gazte subjektuak gara»
Oihan Errekondo.

«Inoizko belaunaldirik prestatuena gara, bizi proiektua eraikitzeke txikitatik besteak baino gehiago izatea exijitu zaiona, bizi baldintza duinik izan gabe» Oihan Errekondo.

«Saldu diguten etorkizuna irudikatsetik materializatzerara arrakala izugarria nabaritzen da»
Oihan Errekondo.




hainbat arazo katebegi bailiran lotzen ditu: «Bizitzen ari garena ez da kasualitatezkoa edo naturala, urteetan atzera harturiko erabaki politiko ezberdinen ondorio kausal hutsa baizik, eta erantzule zuzenak ditu beraz, herriei entzungor egin dietenak. Honen ondorio praktikorik nagusia despoplazioa da, herrialde hirizentrista bat sustatzearen eskutik. Gure herriak husten ari dira, ez dagoelako ez etxebizitzarik, ez lanposturik». Gazte exodoa bailitzan, bizilekueetatik alde egitera kondenatzen dituztela dio.

Kate berdineko beste katebegi bat da ikasteko aukera eza. Nerabegarotik hiriguneetara joatera bultzatzen ditu horrek, Pirinioetako herriak asteburuetako eta turismorako toki soil bezala bideratuz. «Agortzen ari dira eskualdean bizi-proiektuak garatzeko aukerak, eta asteburutarako aisialdira zein turismora kondenatu nahi dute Pirinioa. Ikasketak hemen egiteko aukera ezak mesederik ez eta kalte handia egiten dio egoerari, 16 urterekin gazteok hirira joan behar izaten baitugu, gure herriekiko deserrotze handia sortzen duena». Deserrotze horrek, behintzat, lanpostu duinagoak izatea ekarriko balu, bestelakoa litzake egoera. Baina, Buenoren ustez, unibertsitate tituluak ez ditu etorkizunerako berme gehiago eskaintzen: «Unibertsitateko hezkuntza eredu agortuta dago. Formakuntza teoriko-praktiko, kolektibo eta pedagogikoa izatetik urrun, kalitate negargarriko ikaskuntza-prozesu indibidual eta memoristikoa hutsa jartzen du erdigunean, gure garapena bermatzen ez duena. Uste dut, gainera,

lanpostu bat bermatzearen eta duintasuna eskaintzearen baieztapenak aspaldian galdu zuela zilegitasuna. Uste dut erdigunean jartzeko eztabaida dela etorkizunera begirako bermeena. Unibertsitate titulu batek non eskaintzen dizu bizi-proiektu bat garatzeko aukera?», galdetu du, erantzuna jakin badakien arren.

Nafar Pirinio inguruko azken urteetako bilakaerari erreparatuz, etorkizunaren gainbehera sumatzen du begiekin. Bere bizilekuan bultzatu nahi duten herri eta hiri eredu eredu kapitalista dela uste du: «Lanpostu faltari lehen sektorearen larritasuna gehitu beharko genioke. Landa-eremuaren ezaugarri historiko izan diren nekazaritza eta abeltzaintza egoera itogarrian daude; produktuei ateratzen zaien etekina oso txikia (lotsagarria) da, eta diru-laguntzei esker bizirautera mugatuta ikusten du bere burua sektoreak. Duen azpiegitura garestiarekin eta eskaintzen duen etekin gutxiarekin, geroz eta gazte gutxiagok egiten dute nekazari edo abeltzain autonomo izateko hautua, sektorearen belaunaldi-erreleboa zailduz. Zerbitzuetara eta turismora kondenatu nahi dute gure eskualdea». Adibide garbi batzuk zerrendatu ditu: «Kanterak, haize-errotak, zabortegiak, Itoizeko urtegia, urpean geratutako etxeak, etxegabetutako familiak...». Gertuko adibideak zerrendatuta galdera bat datorkio: «Hornigaiak ustiatu bai, baina norentzat?». Erantzuna badaki Buenok, baina hitzez ez ematea erabaki du, seguru dago irakurri gabe ere irakurleak erantzuna badakiela.



**«Prekarietatea gure bizitzaren erdigunean dago, gure bizi eredu bera prekariora da. Ez dago soilean sektore prekarieztatuturik, bizi eredu prekariora erdigunean jarrita hezi garen belaunaldia gara»
Oihan Errekondo.**



PREKARIETATEA, BIZITZAREN ERDIGUNE

Prekarietatea. Belaunaldi horrek sarritan entzun eta irakurri duen beste hitz potolo bat, katebegi guztiek amankomunean duten elementua, elkarlotzen eta elikatzen dituen. Errekondoren ustez, ordea, momentu puntaletako baldintza edo egoera gisa saldu diete prekarietatea, baina haren ustez, belaunaldian errotuta dagoen funtsezko elementu estrukturala da: «Prekarietatea gure bizitzaren erdigunean dago, gure bizi erdua bera prekariora da. Ez dago soilean sektore prekariezaturik, bizi eredu prekariora erdigunean jarrita hezi garen belaunaldia gara». Kontratu gabeko lanak, sobre batean jasotako soldatak, kontraturik izatekotan, ebentualak, praktiketakoak, zaintza lanak...zerrenda luzea da. Datuek ere Errekondoren esanak baieztatzen dituzte. 2021ean %37 igo da gazte langabezia Hego Euskal Herrian, eta 15-29 urte bitartean

«Klandestinitate ariketa izan dira maitasuna eta harremanak» Ainhoa Bueno.

bigarren heriotza kausa ez naturala da suizidioa. Adituen arabera, astean lau pertsona suizidatzen dira. Probabilitate hori handiagoa da adin tarte horretan. Osasun mentalaren auzia garrantzizko arazoan periferian kokatu da beti. Datu gordinek, ordea, erdigunerago kokatu dute azken hilabeteetan. Buenok dio datuen arteko ekuazioa ez dela kasualitatea, ez da kasualitatea etorkizunik ez duen belaunaldiak bere buruaz beste inoiz baino gehiago egitea: «Etorkizun ezari aurre egiteko elementu gutxiegi du egungo gazteriak, bai objektiboki, bai subjektiboki. Testuinguru honetan gaixotasun mentalen diagnostikoak gora egiten jarraitzen duen bitartean, tabu gaiak izaten jarraitzeaz gain, gazteok hauek kudeatzeko erreminta objektiborik gabe

jarraitzen dugu». Arazoa konpontzeko giltzak esku pribatuen esku geratzen direla dio. «Pribatu gutxi batzuen esku egoten jarraitzen du; gure osasun mentalekin negozioa egin nahi dute instituzioek. Horren bitartean, kontsumismo logikatik at kokatzen diren aisialdi eredu alternatiboak ukatzen zaizkigu, gazteok harremantzeko espazio segururik gabe utziz, oraindik larriago, harremanak likidotzen ari diren testuinguru batean».

Datuen aurrean larritasunez mintzo da Errekondo, baina, aldi berean, tamalez, ez da harritzen. «Termometro batekin neurtuko bagenu, gure belaunaldiaren egoera emozionalaren eboluzioa erakusten dituen datuak dira». Zenbakien analisi sinplista egin izan dela



dio, testuinguruari, faktoreei erreparatu gabe, kasu isolatu gisa aztertu direla. «Depresioak eta suizidioak ezin dira aztertu arazo pertsonal edo indibidual moduan, arazo kolektiboak dira, gizarte arazoak dira. Lotura zuzena dute gure bizi eta lan baldintzekin». Interes horrek logika «kapitalista patriarkalari» erantzuten diola adierazi du: «Eredu neoliberala ezartzen dute gure bizi proiektuen baitan, konpetentzia dago bizitzen erdigunean pertsonak egon beharrean, eta horrek produktu bilakatzen gaitu. Lan mundura sartzean exijitzen zaigun guztia ditugun baldintza urriekin...oso konplexua da dena, baina lotuta dago». Errekondo Buruntzaldeako Irauli talde prekarioen kide da, eta perspektiba horren betaurrekoetatik ere eskaini du ikuspuntua: «Pobrezia eta prekariezazioarekin bukatzea ezinbestekoa da. Konponbideak erraza ematen du, baina berez sistema osoaren errotiko aldaketa bat exijitzen du. Sistema eraginkorra da lan baldintza prekarioak daudelako, eskulan produktiboa dagoelako. Horretatik elikatzen da». Baina argi du prekarieztatutako belaunaldi oso batez mintzo den arren, bazterrerago dauden sektoreak ere badaudela: «Sektore zaurgarrienekin egon

behar gara, gu belaunaldi oso bat gara, baina ez gara gu bakarrik. Pertsonak erdigunean jarriko dituen bizitza bat behar dugu, hain sinple, eta hain konplikatu aldi berean».

Egoerari aurre egiteko arnaguneak ere identifikatu zituzten. Harremanak izan dira gazteon helduleku nagusi, eta helduleku horiek oratzearen kriminalizatu dituzte hain zuzen. Baina, ba al dago harremanik gabeko elkar zaintzarik? «Klandestinitate ariketa izan dira maitasuna eta harremanak». Horrela bizi izan du Buenok. Arnagune zitzaizkion heldulekuak kontrabandoz sostengatzen ibili da, beste milaka gazte bezala. «Azken hilabeteetako debekuak harremanen esparruan fokalizatu dira, gazteok harremantzeko espaziorik gabe utziz. Baina argi dago gure identitateak kolektiboan eraikitzeo beharra, baita gure arteko zaintza praktikatzeko», ondorioztatu du. Harremanen kriminalizazio eta klandestinitateak arrastoak utzi dituela uste du, oraindik zama hori nabaritzen du. «Harremanen kalitateak behera egin duela uste dut, eta hemen paper garrantzitsua jokatzeko du neoliberalismoak, gure herrian hain esanguratsua den sen

eta sare komunitarioa higitu eta bakartuz. Hala, norberaren zoriontasunaren eta askatasun faltsuen izenean, arazo kolektibo eta erantzukizun indibidualen arteko lehia areagotu da». Estrategia horren aurrean, harremani gaitasun politiko aitortu behar zaiola azaldu du. «Behar afektibo eta sozialak asetuko dituzten sareak eraiki behar ditugu, harreman osasuntsuak sustatuz eta modu kolektiboan egoerari aurre eginez. Eta zentzu horretan, militantzia, borroka eta bestelako espazio kolektiboak sozializatu behar ditugu helduleku gisa».

Etorkizun ezaren belaunaldia ez eze, erruaren aurpegi berria ere izan dira gazteak. «Arazoaren oinarrira jo aurretik fokua gazteengan jarri nahi izan da, presio sozial hori beste behin gure gain jartzeko: politikariek, komunikabideek estrategia izugarria izan dute erroko arazoez hitz egin ez, eta agenda osoa gutaz hizketan pasatzeko», azaldu du Errekondok. Kriminalizazio hori, ordea, betiko kontua dela dio: «Gazteok izan gara arazoaren erdigune, baina ez da ezer berria, etorkizuneko interesak lortzeko ondo lotutako estrategia oso bat da. Beti kriminalizatu izan gaituzte geroko adoktrinamendu sozial bat lortzeko». Bueno guztiz bat dator kidearekin. Interes argi bat ikusten du atzean: «Helburu oso konkretu bat izan du estrategiak; gure bizi-baldintza prekarioen erantzule gure buruak markatzea, gu geu gure bizitzen eta buruen jabe garela sinistaraztea. Eta gu garela zoriontasuna, arrakasta eta duintasuna lortzearen erantzule bakarrak». Itxurakerien aurrean argi dute ez direla geldirik geratuko: «Pandemia

garaiari argi geratu da lehen lerroan izan gabela egoera salatzeke, garbi ikusi da benetan gaitasunak ditugula alternatibak eraikitzeke».

«Gazteok izan gara arazoaren erdigune, baina ez da ezer berria, etorkizuneko interesak lortzeke ondo lotutako estrategia oso bat da. Beti kriminalizatu izan gaituzte geroko adoktrinamendu sozial bat lortzeke» Oihan Errekondo.

Etorkizunaz mintzo direla, ezin aipatu gabe utzi belaunaldi berriak irudikatzen duen ametsetako Euskal Herria. Lurraldeko egoera guztiz aldatu da hamar-hamabost urtetan: globalizazio basatiaren eragina, estrategia aldaketa, gatazka ondorioen konponbideen logika... Horrek belaunaldi arrakala areagotu du euskal jendartean. «Elementu identitarioak apalduz agertzen zaizkigu guri, euskal kulturaren transmisioari zailtasunak jartzen dizkiote eta gutxinaka herri nortasunaren izaera itzaltzeke saiakera egiten dute.

«Gazteoi memoria idatzi eta konponbiderako lehen lerroan egotea dagokigu. Eta mezu zuzen bat daukagu; gureak presoak ezagutuko dituen azken belaunaldia izan nahi du» Ainhoa Bueno.

Honen guztiaren aurrean, erranen nuke gure gurasoen

belaunaldiarekin alderaturik oso bestelakoa dela eszenatokia. Errepresio formak aldatu dira; ez da modu hain azalekoan ematen, eta erreminta ezberdinen bitartez zapaltzen gaituzte», zehaztu du Buenok. Euskararen auzia jarri du adibidetzat: «Eztabaida arazo estrukturala izatetik hautu eta erabaki pertsonalera bideratu nahi dela. Baina sozializatu eta borrokatu behar dugu euskararen ezagutza hutsak ez duela ez hizkuntzaren biziraupena bermatuko ez gure herria euskaldunduko. Arazo indibidualetik erantzukizun kolektibora egin behar dugu salto». Euskal Presoen auziarekin ere egoera guztiz bestelakoa dela iruditzen zaio. «Gure belaunaldiak ez ditu kide horiek kalean ezagutu, eta etxean edo herrian izan dugu haien berri, tabernetan eta ekimenetan haien argazkiak ikusiz. Hala ere, urruntasuna ez da soilik objektiboa, eta Estatuak lan handia egiten du konponbidearekiko urruntasunean sakontzeke. Herri-memoria ezabatu eta errelato faltsu bat inposatu nahi digu, ekimenak debekatuz edota historia desitxuratuz». Frantziar eta espainiar estatuen errepresioa eta estrategia bestelakoa bada ere, belaunaldi berrien erantzukizuna berdintsua da: «Gazteoi memoria idatzi eta konponbiderako lehen lerroan egotea dagokigu. Eta mezu zuzen bat daukagu; gureak presoak ezagutuko dituen azken belaunaldia izan nahi du».

Beraien belaunaldiari jarri dizkioten abizenetan pentsatzen jarri dira: erruaren belaunaldia, etorkizun ezaren belaunaldia, sare sozialen belaunaldia, itxurarena... Beste izen batzuk okurritzen zaizkie: «Espektatiba faltsuen belaunaldia», esan du

Errekondok. Buenok argi ilunak jostea du nahiago: «Galtzeko ezer eta dena irabazteke duen belaunaldia. Nekez egin dezakeelako okerrera lokatzetan dagoen gazte belaunaldi oso baten egoerak». «Etorkizuna» hitza haien bilatzaileetan jarriz gero, seguru asko, ez lituzkete erantzunak Googlek bezain azkar bilatuko, ez dute erantzunak esku artean izateke baldintzarik. Bidea egiteke, ordea, beti ez dira erantzunak behar, sarritan galdera ikurrak toki egokian jartzearekin eta anbizioa izatearekin nahiko da.

«Galtzeko ezer eta dena irabazteke duen belaunaldia gara. Nekez egin dezakeelako okerrera lokatzetan dagoen gazte belaunaldi oso baten egoerak» Ainhoa Bueno.



Izendatu ezin den estatutua



Miren Zabaleta Telleria
Abokatu eta EH Bilduren Nafarroako koordinatzailea

Argazkiak: FOKU





Nafarroako Foru Hobekuntza indarrean sartu zenetik 40 urte beteko dira 2022ko abuztuan. Bere eratze prozesua gertatu zen garaia bezain nahasia eta gatazkatsua izan zen eta agerian uzten du Nafarroa Estatu auzia izan zela. Ordutik asko aldatu da nafar jendartea. Garai hartan hegemonikoa zen *navarrismoa* gainditu lezakeen *nafartasun* berri baten inguruko bataila kulturala puri-purian dago, baita sakoneko aldaketa politiko zein soziala nahi duen pultsioa ere. Alabaina, gaur egungo Nafarroa ulertzeko funtsezkoa da garai hartan gertatutakoa aztertzea.

Foru Hobekuntzaren eratze eta onartze prozesua gainerako autonomi estatutuekiko ezberdina izan zen, baita 1979ko Gernikako Estatutuarekiko ere. Azken honekiko ezberdintasun edo berezitasun nagusia da nafar herritarrei inoiz ez zitzaiela eman lege hau berretsi edo errefusatzeko aukerarik

Estatu espainiarrak euskal gatazkaren testuinguruan lurraldetasunaren auziari emango zion erantzuna behin betiko ezartzeko baliatu zen. Nafarroa Estatu auzi bezala erabili zen, euskal gatazka irtenbide politikorik gabe betikotzeko

FORU HOBKUNTZAREN ERATZE ETA EZARTZE PROZESUA

Nafarroako Foru Hobekuntza Berrezarri eta Hobetzea (hemendik aurrera, Foru Hobekuntza) 1982. urteko abuztuaren 16an sartu zen indarrean, espainiar Kongresuan onartua izan ostean. Foru Hobekuntza Nafarroako ordenamendu juridiko-politikoaren arau gorena da; espainiar Estatuko gainerako 16 autonomi estatutuak bezala, Konstituzio espainiarraren menpeko legea.

Foru Hobekuntzaren eratze eta onartze prozesua gainerako autonomi estatutuekiko ezberdina izan zen, baita 1979ko Gernikako Estatutuarekiko ere. Azken honekiko ezberdintasun edo berezitasun nagusia da nafar herritarrei inoiz ez zitzaiela eman lege hau berretsi edo errefusatzeko aukerarik. Frankismotik zetorren Nafarroako Diputazio Foralak izendatutako batzorde batek eta Espainiako Gobernuko ordezkariak erdietsitako akordio baten ondorioa izan zen.

Nafar jendarteari galdetu gabe gauzatu zen prozedura honek hainbat helburu politikori erantzun zion. Alde batetik, franko hil aurretik Nafarroan

agintean zegoen elite politiko eta ekonomikoaren gidaritza ziurtatzea bilatzen zuen. Bestetik, Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarekiko egituratzetik aldentzea bilatzen zuen. Eta azkenik, Estatu espainiarrak euskal gatazkaren testuinguruan lurraldetasunaren auziari emango zion erantzuna behin betiko ezartzeko baliatu zen. Nafarroa Estatu auzi bezala erabili zen, euskal gatazka irtenbide politikorik gabe betikotzeko.

Foru Hobekuntza sekula galdeketara ez eraman izana helburu politiko horiek ziurtatzeko modua izan zen. Nafarroako historiografia ofizialak ordea, navarrismoak hegemoniko egin zuen hitzarmenaren errelatimitoan oinarritzen du Foru Hobekuntzaren ezberdintasun edo singularitatea. Egun indarrean dagoen Nafarroako Erregimen Forala (edo bere hondarrak) Nafarroa eta Estatuaren arteko Itunaren ondoriozkoa denaren mitoan, hain zuzen. Mito honen enbor-ideak dira Nafarroa borondate propioz dela espainiar Erreinuako parte eta fundatzailea¹, eta Nafarroaren gainerako euskal lurraldeekiko izate eta ibilbide ezberdintasuna.

***Bazenekien?* Espainiako Errege Akademiak (EEAk) *katalanismoa* edo *baskismoa* lurralde batetik maitasunari erreferentzia egiten dion kontzeptu kultural gisa definitzen ditu; *navarrismoa* ordea, hiztegiak jasotzen ez den kontzeptu bat da, euskalduntasunarekiko oposizioan eraikitako kontzeptu politiko bat.**

1 Nafarroa 1512. urtean Gaztelako Erreinuak militarki konkistatua izan zela arbuiatu eta "Nafarroaren Gaztelako koroaren menpeko borondatezko sarrera" aldarrikatzen dute.

Foruaren Hobekuntzaren eratze ibilbide horretatik hiru gako azpimarratu daitezke: lehengoa, Foru Hobekuntzaren bidea *navarrismoak* ezarritako metarrelato historiko batean justifikatu zela; bigarrena, Nafarroako elite frankista eta eskuindar baten operazio politiko bat izan zela; eta hirugarrena, beste ezeren gaineratik iruzur demokratiko bat suposatu zuela. Azter ditzagun gako horiek banan-banan:

1. *Navarrismoaren metarrelatoa: Itun-legearen mitoa*

Nafarroa eta Estatuaren arteko Hitzarmenaren mitoa metarrelato historiko batean oinarritzen da; hainbat historialarik *cuarentayunismo* bezala izendatzen dutena. Kontakizun historiko honek 1841ko Foruen Moldaketarako Legea, hots, II. Karlistadan jasotako porrota militarren ostean Nafarroa espainiar monarkiaren menpeko probintzia bat gehiago izatera mugatu zuen legea, Hitzarmen-lege gisa aurkezten du; eta egun indarrean dagoen Foru Hobekuntza, Hitzarmen-lege horren segida edo gaurkotze bezala.

Hiru gako azpimarratu daitezke: lehengoa, Foru Hobekuntzaren bidea *navarrismoak* ezarritako metarrelato historiko batean justifikatu zela; bigarrena, Nafarroako elite frankista eta eskuindar baten operazio politiko bat izan zela; eta hirugarrena, beste ezeren gaineratik iruzur demokratiko bat suposatu zuela

Navarrismoaren errelato honen arabera, 1841eko Lege Itunduak Nafarroa eta gainerako euskal lurraldeek egindako ibilbide komuna apurtu zuen. Une hartatik aurrera, Nafarroak Itunaren bidea hartu baitzuen eta ez hala gainerako lurraldeek. Nafarroaren antzinako Erreinuaren Sistema Forala indargabetua gelditu zen eta Itunaren bidez Estatu espainiarraren lurralde antolamendu zentralizatu modernoaren parte izatera igaro zen ustezko borondate propioz. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiaren kasuan ordea, 1876. urtean eman zen aldaketa hori, azken Guda karlistaren amaierarekin batera². Gerora,



diktadura frankistak euskal lurraldeekiko izandako tratamendu ezberdinak ere, Nafarroako Hitzarmen-legearen mitoa mantendu eta elikatu zituen; Bizkaia eta Gipuzkoa *probintzia traidoreetan* ez bezala, Nafarroan 1841eko Legea eta Hitzarmen Ekonomikoa indarrean mantendu baitzuten.

***Bazenekien?* Foru Hobekuntza, Nafarroako antzinako Erregimenaren hobetze edo eguneratze bezala aurkezten da, 1841eko Lege Itunduaren – *Ley Paccionada* bezala ezagutzen dena- gaurkotze gisa. Horregatik, *navarrismoak* ezarritako kontakizun ofizialak hamarkada luzez arbuia du Foru Hobekuntza autonomia estatutu bat gehiago denik, nahiz eta formalki eta edukiari erreparatuta hori argudiatzea ezinezkoa izan, espainiar Konstituzio Epaitegiak berak adierazi duenez.**

² Ordutik aurrera, lau euskal lurraldeetan Foruak mantendu dira “Konstituzioaren batasunari kalterik egin gabe” eta burujabetza espainiar monarkiari egotzita, hau da, status-aren inguruko erabakimenik gabe. Foruen mantentze hori, administrazio-araubide berezi batean zehaztu da eta autonomia fiskal zein tributu autonomia jakin batean, etenaldiekin bada ere, gaur egunera arte iraun duten Kontzertu eta Hitzarmen ekonomikoaren instituzioen bidez.

2. Nafarroa Garaia, Estatu Auzia

Aipatu dugunez, Foru Hobekuntza Nafarroako Diputazio Foral frankistak izendatutako batzorde batek eta Espainiako Gobernuko ordezkariak erdietsitako akordio baten ondorioa izan zen. Akordioa 1981ko kolpe militarren bezperetan itxi zen eta Foru Hobekuntza espainiar kongresuan onartua izan zen lege organiko gisa 1982ko abuztuaren 16an, Nafarroako Parlamentuak onartu ostean.



Bazenekien? Frankoren heriotzaren aurretik eta ondorengo lehengo etapan, Espainiako UCD-ko Gobernuak eta PSOE-PSEk Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa erkidego autonomo bakarra osatzeko apustua egiten zutela? Frankismotik zetorren Nafarroako Diputazio Forala eta Nafarroako UCD erregionala gakoak izan ziren bide hau arbuiatzeko. PSOEk, aldiz, 1981. urtean eman zuen aldaketa, PSE utzi, PSN sortu eta navarrismoaren tesiak bere egitearekin batera.

Foru Hobekuntzaren hitzarmen berrituaren negoziazio horietara iritsi aurretik, gauzak lotuta eta ongi lotuta zeuden ordea. Batetik, Nafarroako Diputazio Forala frankismo garaitik zuen zazpi gizonen osaketa berdina mantentzen zuen eta, horrek, frankismoaren oinordekotza ziurtatzen zuen; baita gutxieneko ariketa demokratiko bati ateak itxita mantentzea ere. Bestetik, Nafarroako UCDk, Del Burgo buru, navarrismoaren

tesia gaurkotu zuen⁴ eta horrek eragin zuzena izan zuen, Espainiako Gobernuak eta Estatu botereek euskal gatazkari eta lurraldetasunaren auziari emango zioten erantzuna finkatzeko orduan: Nafarroa erkidego berezitu gisa eratu zedin sustatzea, alegia. Eta azkenik, PSOEk 1981an *navarrismoaren* tesiatarantz biratu izanak, behin betiko aldatu zituen indar-harremanak.



Bazenekien? 2018an Altsasuko gazteekiko elkartasunez egindako manifestaldia egin zen arte, Nafarroan Aro Garaikidean egindako manifestaldirik jendetsuena 1977an “Nafarroa Euskadi da” lelopean gauzatu zena dela?

Argazkia: 2021eko urriaren 16an Nafarroa XXI herri plataforma aurkeztu zuten Iruñean. Foru Hobekuntzaren 40. urteurrenean herritarrek bozkatu ez zuten Estatutu bakarra dela salatu eta eztabaida piztu nahi dute, Nafarroak bere etorkizuna erabakitzeke tenorea dela aldarrikatuz.

3 Madrileko Gobernuan zegoen eskuinaren baitan emandako jarrera aldaketaren lekuko da M. Herrero de Miñon, garaian espainiar Gobernuaren izenean Konstituzioaren inguruko negoziazioetan ibili zena. Zera dio bere memorietan: “*lo que ahora es inviable, era entonces más que posible*”, “*La inclusión de Navarra en un conjunto vasco-navarro era una previsión que el propio Gobierno había hecho*”.

4 Del Burgoak 1966an idatzi zuen Nafarroako historiari buruzko bere tesi doktoralari OPUS-eko NU-n; tesi horretan, 1982ko Foru Hobekuntzaren ezartze prozesua gidatuko zuen errelato historiko *neo-cuarentayunista*-ren oinarriak ezarri zituen eta *navarrismoaren* euskal lurraldeekiko harremanaren oposizioaren oinarritzko argudio dialektikoa finkatu zuen, zeinak, Nafarroaren gainerako euskal lurraldeekiko “*autodeterminazio eskubidea*” aldarrikatzen zuen, Espainiar Estatuarekiko ez bezala.

3. Foru Hobekuntzaren iruzur demokratikoa

Foru Hobekuntzaren prozedura abiatu zenean, Nafarroan indar harremana tesi navarristaren aldekoa baldin bazen, bada galdetzerik zergatik arbuiatu zen Foru Hobekuntzaren inguruan nafar jendarteari galdegitea; edota zergatik etapa aurre-autonomikoan ezeztatu zen gainerako euskal lurraldeekin batera Euskal Kontseilu Orokorrean parte-hartzeari buruz galdegitea.

Bazenekien? Diario de Navarra eta Pensamiento Navarro egunkariak izan zirela, tesi navarristen sustatzaile nagusiak. “Nunca, pero nunca, puede jugarse a cara o cruz el ser o no ser de Navarra, porque el derecho a la vida foral de nuestro pueblo escapa al resultado de las urnas. Nuestros poderes están en las raíces de nuestra historia y no en la mitad más uno de los votos que puedan emitirse al compás de los caprichos de las democracias”. Editorial del Pensamiento Navarro, 2 de agosto de 1977.

Agian, nafar jendarteak adierazi duelako, galdetu izan zaionean, ez dagoela emaitza ziurtatzerik; zentzu horretan adierazgarria izan zen oso, Hobekuntzaren prozesu hartatik urte gutxira, nafar jendarteak OTAN-i eman zion ezezkoa. Eta noski, behin galdetzen hasita, ustez itundua den status-aren inguruan galdetuak izateko atea parez pare irekiko litzatekeelako.

Bazenekien? “Onargaitza zen Espainiako erkidego historikoena dena” Nafarroari erreferentzia eginez, “modu iraunkorrean Damoklesen ezpataren mende egotea eta sekula gertatuko ez dela espero dudan uneren batean, herritarrak erotu eta Euskadirekin egitate politiko bat egituratzeko gehiengoa lortzea Parlamentuan. Hori onartezina da”. Miguel Sanz-ek, Nafarroako Lehendakariak, 2004ko maiatzaren 4an esandako hitzak.



Nafarroako Foru Hobekuntza Berrezarri eta Hobetzea Nafarroako Autonomi Estatutua da, *navarrismoak* hala izendatzea arbuiatzen badu ere.

NAFARROA GARAIA, KONSTITUZIOAREN KAIOLAN

Nafarroako Foru Hobekuntza Berrezarri eta Hobetzea Nafarroako Autonomi Estatutua da, *navarrismoak* hala izendatzea arbuiatzen badu ere; Nafarroa Erkidego Foral gisa eratzen duena eta Konstituzio espainiarraren menpeko lurralde antolamenduan txertatzen duena.

Hala izanik ere, Foru Hobekuntzak Nafarroako erregimen foralaren Estatuko beste erkidegoekiko hainbat ezberdintasun ezartzen ditu. Lehenik eta behin, aipatu dugunez, autonomia erdiesteko genesian egindako bide itundua; Nafarroako erregimen foral aurre-konstituzionala autonomien lurralde antolamenduan txertatzeko modua, alegia. Bigarrenik, Nafarroa (EAE bezala) Estatuko lurralde antolamenduaren baitan eskumen maila altuena duten erkidego historikoen multzoan kokatu izana. Bukatzeko, zehazki aipatzea merezi duten Nafarroako erregimen foralaren lau aldagai-bereizgarri.

1. Hitzarmen Ekonomikoa.

Hitzarmen Ekonomikoa gure sistema foralaren hondarra da, EAEko Kontzertu Ekonomikoaren erakundearen parekoa. Mugekin bada ere, Nafarroari ahalmen zerga-biltzaile eta fiskala aitortzen dio.

2. Foru Berria edo Nafarroako Konpilazio Zibila. Araubide zibilean Nafarroako erregimenean hainbat bereizgarri ezartzen ditu.

3. Euskararen ofizialtasunaren zonaldeen arabeko arautzea.

Foru Hobekuntzaren 9. artikulua gaztelera Nafarroa osoko hizkuntza ofizial izendatzen du eta euskararen ofizialtasuna Nafarroako zonalde euskaldunetara mugatu. Artikulu honetan aurkitzen da 1986. urtean "Vascuence"aren Foru Legeak garatu zuen zonifikazioa.

Bazenekien? Nafarroako Parlamentu Foralak oinarrien gaineko bi akordio hartu zituen Diputazio Foralak espainiar Gobernuarekin egin beharreko negoziazioetan aintzat hartu zitzaizkien. Horieta bat 1980. urteko azaroaren 3an hartu zuen, negoziazioen garai bete betean, euskara Nafarroa osoan hizkuntza koofiziala izan zedin eta etorkizuneko Nafarroako Gobernuaren esku gelditu zedin printzipio honen garapenerako eskumena. Nafarroako Batzorde negoziatzailearen ekimena izan zen (eta ez Madrilekoarena) Parlamentuaren akordioari iruzur egin eta Foru Hobekuntzan hizkuntza zonifikazioaren ideia txertatzea.



4.-Konstituzio Espainiarraren Laugarren Xedapen Iragankorrek suposatzen duen berezitasuna.

1978ko Konstituzio Espainiarraren Laugarren Xedapen Iragankorrean Nafarroa beste hiru euskal lurraldeen aurreautonomiara edota, behin EAE osatuta, erkidego horretara gehitzeko aukera arautu zen. Xedapen hau lau euskal lurraldeen arteko harremanen arautzea gatazka ireki bat suposatzen zuenaren isla da.

Eskuinak, gaur egun, xedapen hau abertzaleen aldarrikapen gisa aurkezten du, baina bere sorrera ekarri zuen motibazioa justuki kontrakoa izan zen: Nafarroako Erkidego Forala EAeko erkidegora gehitu edo anexionatzeko aukera irekiz, lau herrialdeen arteko egitate politiko amankomun bat eraikitzeko aukera itxi nahi izan zen, anexionaren eta Nafarroaren desagertzearen izua eraginez.

***Bazenekien?* Konstituzioaren Laugarren Xedapen Iragankorren sustatzaile nagusia Jaime Ignacio Del Burgo izan zela Nafarroako eskuinaren (UCDko) burua? Eta, xedapen honen inguruko eztabaidan egon zela, UCDk Nafarroan biltzen zuen eskuinaren zatiketa eta UPNren sorrera Aizpunen eskutik 1979. urtean?**

1982an indarrean sartu zen Foru Hobekuntzak ez du xedapen honen garapenik zehazten eta, beraz, xedapenak jasotako aurreikuspenaren (Nafarroa EAera gehitzearena, alegia) intenzionalitate eta egokitasun politikoa eztabaidagarria izateaz gainera, juridikoki bideragarria ote den ere galdegiterik dago.

NAFARTASUN BERRIRANTZ, AZKEN GOGOETA BAT

Foru Hobekuntzak bere Hitzaurrean nabarmentzen duen izaera Itundua beteko balitz, Nafarroa eta Estatuaren arteko harremana berdinen artekoa litzateke, benetako harreman aldebikoa. Tamalez, Nafarroak, gainerako euskal lurraldeek bezala, ez dute Estatuarekiko aldebiko harremanik eta ez dute beren status-a zein haien arteko harreman instituzional-politikoaren beren erabakimenaren arabera arautzeko botererik.

Bazenekien? 1977ko espainiar Gorteetarako hauteskundeetako emaitzek adierazten dutenez nafar jendartearen %60a gainerako euskal lurraldeekin proiektu amankomun bat egitearen aldekoa zela? Eta 1983ko Nafarroako hauteskundeetan, berriz, boza emandako herritarren %80ak baino gehiagok Foru Hobekuntza babestu zuten indar politikoak babestu zituztela? Navarrismoaren tesien aldeko indar-harreman hau hamarkadetan zehar mantendu da, XXI. mendeko bigarren hamarkadara arte, hain zuzen.

40 urte hauek ez dira, ordea, debalde pasa. Gauza asko aldatu dira Nafarroan. Garaian Nafarroako presidente izan zen M. Sanz-ek bataiatutako gaztatxoaren teoria apurtu egin da azkeneko hamarkadan eta indar-harreman berriak sortzen ari dira. Baina, zalantzarik gabe, Nafarroako jendartearen aldaketa sakonena eremu kulturean gertatzen ari da, hegemonikoa izan den navarrismoa tokia galtzen ari baita nafartasun bezala definitu

dezakegun identitate kultural anitz berri baten mesedetan. Nafartasun honen ezaugarri dira aurrerakoitasuna, feminismoa, autoritarismoa arbuizatzea edota euskalduntasunarekiko irekitasuna. Bataila kultural latza eman da azkeneko hamarkadetan eta sedimentatzen ari den nafartasun berriaren ezaugarri nagusia, dagoeneko ez dago Euskal Herriarekiko oposizioan eraikia, aniztasunaren kudeaketa demokratikoan baizik. Gure esku dago, gauzatzen ari den aldaketa kultural hau sustatu eta gainerako euskal lurraldeekin Nafarroa burujabe bateranzko aldaketa politiko estrukturaletan bilakatzea.

Nafarroako jendartearen aldaketa sakonena eremu kulturean gertatzen ari da, hegemonikoa izan den navarrismoa tokia galtzen ari baita nafartasun bezala definitu dezakegun identitate kultural anitz berri baten mesedetan. Nafartasun honen ezaugarri dira aurrerakoitasuna, feminismoa, autoritarismoa arbuizatzea edota euskalduntasunarekiko irekitasuna.

Gure esku dago, gauzatzen ari den aldaketa kultural hau sustatu eta gainerako euskal lurraldeekin Nafarroa burujabe bateranzko aldaketa politiko estrukturaletan bilakatzea.

Urriaren 18ko Adierazpena

Arkaitz Rodriguez Sortuko idazkari nagusiak eta Arnaldo Otegi EH Bilduko koordinatzaile nagusiak Urriaren Hemezortziko Adierazpena irakurri zuten Aieten, Konferentziaren X. urteurrenean. Erreakzio soka eragin zuen, asko positiboak: ETaren biktimen aldetik, PSOEtik, Kataluniatik eta nazioarteko zenbait eragileren aldetik adierazgarrienak.

Argazkia: FOKU

Aieteko Nazioarteko Konferentziatik zein ETA erakundearen indarkeria armatuaren amaieratik hamar urte igaro direla aintzat hartuta, euskal ezker independentistak honako hausnarketak partekatu nahi ditu euskal gizartearekin, espainiar eta frantziar gizartearekin, zein nazioarteko iritzi publikoarekin:

1) ETak indarkeriaren amaiera iragarri zuenetik hamar urte igarota, konpromiso hura osorik bete dela egiaztatu besterik ezin dugu egin. Haren jardueraren amaiera osoa eta erabatekoa izan da. Horrez gain, modu egokian egin du armagabetze eta desegite prozesua, nazioarteko estandarrek zehazten duten bezala.

Halako prozesuak zailak izaten direla aintzat hartuta, balioa aitortu behar zaio ETak bere erabakiak batasunez hartu izanari. Antzeko ezaugarriak dituzten beste prozesu batzuetan gerora sortu izan diren arazo larriak agertzea saihestu baitu horrek.

Modu irmo, ausart eta arriskatuan bide erabat baketsuen aldeko apustua egin zuten haiek arrakasta erabatekoa eta eztabaidaezina lortu dute. Lidergo bakarrez aritu zirela argi geratu da.

Edonola ere, zalantzarik gabe, euskal gizarte osoarena da arrakasta.

2) Ez zen iruzurrik egon, ez zen kalkulu taktiko bat izan. Igarotako denborak agerian utzi du orduan hartutako erabakiaren izaera estrategikoa. Euskal ezker independentistak bide soilik baketsu eta demokratikoekiko hartutako konpromisoak konbentzimendu etiko eta politikoei erantzuten zien eta erantzuten die. Aldatu ezineko eta betirako erabakia da.

Ezker independentistak egiaztatu du egindako apustuaren zintotasuna eta emandako hitzaren betetzea.

3) Bake justu eta iraunkorrerako bidea egiteak biktima guztien aitortza eta erreparazioa eskatzen du, guzti-guztiena. Ez dugu haietako bat bera ere ahazten.

Gaur, ETaren indarkeriak eragindako biktimen aipamen berezia egin nahi dugu. Gure atsekabea eta mina adierazi nahi diegu jasan duten sufrimenduagatik. Gure egiten dugu haien mina, eta sentimendu zintzo horretatik baieztatzen dugu hura ez zela inoiz gertatu behar, inork ezin du gogoko ukan hura guztia gertatu izana, ezta denboran hainbeste luzatu izana ere. Aietera lehenago iristea lortu behar genuen.

Zoritxarrez, iraganak ez dauka atzera bueltarik, esan dezakegun ezerk ez du eragindako mina ezabatuko. Baina konbentzitura gaude arintzea behintzat posible dela, errespetuan, adeitasunean eta memorian oinarrituta. Bihotzez esan nahi

diegu asko sentitzen dugula jasan duten sufrimendua eta ahal dugun neurrian arintzeko konpromisoa hartzen dugula. Beti izango gaituzte horretarako prest.

4) Nazioarteko esperientziak erakusten du, eta Aieteko adierazpenak ere hala jasotzen zuen, beharrezkoa dela preso politikoen auziari irtenbidea ematea. Saihestu ezineko erronka da guztiontzat, eta horretarako beharrezkoa da salbuespenezko espetxe politika amaitzea eta konponbide integrala ematea. Aldarrikatu nahi dugu presoek estrategia armatua gainditzeko izandako parte hartze aktibo, irmo eta erabakigarria, baita bide baketsu eta demokratikoekiko haien konpromisoa ere. Haiek gabe, ez zen posible izango.

5) Elkarriketaren, negoziazioaren eta adostasunaren aldeko konpromisoan berresten gara, hori baita ezberdintasun politikoak ebatzi eta konpontzeko metodo eraginkor eta demokratikoena.

Gatazkaren jatorrian dagoen arazo politikoari irtenbidea emateke dugu oraindik. Arazo nazionalari konponbide demokratikoa ematea ezinbestekoa da. Herri bat gara, nazio bat, eta neurri horretako aitortza eta errespetua dagokigu. Gure nazio nortasunarekiko errespetua beharrezko eta lehen pausoa da bestelako etorkizuna eraikitzeko, zeinetan erabakia gure herriko gizartearen esku egongo den.

DOSIERRA:

D₁ ”

erreportajea:

ERRIA

Lanak, langile klasea eta klase borrokak

D₂ ”

erreportajea:

IGOR ARROYO

Enplegutik banaketa hirukoitzera

D₃ ”

erreportajea:

ERRIA

Gizarte antolaketa berri bat

D₄ ”

erreportajea:

ISIDRO ESNAOLA

**Reivindicaciones obreras
en los programas de izquierda**

D₅ ”

erreportajea:

ERRIA

**Herri Batasunaren proposamena:
“Iana banatu, ondasuna banatu”**

D₆ ”

sinadura:

ASIER VENTIGLIMIA ETA BEÑAT IRASUEGI

#GlovoEz!


LANAK,
KLASEA
ETA ZAINTZA

Lanak, langile klasea eta klase borrokak

Erria

Iraultza industrialaz geroztik [XVIII. mende bukaera], langile klasea edo proletalgora soldata baten ordean produkzio lanean eskulana burutzen duen klase sozial gisa ezaugarritu da. Marxismoaren tradizio klasikoan, langile klasea ekoizpen bitartekoen jabea ez den langilea da, industriako lanari loturikoa. *Working-class* terminoa Karl Marx eta Friedrich Engelsen lehenengo idatzi sozioekonomikoetan hasi zen garrantzia hartzen. Baina XX. mende erdialdetik aurrera, gizartearen eta zapalkuntzen konplexutasuna dela eta, eztabaida iturri izan da, non ikuskera ekonomikoak (ekonomizistak askotan), sozialak, antropologikoak eta politikoak nahasi egin diren eztabaidan. Dena den, ez dago esan beharrik, azken mendeetan askapen mugimendu nazionalen, feminismoen, arrazismoaren kontrako borrokaren zein mugimendu dekolonialen kritikak zein aldaketa sozial, politiko eta antropologikoei, klasea eta klase borroka ulertzeko era problematizatu, eraldatu eta erradikalizatu dutela. Zer dira klaseak gaur? Nola ulertu lanak XXI. mendean? Nola ulertu klase borroka?

D1





Argazkia: Pop & Zebra, Unsplash

EREDU FORDISTA ETA ONGIZATE ESTATUA

Ez goaz hemen aurreko galderei erantzunik ematera, are gutxiago langile klasearen, lanaren eta klase borrokaren gaineko irakurketa historiko borobilik ematera. Aitzitik, langile klasearen bilakaeraren, eta, hortaz, klase borrokaren ezaugarritzearen ibilbide historiko laburra egingo dugu.

Atzerago joan gaitezkeen arren, fordismoaren sorreratik hasiko gara. Paradigma fordista, gizakia bere funtzio produktiboak definitua zen, Modern Times filmean Charles Chaplinek satirizatu bezala. Izan ere, Bigarren Mundu Gerra ostean, ongizate estatu keynestarra indartu zen, eta paradigma fordista hegemoniko bilakatu, lantegiko balio eta metodoak giza erlazio orotara zabalduz: produkzioaren arau eta beharrei lotutako gizakia hauspotu zen. XIX. mende bukaerako kapitalismoan fabrika langile industrialen kolektiboak izango ziren subjektu, eta alderdi sozialistak eta sindikatuak arrakasta nabarmena izan zuten horiek artikulatzen.

**Zer dira klaseak gaur?
Nola ulertu lanak XXI.
mendean? Nola ulertu
klase borroka?**

Langile klase izaera eta identitatea ekoizpen eredu bati lotua zegoen, kate lan eta ordutegi finkoen eredu ekonomiko eta sozial bati, eta, hortaz, klase borroka klasikoak definitzen zuen gatazka soziala. Beste hitzetan, auzi soziala langile auzia zen. Horrela, XX. mendean zehar kapitalismoari aurre egingo zion proiektu politiko nagusiak, sozialismoak, langilea izan zuen ardatz eta subjektu nagusi.

PARADIGMA POST-FORDISTA

XX. mendean, batez ere bigarren mundu gerraz geroztik mundu mailako aldaketa esanguratsuak gertatu ziren, ekonomikoak, sozialak eta politikoak. Margaret Thatcherrek shock doktrina aplikatu zuen (meatzeko grebalarien porrota akuilaturik), eta Hayek eta Friedmanek diseinatutako merkatu librearen doktrina ezarri eta hedatu zen. 1973ko petrolioaren krisiaz, ekonomia mendebaldarra eredu neoliberal eta arautu gabeko batera biratzen hasi zen, merkatu autoerregulatuaren ideologia hobetsiz, «totalitarismo sobietarrari» aurre egiteko aitzakiaz. Enpresa transnazionalak, globalizazio ekonomikoa (prekarizazioaren globalizazioa eta fordismoaren deslokalizazioa), kompetentzia eta etekin ekonomikoa ziren oinarri berriak. Fordismoaren krisiak, Hego Euskal Herrian, lan erreformarekin eta errekonbertsio industrialarekin, aldaketa handiak ekarri zituen.

Fordismoaren krisiaren ondoren lan baldintzen

flexibilizazioa etorri zen. Baina hori baino gehiago, mutazio antropologiko eta sozial oso bat gertatu zen. Industria handietatik eta zentralizatuetatik, enpresa sare deslokalizatuetarako bidea egin zuen neoliberalismoak. Gizaki produktiboa gero eta atomizatuagoa zegoen, gero eta lan indibidualagoetan murgildua, norbere buruaren jabe eta esplotatzaile izatera bidean. Prozesu luze baten ondorio izan zen hori. Gurean, 1984an aldi baterako kontratuei bide eman zitzaie bezala, 1994an aldi baterako lanerako enpresak erregulatu ziren, lanaren prekarizazioa areagotuz.

Finean, eta asko laburtuz, lanak identitatea ematen zuen garai oso bat desagertzen zihoan. Gure aitona-amonen belaunaldiak soldata familiarra baldin bazuen —enplegua gizonak eta lan erreproduktiboa emakumearen esku egonik—, gure gurasoen garaiak bi soldata izango zituen, emakumeak lanmunduratuz eta lan erreproduktiboaren auzia azaleratuz; enpleguratzear gain etxeko lanak bere gain geratzen baitziren. Eta azkenik, belaunaldi berriak, soldata eta bizitza prekarioen belaunaldi bezala ezagutzen ditugu.

Langile klase izaera eta identitatea ekoizpen eredu bati lotua zegoen, kate lan eta ordutegi finkoen eredu ekonomiko eta sozial bati, eta, hortaz, klase borroka klasikoak definitzen zuen gatazka soziala.

PARADIGMA POST-FORDISTA

XX. mendean, batez ere bigarren mundu gerraz geroztik mundu mailako aldaketa esanguratsuak gertatu ziren, ekonomikoak, sozialak eta politikoak. Margaret Thatcherrek shock doktrina aplikatu zuen (meatzeko grebalarien porrota akuilaturik), eta Hayek eta Friedmanek diseinatutako merkatu librearen doktrina ezarri eta hedatu zen. 1973ko petrolioaren krisiaz, ekonomia mendebaldarra eredu neoliberal eta arautu gabeko batera biratzen hasi zen, merkatu autoerregulatua ideologia hobetsiz, «totalitarismo sobietarrari» aurre egiteko aitzakiaz. Enpresa transnazionalak, globalizazio ekonomikoa (prekarizazioaren globalizazioa eta fordismoaren deslokalizazioa), konpetentzia eta etekin ekonomikoa ziren oinarri berriak. Fordismoaren krisiak, Hego Euskal Herrian, lan erreformarekin eta errekonbertsio industrialarekin, aldaketa handiak ekarri zituen.

Fordismoaren krisiaren ondoren lan baldintzen flexibilizazioa etorri zen. Baina hori baino gehiago, mutazio antropologiko eta sozial oso bat gertatu zen. Industria handietatik eta zentralizatuetatik, enpresa sare deslokalizatuetarako bidea egin zuen neoliberalismoak. Gizaki produktiboa gero eta atomizatuagoa zegoen, gero eta lan indibidualagoetan murgildua, norbere buruaren jabe eta esplotatzaile izatera bidean. Prozesu luze baten ondorio izan zen hori. Gurean, 1984an aldi baterako kontratuei bide eman zitzaizen bezala,

1994an aldi baterako lanerako enpresak erregulatu ziren, lanaren prekarizazioa areagotuz.

Finean, eta asko laburtuz, lanak identitatea ematen zuen garai oso bat desagertzen zihoan. Gure aitona-amonen belaunaldiak soldata familiarra baldin bazuen —enplegua gizonak eta lan erreproduktiboa emakumearen esku egonik—, gure gurasoen garaiak bi soldata izango zituen, emakumeak lanmunduratu eta lan erreproduktiboaren auzia azaleratuz; enpleguratzear gain etxeko lanak bere gain geratzen baitziren. Eta azkenik, belaunaldi berriak, soldata eta bizitza prekarioen belaunaldi bezala ezagutzen ditugu.

Fordismoaren krisiak, Hego Euskal Herrian, lan erreformarekin eta errekonbertsio industrialarekin, aldaketa handiak ekarri zituen.

Lanak identitatea ematen zuen garai oso bat desagertzen zihoan.



LANGILE SUBJEKTUAREN ALDAKETA

Lantegiko subjektu maskulinoa bere indarra galtzen joan zen, lan ordaindua feminizatzeaz batera; lan ez ordainduak emakumeen esku jarraitzen zuelarik. Eskubide sozialen galera eta langile klasearen atomizazioa etorri zen berehala.

Tartean, 60-70 hamarkadan, eraldaketa subjektuaren irekiera erradikala ematen ari zen: emakumeak, beltzak, gutxiengo etnikoak, LGTBI, kontrakultura, nazio askapen mugimenduak, ikasleak... Klase borrokaren irakurketa ekonomizista albo batera utzi, eta bazterreko kolektiboek berformulatu egin zuten, klase borrokaren

irakurketa are erradikalagoak eginez.

Horrek, noski, marxismoaren, nazio askapen mugimenduen eta feminismoaren arteko tentsio eta eztabaidak ekarri zituen. Marxismo klasikotik errekkurrenteak izan dira gero, feminismoaren edo askapen mugimenduen eskaerak burges txikiak zirela eta borroka zentraletik (iraultza sozialista) urruntzen zutelakoa. Horren oinarrian bazen beste kritika bat, gaur errepikatzen dena: feminismoak borrokaren aspektu kulturala baino ez duela kontuan hartzen, birbanaketa ekonomikoa ahaztuz eta klase subjektua bananduz.

Klase borrokaren irakurketa ekonomizista albo batera utzi, eta bazterreko kolektiboek berformulatu egin zuten, klase borrokaren irakurketa are erradikalagoak eginez.





BORROKA “KUTURALAK” ETA “MATERIALAK”

Aurreko kritikaren oinarrian borroka materialen eta kulturalen arteko bereizketa dogmatikoa dago. Materiala eta kulturala gauza bakarra dira, ordea. Izan ere, ideien materialtasuna azpimarratzen denean, ideia hutsen eta errealtate edo praktika gordinaren arteko etena apurtzen dela esan nahi da, alegia, praktika sozial eta kultural orok bi mailak zeharkatzen dituela. Edo bestela esateko: dominazio sistema (patriarkal, nazional...) eta berdin utopia askatzaile oro praktika diskurtsiboak direla.

Genero diskurtsoa edo diskurtso arraziala, adibidez, giza kulturaren klasifikazio sistema historiko indartsuenetako bi dira; diskurtso horiek errealtatea klasifikatzen dute materialki, alegia, dominazio sistema bat naturalizatu. Identitatea, beraz, gauza oso materiala da: ez da berdin munduan «emakume»

edo «gizon» izan, euskaldun edo espainol; edo etxeko lana egiten duen emakume euskaldun arrazializatua edo gizon txuri langilea. Analitikoki gizakiaren alde sozial eta sinbolikoa bereiz daitezke, baina praktika diskurtsiboak direnez gero, batera ematen dira. Borroka kultural eta postmoderno gaizki deiturikoak, hortaz, bereizketa faltsu horretan oinarritzen dira.

Neoliberalismoa bera, bere praktikak naturalizatzeko sortzen diren metafora eta ideologietan oinarritzen da: metafora horiek zapalkuntza materialaren osagai errealak dira. Hortaz, klase sozialez ari gara, eta beraz, klase borrokaren alderdi desberdinez.

BIZITZA – KAPITALA

Eztabaida guzti honen oinarrian, gizakiaren oinarriko gatazkaren ezaugarritzea egon da beti. Marxismoaren eta feminismoaren arteko eztabaida luzea egon da horren inguruan, baita nazio askapen mugimenduak marxismoarekin

historikoki izan duen eztabaida luzea ere. Feminismoak gatazka sozialaren iturburua berdefinitu zuen, lanaren ikuspegi osoa txertatuz. Aizan! talde feministak 1984. Urtean Egin-en zioen bezala:

“Kapitalismoarentzat egitura perfektua da hori, «gizona produkzio-baliabideekin lotuko du, eta emakumea lanindarra mantentzeaz (elikadura, garbiketa, espazioaren zaintza, hornitze-lanak...) eta berauen ugaltzeaz arduratuko da»

Enpleguaren mundutik baztertutako ardatzak lagun, kapitala – lana binomioa berdefinitu zuen feminismoak, bizitza ahalbidetu eta erreproduzitzen duten ardatz guztiak kapitalaren logikari oiposatuz, bizitza kapitala binomioan ezaugarrituz.

Enpleguaren mundutik baztertutako ardatzak lagun, kapitala – lana binomioa berdefinitu zuen feminismoak, bizitza ahalbidetu eta erreproduzitzen duten ardatz guztiak kapitalaren logikari oiposatuz.

ZER DA KLASEA, BERAZ?

Zer da zapalduak komunean dutena gaur? Esplotazio, menderakuntza eta subjektibazio prozesu desberdinen arteko mugan eta ertzetan txirikordaten da erantzuna. Klasearen definizioa zapalkuntza forma guztien bidea marrazteko brujulatzat uler daiteke soilik: klase diskurtsoak bizitzaren zapalkuntza oro kontuan hartu behar ditu, eta horiek artikulatzeko asmoa praktikan erakutsi. Izan ere, klase politika bat ez da auzi teorikoa, aldiz, homogeneousak ez diren aliantzak sortzean dago gakoa.

Gaur eztabaidak bizi jarraitzen du. Klasea tentsio gune bat dela erakusten dute, praktikan eraikitzen den subjektu anizkoitza: alegia, ez dago aurretik emana. Langile klasearen zentralitatea emantzipazio subjektu bezala ahuldu egin da. Eta tartean, klasearen aurpegi anitzak klase gatazka gisa ezaugarritu dituzte haien zapalkuntzak, antiarrazista, feminista eta nazionala, tarteko.

Emakume*, euskaldun, langile, langabetu edo beltz izatea klase zapalkuntzaren aurpegi desberdinak dira.

Edo bestela esanda, arraza, generoa edo naziotasuna klase auziak dira, intersekzioetan elkartu eta klase zapalkuntza asimetrikoak sortzen dituenak. Zapalkuntzetatik askatzeko borrokak artikulatzeko abiapuntua helburu konpartituek emango dute, egitasmo askatzaile ororen printzipio oinarritzkoena gehituz: iraultzak jendartearekin egin behar dira, ez jendartearen kontra edo gainetik.

**Emakume*,
euskaldun, langile,
langabetu edo
beltz izatea klase
zapalkuntzaren
aurpegi
desberdinak dira.**



Argazkia: Foku

Enplegutik banaketa hirukoitzera



Igor Arroyo Leatxe
LABeko Idazkari
Nagusiaren ondokoa

ARGAZKIAK: Foku

Enplegua sistema kapitalistaren erdigunean dago, ikuspegi desberdinetatik egon ere. Alde batetik, Kapitalaren ikuspegitik, enplegua da plusbalia eskuratzeko eta ondorioz etekinak metatzeko bidea [espekulazioarekin batera], langileen osasunaren, ekoiztutakoaren balio sozialaren edota ingurumenaren gainera. Beste alde batetik, ekoizpenerako baliabide propioerik ez duen desjabetutako langilerientzat, enplegua da momentuko nahiz etorkizuneko diru-sarrerak eskuratzeko ezinbesteko baldintza; enplegurik gabe, ez dago soldatarik, ez eta kotizaziorik eta beraz etorkizuneko pentsiorik.

D2”



Ekoizpenerako baliabide propiorik ez duen desjabetutako langileriarentzat, enplegua da momentuko nahiz etorkizuneko diru-sarrerak eskuratzeko ezinbesteko baldintza.

Azken urteotan, desaraututako eremuetan eta prekarizatutako sektore feminizatuetan arreta jartzen ari da sindikalismoa.

Digitalizazio eta robotizazioak nahiz larrialdi ekologikoak behartutako birmoldaketa produktiboak milaka lanpostu desagerraraziko dituen honetan, enplegua mantendu eta banatzearen auzia agendaren erdigunean kokatuko da.



Gauzak horrela, enplegua izan da historikoki klase borrokaren muina. Esplotazioa areagotu eta etekinak handitzeko presio egiten duen Patronalaren aurrean, enpleguaren baldintzak hobetu eta enpleguaren bidez sortutako aberastasuna era egokiagoan banatzea izan da sindikalismoaren erronka nagusiena. Antolakuntza eta borroka sindikalaren bidez lanaldia murriztu, soldatak handitu, erretiroa aurreratu, langileon osasuna babestu edota enplegutik eratorritako prestazio sozialak hobetzeko borroka egin dute sindikatuek, nagusiki eremu sindikalizatu eta maskulinizatuetan; azken urteotan, desaraututako eremuetan eta prekarizatutako sektore feminizatuetan arreta jartzen ari da.

Era berean, enplegua defendatu eta lanpostu suntsiketari aurre egiteari garrantzia handia eman izan dio sindikalismoak. Eta enplegu ezak eragiten duen bazterketa sozialari aurre egiteko neurriak aldarrikatu izan ditu, hala nola, lanaldiaren murrizketa, dagoen enplegua denon artean banatzeko; edota “soldata soziala”, enplegurik ez duten langileek ere diru-sarrera duina izan dezaten. Bi horiek ziren, hain zuzen ere, 1999an euskal gehiengo sindikalak egindako Greba Orokor historikoaren aldarrikapen nagusienak. Digitalizazio eta robotizazioak nahiz larrialdi ekologikoak behartutako birmoldaketa produktiboak milaka lanpostu desagerraraziko dituen honetan, enplegua mantendu eta banatzearen auzia agendaren erdigunean kokatuko da.

Honela, langile mugimenduak enpleguarekiko harreman paradoxikoa izan duela esan dezakegu. Enplegu gehienena izaera alienantearen (eta askoren bideragarritasun ekologiko ezaren) kontzientzia izan badu ere, diru-sarrerak bermatzeko “beharrezko gaitz” gisa hartu izan du. Kontraesan hau da enpleguaren inguruko ohiko ikuspegi sindikalari egin zaion kritiketako bat eta, hortik tiraka, enplegua defendatu baino Kapitalaren logikatik at egongo den “lan autogestionatua” aldarrikatu izan dute batzuk, edota enplegutik deslotutako oinarritzko errenta unibertsalaren alde egin dute beste zenbaitek.

Alta, horrelako ekimenek ekarpen interesgarriak egin baditzakete ere (ekonomia sozial eraldatzailea kasu), gaur gaurkoz langile gehienek errealitatea enpleguarekin (eta zehazkiago, enpleguaren prekaritatearekin) du zerikusia eta, beraz, ez litzateke zentzuzkoa borroka-eremu hau uztea. Horren ordez, lan baldintzak negoziatzera mugatzen den eta sistemarekiko funtzionala den sindikalismo baino, ekoizpen eredu auzitan jarri eta ekonomiaren gaineko jabego publiko eta soziala aldarrikatuko duen kontraboterezko sindikalismo soziopolitikoa garatzea litzateke auzia. Enpresa pribatuaren mesedetan antolatutako enplegua baino, interes eta jabego publiko komunitarioaren arabera enplegua aldarrikatuz.

Ikuspegi enpleguzentrikoari egindako bigarren kritika nagusiena, enplegua posible egiteko ezinbestekoak diren baina era berean sistemari



D2

“dohainik” ateratzen zaizkion zaintza lanak behar bezainbeste aintzat hartu ez izana da. Azterketa marxistak aspalditik lan “produktiboa” bezala lan “erreproduktiboa” ere kontutan hartu badu ere, egiari zor bigarren honi ez zaio behar bezalako garrantziarik eman. Zorionez, 2018 eta 2019ko greba feministen ondotik, zaintza lanak eztabaidaren erdigunean kokatu dira, eta euskal sindikalismoak badu aukera arlo honetan izandako hutsunea erreparatzeko.

Enplegu gehienek izaera alienantearen (eta askoren bideragarritasun ekologiko ezaren) kontzientzia izan badu ere, diru-sarrerak bermatzeko “beharrezko gaitz” gisa hartu izan du.

Ekoiaren erredua auzitan jarri eta ekonomiaren gaineko jabe publiko eta soziala aldarrikatuko duen kontrabotereko sindikalismo soziopolitikoak garatzea litzateke auzia.

Azterketa marxistak aspalditik lan “produktiboa” bezala lan “erreproduktiboa” ere kontutan hartu badu ere, egiari zor bigarren honi ez zaio behar bezalako garrantziarik eman.



” D₂

Zaintzaren eremuan baldintza duinetako enplegu publiko gehiago sortu behar dira

ZAINZA LANEN HIRU DIMENTSIOAK

Zaintza lanen aferak, gutxienez, hiru dimentsio dauzka. Lehenengoa, sistema publikoaren azpigarapenari dagokio: gaur egun langile familien gain utzitako edota merkatu logikaren arabera garatzen diren zaintza lanetako batzuk, bereziki zaintza arreta espezifiko eta intentsiboa eskatzen duten egoerak, zaintza sistema publiko komunitarioak egin beharko lituzke. Alegia, zaintzaren eremuan enplegu (publiko) gehiago, eta baldintza hobetoetan, sortzea beharrezkoa da.

Bigarrenkoa, emakume langileek pairatzen duten

lan karga erantsia litzateke: emakumeek astean 38 ordu eskaintzen diete enplegu izaerarik gabeko zaintza lanei, gizonek baino 13 gehiago. Zaintza lanak era parekidean banatzeko eta gizonek dagokien ardura har dezaten erantzunkidetasun politika integralak beharrezkoak dira.

Hirugarren dimentsioak enpleguaren eremutik at utzi diren langileekin du zerikusia. Ikasleak kenduta, lan egiteko adinean dauden 257.000 pertsona daude populazio inaktibo gisa izendatuak; horien artean, 182.000 lagun (gehienak emakumeak) etxeko zaintza lanetan ari dira. Langile hauei guztiei enpleguak ematen duen

aitortza soziala, diru-sarrera eta autonomia pertsonala ukatzen zaie.

Gakoa litzateke, beraz, enpleguaren esferarekin batera zaintzaren esfera aintzat hartuko duen proposamen integrala osatzea. LABek osatutako Euskal Lan Kodearen proposamenean jaso da orain arteko formulaziorik borobilena: banaketa hirukoitza. Enplegua, zaintza eta errenta, hiru osagai hauen arteko harreman berria proposatzen da bertan.

Enplegua eta zaintza lan ez profesionalizatua, herritar guztioi dagozkigun bi lan parekidetzat jo behar dira, jendarteari egiten diogun

Emakumeek astean 38 ordu eskaintzen diete enplegu izaerarik gabeko zaintza lanei, gizonek baino 13 gehiago.

Enplegua, zaintza eta errenta, hiru osagai hauen arteko harreman berria proposatzen da LABen Lan Kodearen proposamenean.

Zaintza lanek dagokion lekua har dezaten, enpleguari eskainitako denbora murriztu beharra dago.

Enplegua eta zaintza lanarekin batera, errenta da banatu beharreko hirugarren aldagaia: langile guztiok 1.400 euroko gutxieneko soldata izango genuke bermatua.

bi ekarpen. Enplegua, administrazioak herritar guztxi bermatu beharreko eskubidea da eta, hala egin ezean, kotizatuko duen gutxieneko soldataren adinako kalteordaina ordaindu beharko du. Izan ere, enpleguaren bidez, sozialki beharrezkoak diren ondasun (elikagaiak, azpiegiturak, tresneria) eta zerbitzuak (hezkuntza, osasuna, zaintza profesionalizatua, oinarritzko gaien hornikuntza) sortzen ditugu.

Enplegu izaerarik gabeko zaintza lanen bidez, berriz, egunerokoan, gure inguru sozialean, bizitza sostengatzea ahalbidetzen dugu, bai gure etxean baita auzolanean ere. Zaintza lanek dagokion lekua har dezaten, enpleguari eskainitako denbora murriztu beharra dago (30 orduko lanaldia) eta zaintza lanaldiaren inguruko eztabaida soziala ireki: zaintza lanetan ere finkatu beharko litzateke gehienezko lanaldirik? Gutxienezkorik? Nola egin liteke zaintza lanaldiaren jarraipena?

Honekin batera, bizitzaren une batzuetan, zaintza lanak enpleguarekiko lehentasuna hartzeko aukera arautu beharra dago. Gaur egun soldatarik eta kotizatorik gabeko eszedentziaren aukera besterik ez dago; Euskal Lan Kodean, berriz, zaintzagatiko etetea hartzeko aukera legoke, osoki edo partzialki, beti ere borondatez eta erantzunkidetasunez. Zaintzagatiko lan hori ordainduko litzateke (eta kotizatu egingo luke), Euskal Herriko soldaten batz bestekoa adina (2021ean 2330 euro gordin 14 ordainsaritan). Zaintzagatiko etetea finantzatu ahal izateko zaintzarako funts komunitario solidario bat sortuko litzateke (enplegatuen kotizazioak, patronalarenak eta administrazioarenak).

Enplegua eta zaintza lanarekin batera, errenta da banatu beharreko hirugarren aldagaia:



langile guztiok 1.400 euroko gutxieneko soldata izango genuke bermatua. Diru-sarrerera hau enpleguaren bidetik jasoko badugu ere, “soldata” gisa, bere funtzioa aipaturako bi lan parekideak ordaintzea da: enplegua (lan produktiboa, terminologia klasikoan) eta enplegu izaerarik gabeko zaintza lanak (lan erreproduktiboa); izan ere, azken hau gabe ez bailitzateke enplegu jarduera posible izango. Honekin batera, 1:3 proportziora mugatutako gehieneko soldataren nahiz plusbaliaren mugapenaren bidez, ondasunaren banaketa bidezkoagoa bermatuko genuke.

Labur bilduz, enplegua erdigunean duen ikusmoldea gainditu eta banaketa hirukoitzaren aldeko borroka egituratzea da erronka, digitalizazioak nahiz larrialdi ekologikoak behartutako birmoldaketa produktiboak baldintzatutako testuinguruan.

Gizarte antolaketa berri bat

3

Erria

ARGAZKIAK: Foku

Covid-19aren testuinguruan azkartu egin dira kapitalismoaren askotariko krisiak. Testuinguru horretan eredu sozioekonomikoa, lan harremanak eta babes soziala birpentsatzeko herri ariketa egiteko gonbita egin du LABek bere azken programa sozioekonomikoan [2021], euskal jendartearen beharizanetatik abiatuz, bizitzak eta interesak defendatzeko sindikalismotik abiatutako eskaintza berritzailea eginez. Haien hitzetan, “*statu quoa* eta botere harremanak iraultzeko anbizioz egindako proposamena” da hau. Lau oinarrien gainean ardazten da: demokratizazioa, feminismoa, ekosozialismoa eta nazio garapena. Zeharka, hainbat dogma neoliberal ere borrokatzen ditu, lanen eta “laguntzen” ulerkera hegemonikoa irauliz. Horrez gain, euskal esparru sozioekonomikoa definitu eta sei eremu estrategikotan 120 neurri proposatzen ditu: lurra eta lurraldea, zaintza, osasuna, ezagutza, industria eta oinarritzko zerbitzuak. Neurri zehatzez harago, planteamenduaren filosofia ekarriko dugu mahai gainera, Euskal Herrirako egiten den gizarte antolaketa berri baterako apustuaren zertzelada nagusiak emanez.



35 ORDU SOLDATA

ELA • LAB • ESK • STE • ELA

D3

Euskal esparru sozioekonomikoa definitu eta sei eremu estrategikotan 120 neurri proposatzen ditu: lurra eta lurraldea, zaintza, osasuna, ezagutza, industria eta oinarritzko zerbitzuak.



AURREKARIAK SINDIKALISMOAN

Eztabaidarako proposamen hau, noski, ez da hutsetik abiatzen. Euskal Herriko aldaketa sozial eta politikoa burujabetzan ardaztu behar denez gero, euskal sindikalgintzak paper garrantzitsua jokatu izan du azken hamarkadetan bide horretan. Duela 25 urte bide horri ekiteko ezinbesteko pausua eman zuten bi sindikatu nagusiek, Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren aldarrikapen bateratuarekin. Testuingurua gaurkoaren oso bestelakoa zen. Izan ere, desindustrializazio betea zen, Maastricht-eko Ituna sinatu berria zen eta gatazka politikoa bere gordinean zegoen, Estatuak hura konpontzeko inongo asmorik agertzen ez zuelarik. 80-90 hamarkadetan eman zen industria birmoldaketak 170.000 lanposturen galera ekarri zuen Hego Euskal Herrira. Eta erabakiak Madrilén hartzen ziren bitartean, EAJk Estatuaren markoa erabiltzen zuen klientelismoan oinarritutako politika sozial eta ekonomikoak aurrera eramateko.

Aurrekoak ahalbidetu zuen, hain zuzen, egoera horri erantzuteko LAB eta ELAren arteko elkarlana. Izan ere, 1992ko lan-erreformaren kontrako greba orokorrean ekintza-esparru estatalarekin apurtu zuten bi sindikatu nagusiek. Hori izan zen 1994ko lan harremanen esparru propioaren aldeko manifestazio historikoaren aurrekaria.

Duela 25 urte bide horri ekiteko ezinbesteko pausua eman zuten bi sindikatu nagusiek, Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren aldarrikapen bateratuarekin.

Lan Harremanen Euskal Esparruak, finean, euskal gizartearen beharretara egokitutako espazio ekonomiko eta soziala eraikitzea planteatzen zuen, proposamen jakin batzuekin.

Lan Harremanen Euskal Esparruak, finean, euskal gizartearen beharretara egokitutako espazio ekonomiko eta soziala eraikitzea planteatzen zuen, proposamen jakin batzuekin: Euskal Herriko erakundeek lan eta gizarte babes arloko legeak eratu eta aplikatu zitzaizkien; ekonomia eta gizarte politiketarako tresnak, eta gizarte segurantzako konpetentziak, Euskal Herriatik gestionatu zitezkeen; eta hitzarmen kolektiboak kanpoko inongo esku-sartze gabe negoziatu ahal zitezkeen.

Abiapuntua jarrita zegoen, eta sindikatuak langileen eskubideak bermatu, aberastasuna eta lana banatu eta gizarte antolaketa justuago bat eraikitzeko proposamen berriak artikulatzen jarraitu zuten. Hain zuzen, 1999. urtean 35 lanorduko astea aldarrikatzeko kanpaina abiatu zuten LABek eta ELAk, maiatzaren 21erako greba orokorra deituz. 2005ean LABek Programa Sozioekonomikoa aurkeztu zuten, burujabetza sakondu eta eraikuntza nazionala eduki sozialez betetzeko asmoz, Rafa Diez orduko idazkari nagusiak esan bezala.



Europa osoan eztabaida bizia dago eta proposamen ugari eta, denek ala denek, helburu berbera dute: jendarte antolaera sektore herritar zabalen beharrianetara eraldatzea.

Lan izaera ez duten zaintza lanekin bizitza eta ingurune soziala zaindu eta sostengatzen da, baina lan horiek ez daude ongizate sozialaren eragile gisa onartuak.



2008KO KRISIA ETA PANDEMIAREN TESTUINGURUA

Orduz geroztik hamarkadak pasa dira eta gizarte eredu aldaketaren premia are nabarmenagoa egin da. Europa osoan eztabaida bizia dago eta proposamen ugari: lanordu murrizketa graduala (30 ordu) soldata galdu gabe; sindikatuen papera birdefinitzea eraldaketa sozialaren ikuspuntutik; patronalaren eta sindikatuen arteko botere harremana aldatzea (negoziazio kolektibo sektoriala berreskuratzuz); soldata minimoa igotzea pobrezari aurre egiteko; lanak demokratizatu eta banatzea; errenta unibertsala ezartzea; BPGa indikadore berriekin (ekologikoak, sozialak, kulturalak...) birdefinitzea, giza ongizatea gaurko krisien eta giza beharren arabera ulertuz... Denek ala denek, helburu berbera dute: jendarte antolaera sektore herritar zabalen beharrianetara eraldatzea.

Izan ere, neoliberalismoak azken hamarkadatan pribatizazioa eta prekarizazioa eremu guztietara zabaldu

du, langileon eta herritarron bizitzak prekarizatu eta eskubideak murriztuz. Krisien aroan bizi gara, zaintza krisia, ekonomikoa, soziala, kulturala, migratzailea... bata besteari eragin eta biderkatzen diren krisiak bizi ditugu gaur. Batetik, sexu-genero sisteman oinarritzen den eredu sozioekonomikoan emakumeon* zapalkuntza eta bazterketa izugarria dago, genero arrakala handia eta zaintza lanak ezkutaturik daude. Hego Euskal Herrian bakarrik, 257.000 pertsona ez-aktibo daude, horietatik 182.000 etxeke lanetan ari direlarik. Lan izaera ez duten zaintza lanekin bizitza eta ingurune soziala zaindu eta sostengatzen da, baina lan horiek ez daude ongizate sozialaren eragile gisa onartuak.

Bigarrenik, enpleguari begira, Hego Euskal Herrian gaur egun 150.000 langabe daude, populazio aktiboaren %11. Horrez gain, gutxiengo eta gehienezko soldaten arteko arrakala handitu egin da azken urteotan, eta plusbalioari ez zaio inongo mugarik ezartzen, aberastasuna

gizartera bideratu beharrean gutxi batzuen eskuetara ihes egiten duelarik. Sortzen den aberastasunaren banaketa elite ekonomiko nagusien esku badago, nekez eraiki daiteke bizitza erdigunean jarriko duen eredu ekonomikorik. Hirugarrenik, larrialdi klimatikoak eta desastre ekologikoak (muga biofisikoak) langileontzako ondorio ezkorrak baino ez ditu ekarri. Izan ere, planetaren beraren biziraupena da gaur jokoan dagoena, eta horrek, gizarte eredu osoaren antolaketa birpentsatzera eramaten gaitu. Alegia, igogailu sozialak mugak izan behar ditu, planetaren sostengarritasunari eta gehiegizko kontsumoari begira.

Laugarrenik, Euskal Herrian bizi den edo bizitzeko asmoa duen herritar askok eta askok ez dute herritartasuna bermatua, jatorri anitzeko langileen jazarpenean oinarritutako migrazio politika bortitzean bizi baitira. Bosgarrenik, demokrazia partehartzailearen krisi sakona bizi dugu, kapitalaren botereak baldintzatutako demokrazia

Gutxieneko eta gehieneko soldaten arteko arrakala handitu egin da azken urteotan, eta plusbaliari ez zaio inongo mugarik ezartzen.

Planetaren beraren biziraupena da gaur jokoan dagoena, eta horrek, gizarte eredu osoaren antolaketa birpentsatzera eramaten gaitu.

parlamentario formala demokrazia partehartzaile eta lekututik gero eta urrunago dagoelarik (EAJk udalen gainetik “proiektu estrategikoak” inposatzeko onartutako Tapia Legea kasu). Eta azkenik, eredu sozioekonomiko berri baten eraikuntza nazioarteko maila duen auzia da, baina herri bakoitzetik abiatuta egin behar da, Euskal Herria izanik eredu sozioekonomiko, demokratiko, feminista eta ekosozialista eraikitzeke lurralde eskala.

Auzi guzti horiei erantzuten saiatzen da LABen programa sozioekonomikoa.

Eredu sozioekonomiko berri baten eraikuntza nazioarteko maila duen auzia da, baina herri bakoitzetik abiatuta egin behar da, Euskal Herria izanik eredu sozioekonomiko, demokratiko, feminista eta ekosozialista eraikitzeke lurralde eskala.



BANAKETA HIRUKOITZA: LANA, ZAINTZA ETA ABERASTASUNA

Bizitzak erdigunean jarriko dituen eredu sozioekonomiko berria inoiz baino beharrezkoagoa dela argi dago. Eta hori da proposamen sozioekonomiko honek egiten duena: azken hamarkadan lanen, lanorduen, zaintzaren, aisiaren eta prekarietatearen inguruan sortutako aldaketa estruktural, eztabaida eta eragile desberdinen proposamenak jaso eta Euskal Herrian eta baita mundu mailan irekitzen ari diren eztabaida desberdinei bere aletxoak jartzen die. Ez da gutxi. Eta halere ez da horretara mugatzen. Funtsean, “bizitzak erdigunean” leloari gorputza eta programa sozioekonomiko konkretu bat jartzen dio, euskal eskalatik eginga (lurralde administrazioen asimetriatik abiatuz), lan kode bat eta gizarte segurantzarako proposamen bat mahaigaineratuz.

Proposamenaren bihotzean lanaren banaketa hirukoitza dago: lana, zaintza eta

ondasunak. Lanari dagokionez, enpleguaren berrantolaketa oso bat planteatzen du proposamenak, murrizketa orokor baten alde eginez eta 30 orduko lanordua finkatuz, gutxienez bi eguneko deskantsu jarraitua bermatuz. Zeri erantzuten dio murrizketa horrek? Hiru auziri: Lehena, zaintza lanetarako denbora izatea, zaintza lanaren berrantolaketa osoa eginez, esparru hori publiko komunitarioa bilakatzuz; edonoren zaintza beharrak sistema publiko komunitarioak asetu beharko lituzkeelarik. Bigarrena, enplegua banatzea litzateke, eta, hirugarrena, trantsizio ekosozialistarako eta produkzio murrizketarako laguntzea.

Baina lanaren esparruan, enplegua eta enplegua ez den lana (zaintza, lurra, komunitatea...) bereiztu behar dira lehenik, bigarrena jendarte justu eta sostengarri baten eraikuntzan egiten den lana dela aitortuz. Hemen pizten

da eztabaida: zenbateraino arautu edo zehaztu behar da bigarrena? Eztabaida sozialaren beharra azpimarratzen da proposamenean. Dena dela, zaintza lanak ordainduak izatea proposatzen da, eta hori finantzatzeko funts publiko bat sortzea.

Bestalde, lana banatu behar den bezala, aberastasuna banatu behar da ere. Zerbitzu eta baliabide publikoak, zaintza barne, doan jaso behar dira, eta doakoak ez diren ondasunak eskuratzeko soldata bat egon behar da. Zeren truke? Soldata horrek enpleguari eta zaintza lanari erantzungo lioke. Izan ere, administrazio publikoak guztioi bermatu behar digu enplegua (enplegu bermatua), eta egiten ez duen bakoitzean kalte ordain bat eman behar digu. Diru laguntzaren logika neoliberalak aldatzen da, beraz; estatuak ez digu ezertan “laguntzen” (laguntza merezi duzun ala ez legez zedarrirituz), alderantziz, lana ez bermatzeagatik kalte ordaina



ematen dizu. Horrez gain, langile guztientzako erregimen berbera izatea aldarrikatzen da proposamenean, langile zatiketari aurre eginez, hala nola, gutxieneko eta baita gehieneko soldata ezartzea, langileen arteko dualizazioa moztu eta banaketa hirukoitza gehienezkoa ezarritz.

Proposamen guzti horietarako trantsizio baten proposamena luzatzen du programa sozioekonomikoak bere azken orrietan. Eredu zaharretik berrirako trantsizioan, autonomien estatu-eredua gaintzeko beharra ageri da. Hori dela eta, trantsizio horretan, EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herrirako Lan kode eta Gizarte Segurantza legeak proposatzen ditu LABek.

Bizitzak erdigunean leloari gorputza eta programa sozioekonomiko konkretu bat jartzen dio, euskal eskalatik egina.

Lanaren esparruan, enplegua eta enplegua ez den lana (zaintza, lurra, komunitatea...) bereiztu behar dira lehenik, bigarrena jendarte justu eta sostengarri baten eraikuntzan egiten den lana dela aitortuz.

Administrazio publikoak guztioi bermatu behar digu enplegua (enplegu bermatua), eta egiten ez duen bakoitzean kalte ordain bat eman behar digu. Diru laguntzaren logika neoliberalak aldatzen da.



**LAN HARREMANETARAKO
EUSKAL ESPARRUA BEHAR DUGU**

- Euskal Herriko autonomi erakundeek lan eta gizarte babes arloan legeak eman ahal ditzaten.
- Ekonomi eta gizarte politikarako beharrezko tresnak, hala nola gizarte segurantzako kompetentziak, enplegua-INEM, eta lanbide heziketa Euskal Herriak gestiona ahal dituzten.
- Gure hitzarmen kolektiboak Euskadin eta inongo eskusartze arrotzik gabe negoziatu ahal dituzgun.

Beraz, lan harremanen euskal esparruak euskal gizartearen interes eta beharrezko araberako espazio ekonomiko eta sozial bat eraikitzeko aukera izateko balio behar du.

ELA
EUSKADIKO SINDIKATOA

LAB
Langile abertzaleen batzordeak

BILBON. SDO.CORAZON. arratsaldeko 5'30etan. OTSAILAK 19.

MANIFESTAZIOA

LAB sindikatuak egiten duen planteamendu orokorrak eztabaida nazional bat pizteko asmo osoa daukala dirudi.

Prisma horretatik irakurtzen badugu, gizarte antolaketa berri baterako eztabaidarako itu zuzenak markatzen dizkigula antzemango dugu.



Goian LABen Proposamen Sozioekonomiko berrituaren aurkezpena Eusko Legebiltzarraren aurreran. Behean, 2005eko Proposamen Sozioekonomikoaren aurkezpena.



BIZITZA ERDIGUNEAN FILOSOFIA ARDATZ

Proposamen sozioekonomiko honek, esan bezala, Lan Kode eta Euskal Herriko Gizarte-Segurantza Babeserako proposamen zehatza jartzen du mahai gainean. Gutxieneko soldata bermatzea, bost eguneko eta 30 orduko lan-astea, behin-behinekotasunaren bukaera, enplegu duina, erretiroa 60 urterekin hartzea, lan egiteko egutegi “propio eta laikoa”, pentsio duinak, laneko segurtasun eta osasuna, lan guztien onarpena eta banaketa (zaintza lanak kontuan hartuz)... Proposamenaren titularretan gera gaitzeko. Baina hori baino askoz gehiago da hausnarketaren abiapuntua eta jomuga: gizarte antolamendu berri batez ari gara.

LAB sindikatuak egiten duen planteamendu orokorrak eztabaida nazional bat pizteko asmo osoa daukala dirudi. Zaintza mahai bat eratu behar ote da? Mugimendu feministak hartu zuen orduan iniziatiba, auzi baten proposamen konkretua mahaigaineratuz. Kasu honetan, LABek lanen bertsifikazio oso baten planteamendua egiten du, eta galdera eta paradigma berriak pausatzen ditu mahai gainean.

Programa osoaren filosofia eztabaida sozialerako tresna izatea dela dirudi, alegia, ez da programa kategoriko itxi bat. Eta prisma horretatik irakurtzen badugu, gizarte antolaketa berri baterako eztabaidarako itu zuzenak markatzen dizkigula antzemango dugu. Heldu diezaiozun, bada, eztabaidari.

Trantsiziorako proposamenak

Lan duina

Gutxieneko soldata, 35 orduko gehienezko lanaldia eta 20 orduko gutxienekoa, subrogazio eskubidea, enpleguaren bermatzea, lan-eremuaren euskalduntzea...

Langile klasea berrosatzea

Etxeko langileen erregimen berezia desagertzea, kultur langileentzako estatutu propioa, ekonomikoki menpeko diren autonomoen figuren desagerpena, aniztasun funtzionala duten langileen eskubide subjektu izatea, espexxetan egon diren pertsonen prestazioa, zaintza lanak dohainik egin dituzten emakumeen aitortza...

Diskriminazioari aurre egitea

Aukera berdintasun planak, diskriminazioari aurre egiteko kontratazio proposamena...

Euskararen normalizazioa

Euskalduntze prozesuak eta euskara planak...

Pentsio publiko eta duinak

Bizi duina

Babes soziala bermatu eta zerbitzu publikoak indartu: hezkuntza sistema, osasungintza, gizarte zerbitzuak, garraio publikoa, energia eta ura, zaintza, etxebizitza eskubidea, elikadura osasuntsu eta burujabea...

Reivindicaciones obreras en los programas de izquierda



Isidro Esnaola
Economista

La crisis de 2008 y la posterior depresión cambió por completo la perspectiva que la gente tenía sobre la sociedad en la que vivimos y sobre el futuro que nos espera. La globalización y los dogmas neoliberales que la sustentan empezaron a ser vistos como un sistema que lo único que hacía era más ricos a los ricos y más pobres a todos los demás. En ese contexto, la lucha contra la desigualdad y la precariedad pasó a convertirse en una prioridad y la clase obrera volvió a recuperar protagonismo político en los discursos de algunos líderes de la izquierda.

En este artículo repasaremos someramente las principales reivindicaciones planteadas al calor de este cambio de perspectiva. Especialmente significativos han sido los discursos del laborismo inglés, durante el periodo en el que fue liderado por Jeremy Corbyn, y del candidato del ala izquierda del Partido Demócrata estadounidense a la presidencia del país, el senador Bernie Sanders. Asimismo, hemos incluido las propuestas de Más País, que mantiene aspectos comunes con los anteriores y algunas diferencias importantes.



RESPECT
Workers
The US, China
The Philippines

D4

Foto: Annette Bernhardt, CC BY-SA 2.0

La globalización y los dogmas neoliberales que la sustentan empezaron a ser vistos como un sistema que lo único que hacía era más ricos a los ricos y más pobres a todos los demás.

«Fue el movimiento sindical el que construyó la clase media en este país, y es el movimiento sindical el que va a reconstruir la clase media en Estados Unidos una vez más».

LA IMPORTANCIA DE LOS SINDICATOS

La primera frase del programa de Bernie Sanders ya es toda una declaración de intenciones: «fue el movimiento sindical el que construyó la clase media en este país, y es el movimiento sindical el que va a reconstruir la clase media en Estados Unidos una vez más». Un enunciado que ha sido repetido en al menos un par de ocasiones por el actual presidente, Joe Biden, y que refleja la importancia que atribuye el equipo de Sanders a la organización de los trabajadores y al activismo laboral como instrumentos para la transformación social. Una visión que también impregna las propuestas concretas de

su programa. Asimismo, esta idea está muy presente en el programa del laborismo de Corbyn, donde las referencias al sindicalismo son frecuentes.

Tanto Corbyn como Sanders hacen especial hincapié en «rebalancear el poder» entre sindicatos y patronal. Sanders plantea una serie de cambios para facilitar la implantación de sindicatos en las fábricas, simplificando el procedimiento y eliminando muchas de las trabas legales existentes en EEUU. De hecho uno de los objetivos que planteaba para su mandato presidencial era nada más y nada menos que doblar la afiliación sindical. Considera, además, que el derecho de los



Sanders plantea una serie de cambios para facilitar la implantación de sindicatos en las fábricas, simplificando el procedimiento y eliminando muchas de las trabas legales existentes en EEUU.

trabajadores a unirse y negociar mejores salarios, beneficios sociales y condiciones de trabajo ha sido seriamente minado y es la principal causa de crecimiento de la desigualdad y de la desaparición de la clase media. Dicho de otra forma, la destrucción de los derechos de los y las trabajadoras y el debilitamiento de su organización es la principal razón de la inequidad.

En esa misma línea, el programa laborista de Corbyn señala explícitamente que la mejor forma de hacer valer los derechos de las y los trabajadores es con sindicatos fuertes. La inspección de trabajo, por ejemplo, tiene una importante labor que cumplir, pero considera a los sindicatos la clave. En este sentido, su posición se aleja de la reflejada por el programa de Más País en el que, por ejemplo, se enfatiza más la necesidad de que Inspección de trabajo redoble sus esfuerzos persiguiendo el fraude.

En relación con los sindicatos, todos los programas, incluido el de Más País, hacen hincapié en recuperar la negociación colectiva sectorial, cuyos acuerdos deben servir como referencia imprescindible a aplicar en todas las empresas del sector. Todos los programas coinciden, asimismo, en que el sindicalismo es la clave para que los salarios crezcan, disminuya

la precariedad, mejoren las condiciones de trabajo y se reduzca la brecha salarial de género, entre otros aspectos. A partir de ahí, cada Estado tiene su propia regulación sindical y sus propias normas para la negociación colectiva, lo que introduce un gran número de especificidades. Por ejemplo, en el Estado español, Más País subraya la necesidad de que los convenios recuperen la ultraactividad perdida en la última reforma laboral.

La destrucción de los derechos de los y las trabajadoras y el debilitamiento de su organización es la principal razón de la inequidad.

En relación con los sindicatos, todos los programas, hacen hincapié en recuperar la negociación colectiva sectorial, cuyos acuerdos deben servir como referencia imprescindible a aplicar en todas las empresas del sector.

» D4



Foto: Fibonacci Blue, CC BY 2.0

EL SALARIO MÍNIMO

Definir un salario mínimo es otra de las reivindicaciones recogidas en los tres programas electorales. Una reivindicación que refleja hasta qué punto el trabajo precario convive con la pobreza en los países industrializados. Más País plantea tomar como media el 60% del salario medio, 1.150 € en 2018, y llegar a los 1.200 al final de legislatura. Recuerda que la subida hasta los 900€ no provocó una caída del empleo. Y es que tanto la patronal como

Tanto la patronal como el Banco de España han hecho de los salarios bajos el puntal de un modelo económico de baja calidad que no permite a los trabajadores unas condiciones de vida dignas.

el Banco de España han hecho de los salarios bajos el puntal de un modelo económico de baja calidad que no permite a los y las trabajadoras unas condiciones de vida dignas.

En los otros dos casos, el salario mínimo se plantea por hora trabajada. Bernie Sanders llevó esta misma primavera una propuesta para que alcanzara los 15\$ por hora, pero fue rechazada en el Senado estadounidense. De la misma forma, el programa de Corbyn recoge un salario de 10 libras la hora para todos los trabajadores por encima de los 16 años. En Gran Bretaña, el salario mínimo difiere según la edad del trabajador y el laborismo propone un único salario mínimo para todas las trabajadoras. En el último congreso anual de los laboristas celebrado recientemente se planteó subir el mínimo hasta las 15 libras, pero la propuesta no obtuvo respaldo suficiente para ser aprobada.

En todos los casos, la subida del salario mínimo se plantea como una medida que busca evitar la pobreza. En este aspecto el programa de Corbyn es bastante explícito. Remarca que hay alrededor de 14,3 millones de pobres en Gran Bretaña, y más de nueve millones viven en familias en las que al menos una persona trabaja. Este enorme aumento de trabajadoras y trabajadores pobres hace que los salarios dignos sean una reivindicación especialmente relevante para terminar con la penuria cada vez más extendida a causa de la precariedad.

La subida del salario mínimo se plantea como una medida que busca evitar la pobreza.

Cada vez más evidencias apuntan a que reducir la jornada laboral en sí ya aumenta la productividad, puesto que se recortan las horas menos productivas como consecuencia, fundamentalmente, del cansancio acumulado.

LA REDUCCIÓN DE LA JORNADA

La semana laboral de 32 horas o de cuatro días se recoge explícitamente en el programa de Más País. De hecho esta ha sido su principal bandera. No se profundiza mucho en su implementación práctica. Simplemente plantea que se introduzca de forma gradual y negociada, y sin pérdida de salario. Justifican la medida señalando que el cambio tecnológico permite aumentar la productividad, sin embargo, cada vez más evidencias apuntan a que reducir la jornada laboral en sí ya aumenta la productividad, puesto que se recortan las horas menos productivas como consecuencia, fundamentalmente, del cansancio acumulado. Por tanto, dependiendo del modo en el que se aplique esta medida, semana laboral de cuatro días o 32 horas en cinco días, los efectos sobre la productividad del trabajo también variarán.

Asimismo, la forma en que se introduzca esta medida repercutirá en el modo en que se irán repartiendo las labores productivas y reproductivas.



Lo más probable es que una semana de cuatro días no ofrezca muchas posibilidades para un reparto más equitativo de las tareas reproductivas y de cuidados, mientras que la reducción de la jornada laboral puede más fácilmente permitir otra distribución de tareas a lo largo del día.

La reducción de jornada fue una reivindicación clave del sindicalismo vasco, que Herri Batasuna puso en práctica en algunos ayuntamientos con el establecimiento de la jornada de 32 horas, pero que desgraciadamente ha perdido centralidad debido, sobre todo, al avance de la precariedad y los bajos salarios que obligan a trabajar, no menos, sino más. Posiblemente esa sea una de las razones por las no haya un planteamiento concreto de reducción de jornada en el programa de Sanders, mientras que el laborismo de Corbyn si apuesta por ir reduciendo progresivamente la semana laboral hasta las 32 horas.

La propuesta de Bernie Sanders refleja una preocupación por los trabajadores más precarios que antes de empezar a pensar en reducir la jornada, necesitan recibir un sueldo digno que les permita vivir de su trabajo. Posiblemente las diferencias en la cobertura social entre Europa y EEUU sea la causa de este enfoque. A los y las trabajadoras sindicadas con contratos fijos y una situación

Lo más probable es que una semana de cuatro días no ofrezca muchas posibilidades para un reparto más equitativo de las tareas reproductivas y de cuidados, mientras que la reducción de la jornada laboral puede más fácilmente permitir otra distribución de tareas a lo largo del día.

Ha perdido centralidad debido, sobre todo, al avance de la precariedad y los bajos salarios que obligan a trabajar, no menos, sino más.

A los trabajadores sindicados con contratos fijos y una situación económica más holgada les puede resultar atractiva la idea de una reducción de jornada mientras que para los precarios estadounidenses sin prácticamente prestaciones sociales la clave está en ganar lo suficiente para vivir.

económica más holgada les puede resultar atractiva la idea de una reducción de jornada mientras que para las personas precarias estadounidenses sin prácticamente prestaciones sociales la clave está en ganar lo suficiente para vivir.



D4 JJ

La propuesta de trabajo garantizado busca mejorar la ocupación general de las personas con capacidad de trabajar y al mismo tiempo trata de que ello no suponga un obstáculo al desarrollo de proyectos empresariales privados.



Foto: Hush Naidoo Jade, Unsplash

LA RENTA BÁSICA

Con la renta básica ocurre algo similar a lo que ocurre con la jornada laboral. Más País plantea poner en marcha un proyecto piloto de Renta Básica Universal e Incondicional, algo que también recoge el programa electoral de Jeremy Corbyn. En un plano un poco más práctico propone una renta garantizada de 600 € para todas aquellas personas que no lleguen a esos ingresos y que sería corregida en función del número de miembros de la unidad de convivencia hasta un máximo de 1.200€. Para aquellas que tengan algún ingreso, la prestación les complementaria. Como señala en su programa Más País, «una sociedad con más tiempo garantizado y con más garantías, es una sociedad más libre y democrática».

Entre las propuestas de Bernie Sanders no aparece la cuestión de la renta universal. Posiblemente en este caso también sea debido a las profundas diferencias en el desarrollo de la protección social y el estado de bienestar entre el viejo continente y EEUU. Una renta universal, por generosa que sea, de poco servirá a un trabajador o trabajadora en un país en el que hay que pagar por prácticamente todo. El programa de Sanders hace más hincapié en el pleno empleo. Incluye la propuesta llamada trabajo garantizado que busca que todas las personas en condiciones de trabajar puedan tener un trabajo con un sueldo decente. Propone crear empleos en la reconstrucción de las infraestructuras del país, en la construcción de nuevos sistemas



Foto: Jeremy Corbyn, CC BY 2.0

energéticos 100% sostenibles. Otra línea serían los empleos comunitarios relacionados con la enseñanza y los cuidados: educación infantil, atención a las personas mayores, etc.

La propuesta de trabajo garantizado ha sido desarrollada en profundidad por el equipo de Sanders. A grandes rasgos, se plantea que tenga financiación federal pero que sean las entidades locales las que organicen la oferta de puestos de trabajo en función de las necesidades locales. Plantea un salario mínimo de modo que si la demanda de trabajadores y trabajadoras aumenta en el sector privado, las personas puedan tener también un incentivo para dejar el trabajo público y optar a un puesto de trabajo en el sector privado. De

este modo, el sector privado conseguiría contratar a nuevos y nuevas trabajadoras siempre que mejorara esa oferta de pública de mínimos.

La propuesta de trabajo garantizado busca mejorar la ocupación general de las personas con capacidad de trabajar y al mismo tiempo trata de que ello no suponga un obstáculo al desarrollo de proyectos empresariales privados. Una iniciativa que combina el trabajo comunitario y el deber cívico de aportar a la sociedad con los necesarios equilibrios macroeconómicos para que la estructura económica no colapse.

D4
J J


UNA NOTA FINAL

Ya desde el título los programas reflejan bastante bien las prioridades de cada uno de ellos. En primer lugar, el más aséptico de todos es el de Más País que lleva el nombre de “Empleo digno y de calidad”. Un enunciado en el que no hay rastro de conflicto y que sugiere todo se puede solucionar fácilmente, solamente con tocar las palancas adecuadas; como si fuera una cuestión más técnica que política.

El laborismo de Corbyn denomina el apartado “Enfrentando la pobreza y la desigualdad”. Un título que explícitamente se refiere a las injusticias sociales existentes en la sociedad actual y que son el objetivo a combatir. Además, connota cierta necesidad de contrarrestar, de oponerse al actual estado de las cosas, de luchar, en coherencia con su apuesta por revitalizar los sindicatos y la negociación colectiva.

Por último, el programa de Sanders se llama “Plan para democratizar el puesto de trabajo”, un título que pone el acento sobre todo en la transformación social que traerá consigo otro tipo de relaciones laborales. Enfatiza la importancia de caminar hacia una sociedad nueva, diferente y más democrática. Mientras Errejón confía en la capacidad y la competencia, Corbyn se encomienda a la lucha obrera y Sanders apuesta por otro modelo social.

Mientras Errejón confía en la capacidad y la competencia, Corbyn se encomienda a la lucha obrera y Sanders apuesta por otro modelo social.




Herri Batasunaren proposamena: “Iana banatu, ondasuna banatu”

Erria


ARGAZKIAK: Foku

Azken hamarkadan eta, batez ere, azken urteetan, ezker globalean hausnarketa eta proposamen berriak garatzen ari dira gizarte antolamendu berri baten inguruan. Besteak beste, lanaren eta aberastasunaren banaketa, asteko lanorduen murrizketa, langileen eskubideen berreskurapena patronalaren aurrean, errenta unibertsalaren defentsa, etxebizitza eskubidearen bermea eta beste hainbat ardatzen inguruko gizarte antolaketa eredu berriak mahaigaineratzen ari dira. Dossier honetan LABen proposamen sozioekonomiko berria eta munduko proposamen desberdinak aurkituko dituzue, gaurkotasunari lotuak. Erreportaje honetan, aldiz, bi hamarkada atzera egin nahi izan dugu, Herri Batasunak 1998an langabeziari eta bazterketa sozialari aurre egiteko planteamendua gogora ekarriz, garaian berritzailea izan zena, eta puntu askotan, tamalez, gaurkotasuna galdu ez duela pentsatzen baitugu.

Premiazko
neurriak
ingabeziari
etxebazterketa
sozialari
erre egiteko



lana
BANATU



GIZA
solidata
OKORRA



ALOKAIRUZKO
etxebizitza
PUBLIKOA

D5”

90eko hamarkada bukaeran langabezia altua zen Euskal Herri osoan eta lanaren eta aberastasunaren eztabaidak eragile sozial eta politiko guztiak interpelatu zituen.



LANALDIA MURRIZTU? ADMINISTRAZIOA, SINDIKATUAK ETA PATRONALAREN POSIZIOA

90eko hamarkada bukaera aldera lanaren banaketari dagokion eztabaidak garrantzia handia hartu zuen Europako zenbait herrialdetan. Izan ere, 80ko hamarkadatik aurrera izandako hazkunde ekonomikoaren ondorioz, gehien dutenen eta gutxien dutenen arteko arrakala zein genero arrakala ekonomiko eta soziala handitzen joan zen. 90eko hamarkada bukaeran langabezia altua zen Euskal Herri osoan eta lanaren eta aberastasunaren eztabaidak eragile sozial eta politiko guztiak interpelatu zituen.

Hego Euskal Herrian planteamendu desberdinak jarri ziren mahai gainean arazoari irtenbidea eman nahian. Ramon Jauregui Gasteizko Gobernu Lan-Kontseilariak, lana banatzeari buruzko hamar neurri planteatu zituen, aparteko lanorduak pixkanaka murriztea, ordutegiak malgutzea, zatikako jardunaldiak sustatzea, errelebo kontratuak bultzatzea, pizgarri fiskalak ematea... Finean, plan horretan "taxuera liberaleko jardunbidea" zuen administrazioak, eskuhartzeko zorrotza edo legearen arabera arautzetik urrun geratzen baitzen. Izan ere, "zatikako denborak soldatapekoen kategoria desberdinen

D5”

estatutu soziala birdefinitu eta, enpresaren barrunbean, sexuen arteko aldean mugak nabarmendu egiten du, Europako herrialde ugarritan zatikako denborako lana emakumezkoak egiten duelako.”

Eragile sindikalen eta patronalaren iritziak desberdinak ziren. Confebask lanaren banaketaren aurka agertzen zen. Estatuko bi sindikatu nagusiek, CCOO eta UGT, posizio desberdina zuten. CCOO helburu gisa Europako Sindikatuen Konfederazioak egindako proposamen orokorra onartzen zuen arren, —asteko 35 lanorduko jardunaldiaren barruan, lau lanegun eta 32 lanordurako bidean segitzea—, patronalaren jarrera ikusita bideraezina ikusten zuen planteamendua. UGT, aldiz, alde agertzen zen, lanaren murrizketak soldaten murrizketa ekarri behar ez zuela iritzita. ELA eta LABen iritzia lanaren banaketaren aldekoa zen. 1995ean aurkeztu zuen LABek proposamen zehatz bat, lanaren banaketa eta aberastasunaren banaketa loturik daudela printzipiotzat hartuta. 1996ean, hainbat kolektibok suspertutako Eskubide Sozialen Kartak bi proposamen zehatz jarri zituen mahai gainean: EAEko administrazio Publikoaren baitan lana banatzea eta oinarritzko errenta bat ezartzea.

Estatu frantsesean, 80ko hamarkadatik langabezia igo eta igo ari zen eta soluziobide bat eman beharra zegoen. 1994 zein 1997ko hauteskunde kanpainen, Chirac eta Jospin hautagaiek lanaldia asteko 37 ordutara murriztea planteatu zuten, soldata jaitsiera eragin gabe. Baina azkenean, 1996an onetsitako Robin Legeak, lana sortzeko 35 orduko lanaldiaren orokortasuna erantsi zuen. Soldataren jaitsiera konpentsatzeko enpresak produktibitatearen igoeran parte hartze planak egitea proposatzen zuen, besteak beste. Dena den, 1997an Aubry Legea sortu zen, 2000 urteaz geroztik 35 orduko lanaldia ezarri, baina Aubry II legeak ordezkatu zuen, 2002tik aurrera “lana gehiago egitea gehiago irabazteko” kontsigna ezarri, lana murriztearen logika bazter batean utziz. *Agir ensemble contre le chômage!* (AC! edo “elkarrekin langabeziaren kontra jardutea”, alegia) mugimenduak lanaldi-murrizketaren proposamen zehatza eta osoa egin zuen, hastapenean 35 ordura eta geroago 32 ordura jaisteko, soldata murrizketa gabeko planteamendua eginez. Estatu frantseseko esperientziak ez zuen aurrera egin, eta ekonomialari liberalek zein estatu alderdiek “hazkunde ekonomikoaren” beherakadaren aitzakia jarri zuten.

ELA eta LABen iritzia lanaren banaketaren aldekoa zen. 1995ean aurkeztu zuen LABek proposamen zehatz bat.

Estatu frantseseko esperientziak ez zuen aurrera egin, eta ekonomialari liberalek zein estatu alderdiek “hazkunde ekonomikoaren” beherakadaren aitzakia jarri zuten.

LANAREN ETA ABERASTASUNEN BANAKUNTZA

Eztabaidarako txostena




98-1-12

EGUNGO GIZARTE EREDUA	GURE GIZARTE EREDUA
Intsolidariora	Elkartasunean oinarritua
Aberastasuna gutxien esku eta bikoizketa soziala	Aberastasuna banatzea
Burokrazia, itzurazko demokrazia	Gizartean esku hartzea, zuzeneko demokrazia
Errentagarritasun eta produktibitate, kosta ahala kosta	Bizi-kalitatea
Produzioaren biketa gune zentraletan	Tokian tokiko baliabideak erabiltzea; eskala txikia
Edozeren gainetik ekonomia	Ekonomia, Euskal Herriko gizarte, kultura eta hizkuntzaren garapeneren mendea.
Imperialismo politiko, ekonomiko eta kulturala	Aniztasun politiko, ekonomiko, sozial eta kulturala.

90eko hamarkada bukaeran gizarte eredu eraldatzeko alternatiba zehatza plazaratu zuen Herri Batasuna alderdiak, berritasunak zekartzan hainbat irakurketa eta planteamenduekin.

Aldaketa estrukturalak, epe ertainekoak eta berehalako aldaketak behar dira, hirurak aldi berean.



ZEIN ZEN HERRI BATASUNAREN ALTERNATIBA?

DENA ALDATU ALA GAURDANIK ERALDAKETAK EGIN?

90eko hamarkada bukaeran gizarte eredu eraldatzeko alternatiba zehatza plazaratu zuen Herri Batasuna alderdiak, berritasunak zekartzan hainbat irakurketa eta planteamenduekin. Zehazki, Hego Euskal Herrirako “bazterkuntza eta langabezia egoeraren aurkako alternatiba” izan zen aurkeztutakoa, eta eraldaketarako proposamen zehatzak eta arnas luzeko ikuspegia konbinatzen zituen. Tentsio dialektiko horretaz jabetuta, gizarte eraldaketa prozesuek hiru tenporalitate kontuan hartu eta jorratu behar zituela azpimarratzen zuen; epe luzerako helburuak, urte batzuen buruan lortzekoak, eta berehala erdietsi beharrekoak konbinatuz. Eragile politiko eta sozialen helburua aldaketa estrukturalak egitea den arren,

“pairatzen dugun neoliberalismo anker honen ondorioak galarazi, arindu edo eragotziko duten neurri zehatzak” proposatu eta erdiesteak ere berebiziko garrantzia dauka.

Ondorioz, eztabaida antzua da, eraldaketa estrukturala versus berehalako eraldaketaren artekoa. Aldaketa estrukturalak, epe ertainekoak eta berehalako aldaketak behar dira, hirurak aldi berean. Izan ere, euskal gizarteko milaka eta milaka pertsonak zuzen eta zeharka egoera prekarioan zeudela kontuan hartu behar da: ordainduriko lanik gabe (emakumeak, bereziki), pertsona gisa erabakiak hartzeko ahalmenik gabe, etxebizitza bermatu gabe. Hori dela eta, “duintasunezko enpleguen sorrera, pobrezia gainditzea edo bizilekua lortzea” lehentasunezko auziak ziren, eta erantzun zehatzak eskatzen zituen.

Nola eraldatu aurreko egoera? Batetik, ordainduriko lana

LANALDIA MURRIZTEKO NEURRIAK

- 1. Aparteko lanorduak kentzea**
Aparteko lanorduak kentzeari esker, 19.900 lanpostu sor daitezke Hego Euskal Herrian.
- 2. Jubilazio aurreratua**
Jubilazioa 60 urtean ipiniz (eskubiderik galdu gabe) 18.000 lanpostu sor daitezke.
- 3. ASTEAN 35 LANORDU**
Asteko lanaldia 35 ordutara murriztuz 66.000 lanpostu sor daitezke.



sortzea eta aberastasuna banatzea proposatzen zuen txostenak, horretarako proposamen zehatz batzuekin. Bestetik, ordaindu gabeko “etxeko lanak” jendarteko indibiduo guztien artean banatzea urgentziatzeko pausutzat jotzen zuen. Eta hirugarrenik, etxebizitza eskubidea bermatzeko apustua egiten zen, bizitza duin baten minimoak bermatze aldera. Nola egin guzti hori?

LANA ETA ENPLEGUAREN ARTEKO BEREIZKETA

Lehenik eta behin, lanaren inguruko argiketa kontzeptual bat egin beharra zegoen. Izan ere, lana eta enplegua ez dira gauza berdina, “lanaren banakuntzaz ari garenean enpleguaz (soldatapeko lanaz) ezezik, ia emakumeek bakarrik egiten duten etxeko lanaz ere ari gara”. Enpleguaren kasuan, soldatapeko lanaz ari gara, zerbitzuak ekoitzi eta merkatura zuzendua dagoen lanaz, mota bateko etekina helburu duena. Beste lanak, “erabilera-baliiodun

ondasun eta zerbitzuak ekoizten ditu eta familia giroan garatzen da, ugaltze-esfera izenekoan; gainera, ez da ordaindua izaten.” Alegia, azken lan horren helburua lan-indarra ugaltzea da, baina are gehiago ere, “sozializazio-prozesu batzuk eta bere burua zaintzeko gai ez diren pertsona guztien zaintza” jasotzen du.

Zein da lanen arteko erlazioa? Zein da ordaindutako eta ordaindu gabeko lanaren banaketa? “Aberastasunaren banaketaren neurria da”. Alegia, lana banatu, ondasuna banatu, bi ardatzak eskutik helduta daude. Ordaindutako lanaren banaketak zaintzaren banaketa ere zuen xede, baina txostenean kontziente dira aurrekoak helburu hori betetzea lagunduko lukeen arren, eraldaketa kultural baten beharra ere bazegoela, etxeko lanak partekatze helburuarekin.



Txostenean kontziente dira aurrekoak helburu hori betetzea lagunduko lukeen arren, eraldaketa kultural baten beharra ere bazegoela, etxeko lanak partekatze helburuarekin.

LANAREN ETA ABERASTASUNEN BANAKUNTZA *Eztabaidarako txostena*

EPE MOTZEAN (astero 35 ordu)

	NEURRIAK	PERTSONA KOPURUA	KOSTUA
Langabetuak 188.800 (1997ko III. hiruhil)	Aparteko lanorduak	19.900	0 pta.
	Jardunaldi-murrizketa	66.582	Soldata kostua: 131.699 M. pts Gizarte Segurantzaz: 39.510 M. pts
	Jubilazio aurreratuak	10.000	16.800 M. pta.
	Soldata soziala	92.318	(a) 180.990 M. pta.

BALIABIDE-ITURRIAK

Langabeziagatiko prestazioak eta pobrezia kontrako plana: **104.680** M. pta.

Iruzur fiskala (b): **300.000** M. pta.

Erreforma fiskala: **15.000** M. pta.

Aurrekontuko gastuaren norabide aldaketa: **78.000** M. pta.

Kupoa: balio aldagarria (d)

Urtean, Guztira (kuporik gabe): **497.680** M. pta.

GUZTIRAKO KOSTUA

Gizarte Segurantzako gastuekin: **368.999** M. pta.
Gizarte Segurantzako gasturik gabe: **312.689** M. pta.

- (a) Okupazio murrizten (25.475 M.), lan partziala egiten duten langileen (27.448 M.) eta pentsionisten (39.361 M.) gehigarriak barne.
(b) Iruzur fiskala %50ean murrizteko aukera hartu da kontutan; hortaz, balabide erabilgarriak 300.000 M. pta. dira.
(d) Hego Euskal Herriko kupoaren bitartez urtera atxikitzen den bolumena 300.000 M. pta. tan jotzen da.

EPE ERDIRA (astero 32 ordu)

	NEURRIAK	PERTSONA KOPURUA	KOSTUA
Langabetuak 92.318 (35 ordukin)	Aparteko lanorduak	0	0 pta.
	Jardunaldi-murrizketa	60.968	Soldata kostua: 120.595 M. pts Gizarte Segurantzaz: 36.178 M. pts
	Jubilazio aurreratuak	8.000	13.440 M. pta.
	Soldata soziala	23.350	(a) 115.294 M. pta.

BALIABIDE-ITURRIAK

Langabeziagatiko prestazioak eta pobrezia kontrako plana: **104.680** M. pta.

Iruzur fiskala (b): **300.000** M. pta.

Erreforma fiskala: **15.000** M. pta.

Aurrekontuko gastuaren norabide aldaketa: **78.000** M. pta.

Kupoa: balio aldagarria (d)

Urtean, Guztira (kuporik gabe): **497.680** M. pta.

GUZTIRAKO KOSTUA

Gizarte Segurantzako gastuekin: **285.507** M. pta.
Gizarte Segurantzako gasturik gabe: **235.889** M. pta.

- (a) Okupazio murrizten (25.475 M.), lan partziala egiten duten langileen (27.448 M.) eta pentsionisten (39.361 M.) gehigarriak barne.
(b) Iruzur fiskala %50ean murrizteko aukera hartu da kontutan; hortaz, balabide erabilgarriak 300.000 M. pta. dira.
(d) Hego Euskal Herriko kupoaren bitartez urtera atxikitzen den bolumena 300.000 M. pta. tan jotzen da.

“Trabajar menos para trabajar todos”, horixe izan zen Herri Batasunak erabiliko zuen leloa eta filosofia.

EPE LABURREKO ALTERNATIBA: “TRABAJAR MENOS PARA TRABAJAR TODOS”

Langabezia da proposamenaren abiapuntua, eta horrekin bukatzea da txostenaren helburua, zaintza lanak partekatu eta bizitza duin bat bermatu asmoz. “Trabajar menos para trabajar todos”, horixe izan zen Herri Batasunak erabiliko zuen leloa eta filosofia. Eta horren azpian, lanaren inguruko kontzeptualizazio zehatza zegoen. Baina aurretik azaldu dugun kontzeptualizazio horrez gain, proposamen zehatzak ere planteatzen ziren, epe motzera begira:

- Aparteko lanorduen murrizketa zorrotza, milaka lanpostu sortuz
- Lan-jardunaldien murrizketa (zerbitzuetan, eraikuntzan, industrian, nekazaritza eta arrantzan), epe motzean **35 ordura**, epe ertainera **32 ordura**.
- Jubilazioak aurreratzea
- Soldata soziala bermatzea langabetu eta baztertu sozialentzat
- Errentako etxebizitza soziala bermatzea
- Enplegu berrien eta langabetu eta baztertu sozialentzako soldata sozialaren kostu eta finantzaketaren balorazioa

Halako proposamenetan gastuen finantzaketa izan ohi da arazo. Nola konpondu? Gastu horiek hainbat baliabide

iturritatik elikatzea proposatzen zen, besteak beste, iruzur fiskalari aurre eginez (Hego Euskal Herrian, 1993ko datuen arabera, 598.490 milioikoa zen); erreforma fiskalaren bidez, gehiago dutenek gehiago ordainduz; Estatuarekiko elkar hartu ekonomikoak berrikusiz... Puntu honetan, proposamena zenbaki zehatzen gainean borobiltzen dela esan behar da, alegia, egingarria eta errealista da, ez da borondate edo intentzio hutsean geratzen.

EPE ERTAINEKO ALTERNATIBA: NAZIO ERAIKUNTZAN SAKONDU

Epe ertaineko alternatibak begirada luzeagoa zeukan. Hori osatzeko, lanaren eta aberastasunaren banaketa ardatz hartuz, hainbat neurri eta jardura proposatzen ditu txostenak, aldaera kultural eta ekologikoak kontuan hartuz, hala nola, Euskal Herriaren gizarte eta produkzio ehunaren koherentzia kontuan hartuz ere. Besteak beste, ondokoak izan ziren planteatutakoak:

- Euskal Herriaren antolakuntza ekonomikoa “sektore-arteke zein lurralde-arteke fluxuetan produkzioaren koherentzia sustatuko duen politika ekonomikoa garatzea”.
- Sektorre publikoaren eskuhartzea eta administrazio publikoen jarduketa esparrua. Politika pribatizatzailearen aurka sektore publikoa

Lanaren eta aberastasunaren banaketa ardatz hartuz, hainbat neurri eta jardura proposatzen ditu txostenak, aldaera kultural eta ekologikoak kontuan hartuz.

D5

indartzea gune estrategikoetan (hezkuntza, industrian...) eskuhartze publikoa sustatuz.

- Euskal finantza sektore publikoa sortzea, finantza sektoreak (kutzak) produkzio ehunaren garapenean inplikatur
- Fiskalitatearen eta aurrekontuen norabide berri bat ezartzea, errenten araberako zerga progresiboak ezarriz, eta subiranotasun gero eta handiagoa lortzeko, autonomia fiskal handiagoa lortzeko borroka eginez.
- Enplegu politika eragileak bultzatzea, eskuhartze sozial aktiboa sustatuz
- Eskuduntza politikoak eskuratzea, euskal gune sozioekonomikoa eta lan harremanetarako bertako gunea sortuz.
- Hego Euskal Herriaren nazio-erakuntza eta gizarte aldaketa erdiesteko ezinbestekoak diren ekonomia, lan eta gizarte politikak garatzeko erabateko eskuduntzak lortzea
- Nazioartean, CO2 gasaren jalgipenaren, atzerriko monetaren transakzioen eta kapital espekulatuzaileen nazioarteko higiduren gaineko zerga sortzea

ALTERNATIBA OROKORRA: GARAPEN SOZIALERAKO BESTELAKO EREDU BAT

Azken finean, arestian esan dugun bezala, hiru denboralitate barnebiltzen ditu proposamenak. Baina finean, garapen sozialerako beste eredu baten aldeko apustua egiten du Herri Batasunaren proposamenak, garapen ekonomiko eta sozial orekatua hobetsiz. Horrez gain, jarduera ekonomikoari “biosferak ezartzen dizkion mugetatik abiatzea” planteatzen zuen (gaur egun, jada, eztabaida ezina dena), euskarri hartzen duten ekosistemen hondamendi konponezinik eragin gabe. Norabidea, beraz, argia da eta hainbat puntu barnebiltzen ditu:

- Energia fosilen (ikatz, petrolioa, gas naturala...) menpekotasunik ez izatea
- Produkzio sistemak natura baliabideen eta kutsatzaileen jaurtiketa gutxienera jaistea
- Ekonomia “auto-zentratua” eta orekatua izatea, barne eskakizunari eta merkatu lokalei begirakoa sustatzea
- Produktibitatea lanaldi murrizketaren eta komunitatearen garapenaren mesedetara bideratuta egotea.

Helburu orokorra, noski, garapen eredu berri bat da, esplotazio eta zapalkuntzarik gabeko gizarte bat. Hala nola, epe labur, ertain eta luzera biosfera osasuntsu eta orekatu bat erdiestekoa.

“Ekonomia sozialista eta ekologikoa erdiestea den helburu hau, beraz, epe luzera biosfera zaintzarekin parean, gizakiaren premiak eta nahiak ahalik eta berdintasun handienaz asetzeko modurik hobereena da. Bestelako garapen-eredu batetik lortu beharreko helburuak zehaztu eta ezaugarriak adieraz ditzakegu ikuspegi honetatik. Garapen ekonomiko eta sozialeko eredu hori, gure iritziz, izaeraren araberako ekonomia eta garapen bati begira zuzentzen da: honek guztiak, elkarri loturiko alderdi ekonomiko, ekologiko, kultural, sozial eta politikoak kontuan hartzea agintzen du. Honela laguntzen da izaera komunitarioko garapen sozial bat indartsu izan dadin, alderdi ekonomiko hutsei, euskal dinamika kolektiboak inplikatzeko gainontzeko izariak lotuz.”

**Jarduera ekonomikoari
“biosferak ezartzen dizkion
mugetatik abiatzea”
planteatzen zuen, euskarri
hartzen duten ekosistemen
hondamendi konponezinik
eragin gabe.**

AZKEN OHARRA

Bi hamarkada baino zertxobait gehiago pasa da Herri Batasunak planteamendu hau egin zuenetik. Garaian statu quo-a kudeatzen zuten alderdi eta eragile nagusiek hartutako bidea, ordea, bestelakoa izan zen. Eta de aquellos polvos, estos lodos. Herri Batasunak planteatutako hainbat proposamen gaur eztaba daezinak dira eta Europako ezker eraldatzailean zein sozialdemokrazian planteamendu ardatzak izaten ari dira, eskuhartze publikoa edo lanaldi murrizketa kasu. Gure esku egongo da, berriz ere, gaurko egoera iraultzeko proposamen taktikoak, zehatzak eta norabide eraldatzailea eztabaida sozialaren zentroan jartzea.

**Herri Batasunak
planteatutako hainbat
proposamen gaur
eztaba daezinak dira
eta Europako ezker
eraldatzailean zein
sozialdemokrazian
planteamendu ardatzak
izaten ari dira.**

#GlovoEz!



Asier Ventimiglia
eta Beñat Irasuegi.
*Ernai eta Tekseko
kideak*

Gure herri eta auzoetako denda txikiak erreleborik gabe ixten ikusten ditugun garaian, multinazional handiek pantailen bidez lortu dute gure denbora eta arreta bereganatzea.



sinadura

Slovo!

Argazkia: Foku


Amazoni aurre egitea da, datorren hamarkadako herri erronka nagusietako bat, baina bitartean ahulagoak eta partzialagoak diren Glovo bezalako proiektuei aurre egiten, asko ikasi dezakegu.

Joko zelaia aldatzen ari da kapitalismoaren baitan. Mundu globalizatuaren lotura merkantilizatuak dardarka dauden garaiotan, inoiz baino barrurago sartu zaizkigu kapitalismo digitalizatuaren multinazional erraldoiak. Gure herri eta auzoetako denda txikiak erreleborik gabe ixten ikusten ditugun garaian, multinazional handi hauek pantailen bidez lortu dute gure denbora eta arreta bereganatzea. Baditugu bi adibide oso ikusgarri, gure lurraldeak beraien aberastasunaren metaketa handitzeko helburu bezala identifikatu dituztenak, Amazon eta Glovo.

Biek informazio bektoreak erabiltzen dituzte, herritarron kontsumo ohituretatik erauzitako informazioari esker, balio kateen kontrola hartu eta lehenagotik lurraldean existitzen den ehun ekonomiko ordezkatzeko. Biek gure ohiturak aldatu eta informazio fluxuen jabe egitea behar dute, tresna digitalen bitartez, baina biek lurraldean jokatzeko dute beraien estrategiaren arrakasta. Amazoni aurre egitea da, datorren hamarkadako herri erronka nagusietako bat, baina bitartean ahulagoak eta partzialagoak diren Glovo bezalako proiektuei aurre egiten, asko ikasi dezakegu.

#GlovoEz!

Herriko komertzioekin izandako lehen hartu emanaren emaitzak



Aurrera pauso bat eman eta etorkizuna eraikitzen hasteko garaia da
Ziklogistika kooperatiba BAI!

Glovok ere lurraldea behar du, gure hiri, auzo eta herrietako kaleetan egin behar baitu jarduna. Kontsumitzaileak, tokiko negozio txikiak eta prekarizatutako langileak behar ditu APP baten bitartez antolatutako prozesuetan, informazioa erauzi eta azken miliako balio katearen nagusitasuna lortzeko. Prozesu argia da [IKUSI INFOGRAFIA], App-aren bitartez komertzio eta ostalaritzaren konplizitate bilatzen du,

etxean kontsumitzeko ohitura sortuz. Banaketa ahalik eta kostu txikienean egiteko riderrak lortzen ditu, beraien arteko kompetentzia sustatu eta erregulaziotik kanpoko lan prekarizatuak sortuz. Erabiltzaileen kontsumo ohitura eta logistika datuen erazketa eta analisisa egiten du. Bildutako datuekin tokiko ekonomia ordezkatzeko, kostu baxuko ekoizpen eta banaketa egiturak sortuz, dark kitchen eta dark store deiturikoen bitartez.

Ikusi dugu gainera Glovo Euskal Herriko hirietatik, maila ertaineko herrietara pasatzen ari dela, eredu aplikatzeko kontsumitzaile masa handiagoen bila. Estrategiak ahulgune nabarmenak ditu ordea, lurraldean harreman eta egiturak sortu behar dituelako, eta hor komunitatea antolatu dezakegu.

Orereta/Errenterian abiatutako #GlovoEz! kontra-estrategiak bi lan lerro eta hiru hartzaile dauzka. Alde batetik #GlovoEz lan ildoa jarri dute martxan eta bestetik #ZiklogistikaKooperatibaBai. Bi kasuetan hartzaileak riderrak, tokiko denda eta ostalaritza, eta herritarrak dira.

Hainbat ekimen egin dituzte. Glovoren kartelen gainean “Ez erabili app esplotatzailerik” eta ondoan “riderra izan nahi baduzu batu, antolatu eta kooperatibizatu. Zure eskubideek merezi dute!” kartelak jarri eta sare sozialetan zabaltu dituzte; ostalari eta dendariei bideratutako kanpaina, galdetegi eginez beraien ikuspegi eta beharrak jakiteko, eta “hemen ez da glovorik sartuko” kartela jartzeko atxikimendua neurtuz; tokiko banaketa kooperatiba bat sortzeko azterketa eta harremanak egiten hasi gara.

55 negoziotan egindako lehen kanpainak emaitza esanguratsuak eman ditu [Datu guztiak <https://t.me/glovoEz> Telegram kanalean]. %80ak ekimenaren kartela jarri du, %47ak banaketa

zerbitzuaren beharra ikusten du, %13 da Glovoren aldekoa eta ordezkaturiko lukete tokiko proiektu batengatik.

Oreretako ekimenaren datuek erakusten dute #ZiklogistikaKooperatibaBai ildoaren beharra. Lanketa abiatu dute, Euskal Herriko CoopCycle App kooperatiboa erabiltzen duten ziklogistika proiektuak ezagutu, eta tokiko proiektu bat sustatzeko asmoz. Helburu argia da, Glovo Euskal Herriko herrietako kale eta harremanetatik atera, eta identifikatutako behar komunitarioei proiektu publiko-komunitario-kooperatiboekin erantzutea. Bide horretan aipagarria da Gasteizko Eraman kooperatibaren kasua.

Gure herrietako bizitza okertzen duen plataforma kapitalismoari aurre egiteko aukera dago, baina erantzuteko moduak moldatu beharko dira, plataforma logikak ulertu eta estrategia banatu eta zehatzak garatuz. Espero ez gaituzten tokietan agertuko gara.

Glovok, bildutako datuekin tokiko ekonomia ordezkatzeko, kostu baxuko ekoizpen eta banaketa egiturak sortuz, dark kitchen eta dark store deiturikoen bitartez.

Lanketa abiatu dute, Euskal Herriko CoopCycle App kooperatiboa erabiltzen duten ziklogistika proiektuak ezagutu, eta tokiko proiektu bat sustatzeko asmoz.

Gure herrietako bizitza okertzen duen plataforma kapitalismoari aurre egiteko aukera dago, baina erantzuteko moduak moldatu beharko dira.



Argazkia: #GlovoEz!

LES MULTIPLICATEURS POUR EN FINIR AVEC LA SPÉCULATION IMMOBILIÈRE À BERLIN



Raul Zelik
Politologue et écrivain



Le quartier ouvrier de Gropiusstadt a été l'un des épicoentres de la lutte contre la spéculation immobilière à commencer à organiser les habitants des quartiers populaires dans lesquelles les structures alternatives ne sont pas si courantes. Photo: Marcus Lenk, Unsplash

Pendant plusieurs décennies, Berlin a été une ville de logements assez abordables. Comme dans l'ensemble de l'Allemagne, la plupart des personnes étaient locataires et bénéficiaient du taux élevé de propriété commune. À Berlin-Est, le logement a été presque entièrement socialisé jusqu'en 1990 et les entreprises publiques de logement ont gardé une grande part de ce patrimoine social. À Berlin-Ouest en revanche la « menace communiste », la politique de logement social-démocrate et le mouvement des squatters dans les années 80 ont posé des limites aux marchés de l'immobilier.



Photo: Marcus Lenk, Unsplash

Cependant, cette situation a radicalement changé à partir de l'an 2000. La banque publique berlinoise LBB a frôlé la faillite à cause des cas de corruption massive (de politiciens de droite). Le nouveau gouvernement de centre-gauche a sauvé la banque en vendant 65 000 appartements de propriété publique et à priorité sociale. Les problèmes de suraccumulation du capital international ont aussi joué un rôle : les patrimoines du monde entier se sont réfugiés dans des espaces spéculatifs (bourse, immeubles, terres ...) et, grâce à ses bas prix du logement, Berlin est devenue un véritable eldorado de la spéculation immobilière. Fonds et investisseurs du monde entier ont vu en la ville allemande un refuge sûr pour leur patrimoine.

En 15 ans seulement, les prix des appartements ont décuplé dans certains quartiers de Berlin ; les nouveaux contrats de location ont augmenté en moyenne de près de 100 % depuis 2012. Cette situation a déclenché un vaste mouvement de résistance contre la hausse des loyers et la vente de logements à des fonds immobiliers. Sont apparues de nombreuses initiatives locales qui, au fil du temps, ont commencé à se coordonner et à ouvrir un débat sur la façon dont le mouvement des locataires pourrait sortir de la défensive. À la surprise générale, elles ont découvert un article de la constitution allemande.

Dans les années 2000, grâce à ses bas prix du logement, Berlin est devenue un véritable eldorado de la spéculation immobilière.

Sont apparues de nombreuses initiatives locales qui, au fil du temps, ont commencé à se coordonner et à ouvrir un débat sur la façon dont le mouvement des locataires pourrait sortir de la défensive.



Photo: Montecruz, CC BY-SA

Bien que la législation allemande protège la propriété privée, un article de la constitution ouvre la possibilité à la transition vers une société socialiste.

Celle-ci a vu le jour en 1949 comme une véritable « condensation matérielle des rapports sociaux de forces ». Après que le nazisme et ses alliés au sein des entreprises allemandes avaient ravagé toute l'Europe, le système capitaliste était profondément discrédité. Par conséquent, non seulement la gauche, mais aussi la social-démocratie, les syndicats et même les courants de la démocratie chrétienne prônaient la socialisation de l'industrie et des infrastructures, ce qui a été repris également dans la constitution. Bien que la législation allemande protège en général la propriété privée, un article de la constitution ouvre la possibilité à la transition vers une société socialiste. Si c'est pour le bien commun, l'article 15 permet la socialisation de la propriété privée.

De ce fait, le mouvement des locataires de Berlin a lancé une Initiative Législative Populaire pour que les fonds immobiliers possédant plus de 3 000 appartements à Berlin soient expropriés par une loi du Land de Berlin. À cette fin, la campagne a collecté environ 77 000 signatures dans une première étape du référendum à la mi-2019 et 350 000 autres signatures dans une deuxième étape (février à juin 2021).

La campagne Deutsche Wohnen & Co Enteignen a remporté un succès car elle a réussi à conjuguer deux éléments. D'abord, les activistes se sont inspirés des expériences de l'organizing américain. Chaque militant de la campagne a participé à un atelier où il a appris comment s'adresser aux gens dans la rue ou aux portes des maisons car dans un immeuble on ne dispose que de quelques secondes pour expliquer l'initiative et gagner le soutien des gens. Ainsi, des milliers de personnes ont réappris les façons de faire de la politique en devenant des multiplicateurs bien plus fiables. Ensuite, deuxième aspect essentiel, la campagne est passée systématiquement des quartiers en centre-ville où le

soutien au référendum était large dès le début, aux quartiers plus périphériques et « difficiles », où la pauvreté et la dépolitisation s'alimentent mutuellement. Des centaines de militants se sont déplacés dans d'autres quartiers pour sensibiliser les habitants de grands immeubles de logement social. Ce travail collectif et participatif de fourmis a finalement porté ses fruits. La campagne a obligé l'État à organiser le référendum en même temps que les élections fédérales du 26 septembre. Tous les partis politiques à l'exception de Die Linke (et une partie des Verts) se sont déclarés contre l'expropriation si bien que l'on s'attendait à un résultat serré dans le meilleur des cas. Néanmoins, le résultat a été

Chaque militant de la campagne a participé à un atelier où il a appris comment s'adresser aux gens dans la rue ou aux portes des maisons.



écrasant. 56,4 % ont voté pour l'expropriation de la grande capitale immobilière, 39 % seulement contre.

Il est frappant de constater que ce référendum local à profil socialisant indéniable, et même anticapitaliste, a réussi à mobiliser plus de votes que les trois partis du gouvernement de centre-gauche. Alors que 390 000 Berlinois ont voté pour le SPD, 343 000 pour les Verts et 255 000 pour Die Linke, plus d'un million de personnes ont voté pour la propriété commune du logement.

La campagne est passée systématiquement des quartiers en centre-ville où le soutien au référendum était large dès le début, aux quartiers plus périphériques et « difficiles », où la pauvreté et la dépolitisation s'alimentent mutuellement.

Il est frappant de constater que ce référendum local à profil socialisant indéniable, et même anticapitaliste, a réussi à mobiliser plus de votes que les trois partis du gouvernement de centre-gauche.



PRAKTIKATIK ETA BIZIPENETATIK ASKO IKASI DEZAKEGU ERE



Ainhoa Etxaide Amorrortu
LABeko eskola feministaren arduraduna

ARGAZKIAK: Foku

Ausartegia da esatea aldarrikapen feministak “iraultza geroratu” izateari utzi diola, baina atera ditugu bigarren mailako borroken zakutik.

Helburua existitzea balitz, duguna eta garena zaintzearekin kitto. Baina sistema aldatzea helburu, plan estrategiko feministak egin ditugu gure erakunde mixtoak feminismoz bustitzeko eta feminismitik eraberritzeko.

2021ean Euskal Herrian antolatu da MarxFem konferentzia. Bertan ikusi dugu, berriro ere, pentsamendu marko berriak eraikitzeke eta elikatzeko lanetan ekoizpena handia eta aberatsa izan dela feminismoan. Feminismo marxistan gaur egiten diren gogoeten oinarriak eta logikak ulertzeko, eta feminista marxistei esker aurreratuz jabetzeko, askoz ere atzerago jo behar dugu, noski. Baina hala izanik ere, edo hala izanagatik, esanguratsua da zenbat sortu den azken urteetan.





Ausartegia da esatea aldarrikapen feministak “iraultza geroratua” izateari utzi diola, baina atera ditugu bigarren mailako borroken zakutik. Hainbestetan entzun ondoren “bazterrak nahasten” gabiltzala, zeozer aldatu dugu proiektu eta proposamen politikoak gaurkotzeko feminismoak duen balioa aitortzen dela ikusten ari garenean. Asko dago egiteko emakumeak bigarren mailako egiten gaituen botere harremanak iraultzeko, baina ari garenaren seinale da erakunde mixtoetan feminismoak egin duen bidea. Are gehiago Euskal Herrian.

Mugimenu feminista autonomoaren borrokaren emaitza da, zalantzarik gabe. Baita militantzia bikoitzaren bidez, erakunde mixtoetan egin dugun borroka feministaren ondorioa ere. “Politika feministak erakunde mixtoetan” solasaldian hau guztiaz hitz egiteko aukera izan genuen. Emakume askoren borrokak izan duen eta gaur duen balioa aldarrikatzeko aukera, hain zuzen ere.

MarxFemek erakunde mixtoetan gauden feministen praktikei leku bat egin izana aitortza bat izan zen. Batetik, teoria sortzeko praktikak eta bizipenek duten balioaren aitortza. Konferentziak adituen gauza direla baztertuz, arituek lekua izan genuen gure praktikei buruz hitz egiteko. Bestetik, gaur arte egindakoaren aitortza. Erakunde mixto askok

feminismoan bilatzen dituzte norberaren mugak gainditzeko formulak, eta honek zeharo aldatu ditu feministok erakundeetan jarduteko baldintzak.

Non gauden ikusteko aukera izan genuen

Pentsionistak protesta egitera atera ziren kalera eta Mugimendu indartsua dira momentu honetan. Hasiera hasieratik ulertu zuten pentsionista emakumeen errealitateari erantzuteko, emakume pentsionistak leku espezifiko eta ahots propioa izan behar zuela mugimenduan. ELA eta LAB erakunde klasikoak gara, ibilbide historikoan oinarritzen diren egiturekin. Helburua existitzea balitz, duguna eta garena zaintzarekin kitto. Baina sistema aldatzea helburu, plan estrategiko feministak egin ditugu gure erakunde mixtoak feminismoz bustitzeko eta feminismitik eraberritzeko. Eta azpimarratzekoa ekonomia solidarioarentzat feminismoa tresna, erreferentzia eta pentsamendu markoa izatea, geroz eta espazio handiagoa ari delako hartzen, hortaz, geroz eta handiagoa da merkatu kapitalistaren logikatik kanpo geratzen diren espazioak.

Izan genuen urrats berriak egiteko eztabaidatzeko aukera ere. Solasaldia arina eta atsegina izan zen, aurrera egiteko bidean ekarpen xume baina baliagarri eta erabilgarria egiteko gogoz egin genuena.



MARXFEMEK ERAKUTSI DIGU BORROKAN AURRERA EGITEKO EZINBESTEKOA DELA KATEGORIAK ETA KONTZEPTUAK BERRITZEA

Erria

ARGAZKIAK: Foku



Frigga Haugen 13 TESI



Konferentziako hitzaldiak eta panelen bideoak MarxFem2021ko YouTube Kanalean

Hiru egunez hamaika txokotako pentsalariak bildu ditu Nazioarteko IV. MarxFem Konferentzia birtualak. Azaroaren 11, 12 eta 13a hausnarketarako egunak izan dira: Marxismoaren eta Feminismoaren uztartzeaz eztabaidatu da, feminismo garaikidearen analisiak eta erronka berriak mahaigaineratu dira eta mugimendu anitzek sareak ehuntzeko elkarteratzea ere izan da.

MarxFemek erakutsi digu desberdintasuna eraikitzailea izan behar dela.

Emakume guztientzako etorkizun bat ehuntzea da premiazkoa orain: aliantzen garai berriak ailegatu dira.



Eztabaida luze eta sakonen ostean, argi geratu da: pentsamendu feminista ez dago krisian.

Mundu osoan zehar ereindako proposamen, diskurtso eta praktika anitzek emantzipaziorako bidea zabalik dagoela argi utzi dute, baina borrokan aurrera egiteko kategorია eta kontzeptuen berritzea ezinbestekoa dela ere agerikoa izan da.

Feminismo garaikideaz orokorrean luze hitz egin den arren, tokiko bizipenek ere eman dute zeresan. Hizlari eta parte-hartzaileen errealitate ugariak aberastasuna ekarri dute soslaietara, eta borrokan arteko hierarkizazioa zein mendekotasunak balio-gabetu eta borrokan inbrikazioaren alde egin dute partaideek.

Latinoamerikako, Ekialde Hurbileko, Asiako zein Europa hegoaldeko izen handiko pentsalari eta hizlariak ehundaka lagun erakarri dituzte Konferentziara.

Haien artean Silvia Federici, Nancy Fraser, Frigga Haug, Lorena Cabnal, Ochy Curiel, Ana Cecilia Dinerstein, Dilar Dirik, Tithi Bhattacharya, Elsa Dorlin eta Jules Falquet izan dira.

Mundu osoan entzutetsuak diren feminista historiko hauek, beren lanen zenbait alderdi azaldu dituzte, hala nola balioaren azterketa, lana, erreproduktzio soziala, arrazalizazioa, sexualizazioa eta estatua.

Konferentziaren alma matteraren 13 tesiak, esparru feminista eta marxista tradizionalen nagusi diren tesiei buruz ere eztabaidatu dute, modu eraikitzailean, Frigga Haug, Jule Goikoetxea, Nikita Dhawan, Alex Wischnewski, Katja Kipping eta munduko beste feminista aditu eta aritu artean.

Era berean, panel kolektiboetan, proposamenen bozeramaileek, erakundeek eta hego globaleko teoriarik eta praktikek hartu dute parte, baita estaturik gabeko iparralde globaleko nazioek ere.

Parte-hartzaile gehienak militantziazatik, aktibismoetik, baita mundu akademikotik etorriak, eta erakunde, mugimendu sozial eta sindikalen banakako eta taldeko hitzaldiak aurkeztu dituzte. Eztabaida teorikoak garatu dira interseksionalitateetik zein hainbat arlotako inbrikaziotik, hala nola balioetan, estatuan, zuzenbidean, subjektuan, zaintzan, produktioan eta erreproduktzio sozialean; borroka eta protestarako aukera berrien inguruko proposamenak jorraturaz. Eta aldi berean, zenbait praktika aztertu dituzte feminismo dekoloniala, materialista, ekosozialista eta transozialista oinarritzat hartuz.

Ikerketa kasu zehatzak ere landu dira, borroka, erresistentzia eta antolaketaren adibideetan oinarrituak. Ipar eta hego globaleko greba feministak ez ezik, tokiko erresistentziak eta erresistentzia espezifikokoak aditzera eman dira ere; enpresetatik, internetetik, unibertsitateetatik zein eremu publikoetatik abiatutakoak.

Sindikalismo berrien inguruan aritu dira eremu feminizatuetako emakume langileen praktikak oinarri hartuz; baina, baita lehen sektoreko, industria-sektoreko eta zerbitzuen sektoreko sindikalismo feministaz ere, egungo kapitalismo digital eta finantzatuaren analisisa barne.

EUROPAN HIRI HANDIAK DIRA EZKERREKO ALTERNATIBA ERAIKITZEKO MOTORRA



Onintze Oleaga
EH Bilduko Udalgintza arduraduna



Pobrezia energetikoari buruzko kongresua Bartzelonan. Argazkia: Ajuntament Barcelona. CC BY-NC-ND 2.0

Udalak instituzio organigrama konplexuan txikienak izanik, sarri gainontzeko erakundeengandik zapalduak eta zokoratuak dira. Baina udalek duten eraldatzeko potentzialitatea izugarria da, are gehiago, potentzialitate hori ez da soilik udalen ondare edo titularitatekoa, udalez harago doazen tokiko egiturena baizik, instituzionalizatuak zein ez instituzionalizatuak izan daitezkeenak, egituratuak edo emergenteak, formalak zein informalak izan daitezkeenak.



2015ean, poliziaren eskuetan Elhdaji Ndiaye hil ondoren Joseba Asiron senegaleko komunitatearekin bilduta. Argazkia: Foku

Gobernutik jarduteak tokiko egitura guzti hauei beren ekimenak arrakastatsuak izateko gutxienean hiru abantaila eskaintzen dizkiela: legitimitatea, baliabideak eta konfiantza.

Hainbatean udalgintzaz baino egokiagoa litzateke prozesu herrigileez hitz egitea, herri (hiri) proiektua eskala lokalean eraiki eta gauzatzeaz. Ezinbestean baina aitortu beharra dugu, udalaren babesak edota gobernutik jarduteak tokiko egitura guzti hauei beren ekimenak arrakastatsuak izateko gutxienean hiru abantaila eskaintzen dizkiela: legitimitatea, baliabideak eta konfiantza.

Udalgintza gobernatzea da, espazioak, ondasuna eta prozesuak kudeatzea finean. Kudeaketa honek baina modu ezberdinak hartu ditzake eta batez ere, helburu ezberdinak bete ditzake, izan daiteke status quoak mantentzeko, izan daiteke eraldaketa bultzatzeko; izan daiteke aberastasun ekonomikoa sortzeko, izan daiteke aberastasun soziala bultzatzeko.

Egun hiriguneetan bereziki bi kudeaketa ereduren arteko polarizazioa ematen da: kudeaketa pribatuarekin hertsiki lotutako hiria, gobernantza ekonomikoki eraginkorragoa izateko merkatu pribatuaren soluzioetara jotzen duena eta pertsonentzat bizigune izango den hiria baino enpresentzako etekin iturri izango diren hiria bultzatzen duen eredu; eta bestetik, hiri inklusiboa, pertsonak eta bizitzak erdigunean jarrita, bereziki espazio publikoaren erabilera baloratu eta eskubideen sustapena bultzatzen duena.

Eskuin indar politikoek lehen ereduaren aldeko hautu irmoa egin zuten duela hamarkadak, eta egun, eredu horren erreprodukzioan sakontzea du helburu.



Argazkia: Ajuntament Barcelona. CC BY-NC-ND 2.0

Espazio publikoaren erabilerak herritarrak berdindu, edo kontrara, status-ak sortu eta mantentzeko ahalmena dauka.

Politika komunitarioek demokrazia aktiboa artikulatzea, komunitatearentzat balioak lankidetzan sortzea eta zerbitzu publikoez jabetzea ahalbidetzen dute.

PROZESU HERRIGILEEN ERRONKAK HIRIGUNEETAN

Ezkerrak premiaz, hiriguneetan zein herri, zein proiektu eraiki nahi duen zehaztu beharra du. Hiri eredu ezkertiar baten formulazioan, berau eratzeko, prozesu herrigileak lehentasunezko erronka batzuk identifikatu behar ditu: espazio publikoaren erabilera, eskubide subjektibo eta kolektiboen sustapena eta gauzatzea, eta, prozesuaren beraren eraikuntza komunitarioa eta kolektiboa.

Espazio publikoaren erabilerari dagokinez, herritarrak berdindu, edo kontrara, status-ak sortu eta mantentzeko ahalmena dauka. Eskuinak gobernatzen duen ezein hiriburutan argi ikusi dezakegu espazio publikoaren erabilerak batetik gatazka sozialak ikusezin bihurtzeko joera duela, eta bestetik, etekin ekonomikora bideratutako erabilera besterik ez duela bilatzen. Espazio publikoaren erabilerak irekia behar du izan, hiritarren zerbitzura, beraien beharrezan kolektibo eta indibidualetara egokitutako guneak izan behar dute, non hiritar guztiak berdinak izango diren.

Bestetik, eskubide subjektibo eta kolektiboen sustapena eta gauzatzeari dagokionez, tokiko eskalan hiritarren gurari eta egonezinak errazago ulertu

eta ase daitezke, injustizia eta segurtasun gabeziei gertutasunetik ematen zaien erantzunen harrera errazagoa da gainontzeko eskala handiagoetan ematen dena baino.

Prozesuaren beraren eraikuntza komunitarioa eta kolektiboaz, berriz, komunitatea bera izan behar da berau eratzten duten kideen babesgunea, autogobernu logikak eraikiz, hiritarrak ahaldunduz. Politika komunitarioek demokrazia aktiboa artikulatzea, komunitatearentzat balioak lankidetzan sortzea eta zerbitzu publikoez jabetzea ahalbidetzen dute.



Joseba Asiron alkate kargua hartu berri 2015ean, Iruñeko udaletxe plazan herritarrak agurtzen. Argazkia: Foku



Graz hirian KPO alderdiaren manifestazioa. Argazkia: Juergen Radspieler

Krisiaren eraginek pertsonengan beldurrak eta sufrimendua sortzen dituzten neurri berdinean sortzen dira gizartean dinamika kooperatibo berriak eta ahalduntze prozesuak burutzeko aukerak.

BARTZELONA, KONPENHAGE ETA GRAZ

Krisiaren eraginek pertsonengan beldurrak eta sufrimendua sortzen dituzten neurri berdinean sortzen dira gizartean dinamika kooperatibo berriak eta ahalduntze prozesuak burutzeko aukerak. Zenbait hiritan abagune hauek probestu izanaren adibide argiak aurkitzen ditugu, non eskubide sozial eta kolektiboak berreraikitzeke oinarrizko espazioak baliatu dituzten hiriguneetan udalgintza eredu berri baterako jauzia emateko.

Udalgintza eredu berri batetik abiatutako hirien berreraikitzeak hiru ardatzen gainean eman izan dira: erronka ekologikoa, erronka soziologikoa (ongizatea) eta erronka ekonomikoa. Bartzelona, Konpenhage edota Graz ditugu horren adibide.

Bartzelonan 2015. urtean udal gobernuan aldaketa eman zenetik, besteak beste, espazio publikoaren erabileraren aldaketa eta ahalduntze komunitarioaren aldeko apustuarekin, gentifikazioari aurre egiteko hirigintza kontzeptu berri bat jarri zuten

martxan, espazio publikoaren erabilera hiritarrei zabalduz eta auzoak (periferiak) erdigunera ekarriz, hauetatik gertutasunezko zerbitzu sareak eraikiz, eta inklusio politikak bultzatuz.

Kopenhagek 2025erako lehen karbono isuri neutroa dituen hiria izateko helburua finkatu du. Europako hiri jasangarriaren ikurra izateko ideia 90. hamarkadan piztu bazen ere, babes politiko eta finantzazio falta medio, ez zen 2010. urtera arte posible izan jasangarritasun plan eraginkorrak martxan jartzea. Udaleko ingurumen sailetik abiatutako prozesu honen arrakastaren gakoa jasangarritasunaren aldeko apustu politiko irmoa izan da, erakunde publiko eta pribatuen inplikazioa eta konplizitatea, eta eraldaketa planak aurrera eramateko finantzazio nahikoa izatea bermatu duena.

Graz ere bada neurri batean udalgintza eraldatzailerak duen potentzialitatearen adibide bat. Austrian ia indarrik ez duen KPÖ alderdia lehen indarra izan da azken udal hauteskundeetan langileen



Auzotarrek in asanblada Bartzelonan.
Argazkia: Ajuntament Barcelona. CC BY-NC-ND 2.0

aldarrikapenei emandako irtenbideei esker. Indar politiko honek azken hamarkadetan oposiziotik eginiko lanak eta hartutako erabakiak herritarren beharrianak jarri dituzte erdigunean, batez ere, etxebizitzaren gaineko politika sozialak erdigunean jarritz (adibidez, alderdiak berak bere baliabideekin lege aholkularitza zerbitzua eta laguntza ekonomikoak eman izan ditu urte luzez).

Prozesu herrigileetan ezinbestekoak dira gertutasuneko politikak gauzatzen dituzten ekimen eta proiektuak, zerbitzuak eta espazioak komunitatearen esku jartzea, eta hiritarren parte hartzea, hiritarrak ahalduntzeak tokiko instituzioen gaitasunak eta ahalmen kolektiboa nabarmen handitzea baitakar. Finean ezkerrek kudeaketa demokratiko eta hiritarra oinarri izan behar duen, eta bertako herritarrei egungo erronkek sortzen dizkien beharrianei irtenbidea eraikitzeko eskaintza artikulatu behar du hiriguneetarako.

Bartzelonan 2015. urtean udal gobernuan aldaketa eman zenetik, gentifikazioari aurre egiteko hirigintza kontzeptu berri bat jarri zuten martxan.

Austrian ia indarrik ez duen KPÖ alderdia lehen indarra izan da azken udal hauteskundeetan Graz hirian, langileen aldarrikapenei emandako irtenbideei esker.

Zaintzaren dimentsioa

Erria

Zaintza lanek Euskal Herrian duten pisu ekonomikoa irudikatzea ez da batere erraza, eremu administratibo ezberdinetako datu homogeneo eta bateraturik ez baitago, eta Ipar Euskal Herriko datuak jasotzea ia ezinezko baita. Horrekin batera, egiturazko beste zailtasun bat ere bada, bizitza sustengatzen duten jarduerak eta eremu pribatuan egiten den zaintzak ez baitute islarik Barne Produktu Gordinean.

Jakin badakigu lan-erreprtoduktiboek eta zaintzak gizarteak aitortzen diena baino askoz ere pisu handiagoa dutela. Eustat Estatitika Institutuak eginiko estimazioaren arabera, 2018an egin ziren lan erreproduktiboek %27,7ko balioa izan zuten EAEn, hau da, industriak (%21,94) baino gehiago.

ARRAKALA

Bizitzari eusteko ordaindu eta aitortu gabeko lan horiek sexuaren arabera aztertuz gero, nagusiki emakumeek betetzen dituzte. EAEn eremu pribatuan egiten diren etxeko eta zaintza lanen %67,2 emakumeek bete zituzten 2018an (2013an, berriz, %66,7). Beraz, sexuaren araberrako lan-banaketaren joerak, baina, ez du berdintzera egin azken urteotan. Zerbait egitekotan arrakala apur bat gehiago hazi da. Laura Martinez Jimenezek eginiko eta Nafarroako Berdintasun Institutuak finantzaturako “Radiografía de los cuidados en Navarra” ikerketan (2020), datuek argi erakusten dute gizonetzkoen inplikazio txikia zaintza lanetan. Zaintza lanak beti egiten dituzten gizon-emakumeen arteko proportzioa aztertu du, ehunekotan. Mahaia jasotzea eta etxetik kanpo mendekoak zaintzea izango lirarteke gizonen zaintza-ardurarik agerikoenak, baina beti ere emakumeen oso azpitik. Emakumeek eta gizonen arteko zereginen arrakala askoz handiagoa da jarduera hauetan eta hurrenkera honetan: arropak, etxeko garbiketak, erosketak, sukalde-lanak eta etxeko mendekoak. Oro har, esan daiteke gizonetzkoak iristen ez diren eremuetara iristen direla emakumezkoak.


ZAINTZAREN MERKANTILIZAZIOA

Zaintza lanetan orain dela 25 urte baino denbora gehiago ematen dugu. Bai haurrak zainduz, eta baita helduak zainduz. Proportzionalki helduen zaintzak igoserarik nabarmena izan du. Jendartearen zahartzeak zaintza-beharrak areagotu ditu. Horrek zaintza-lanen merkantilizazioa ekarri du. Hau da, kapitalismoak balioa ezarri dio zaintzaileen lanari eta zaindutako pertsoneri prezio bat.

ETXEKO LANGILEAK EGOERA PREKARIOAN

Eta zaintza-lan horiek emakumeen bizkar egiten dira, nagusiki. Ipar Hegoa fundazioak agerian utzi du zaintza-lanetan ari diren emakumeen egoera prekarioa, “Etxeko langileen errealitatea Euskal Herrian” txostenean (2020ko maiatza). Datu zehatzik ez badago ere, Hego Euskal Herrian 46.300 etxeko langile daudela kalkulatu du. Gizarte Segurantzian 28.500 daude izena emanda EAEn eta beste 7.100 Nafarroan. Beste %30 inguru ezkutuko ekonomian dihardutela uste da. Izan ere, Nazioarteko Laneko Erakundearen estimazioen arabera, fantziar eta espainiar estatuetan ezkutuko ekonomian ari dira etxeko hamar langiletatik hiru. Ezin dugu jakin zehazki zein den etxeko langileen egoera, erabat irregularra baita. Etxeko langileak, gainera, bigarren mailako langiletzat hartu ohi dira lan baldintzei dagokienean, eta hainbat eskubide ukatzen zaizkie, modu estrukturalan. Etxeko langileak emakumezkoak dira eta migratzaileak gehiago handi batean. Bizi duten babesgabetasun egoeraz baliatuta, maiz oso lan baldintza kaskarrak ezartzen zaizkie.

Zaintza lanak beti egiten dituzten gizon-emakumeen proportzioa, ehunekotan
 (Iturria: “Radiografía de los cuidados en Navarra”, Laura Martínez Jimenez, 2020).



Industriak baino pisu handiagoa

EAEn, lan erreproduktiboek Barne Produktu gordinaren %27ko balioa izan zuten EAEn, 2018n, eta industriak %21ekoa [Iturria: Ipar Hegoa eta Eustat].

%30

Etxeko langileen ia herenak ez du kontraturik. Ondorioz, beste langile batzuk baino eskubide gutxiago dituzte. Kasu batzuetan, esklabutza egoeraz hitz egin dezakegu.

46.300

Etxeko langile daude Hego Euskal Herrian
 [Iturria: Ipar Hegoa].

Nola irudikatzen dugu etorkizuna? Distopiak marrazten dizkigute letretan eta pantailetan, jada nahikoa distopia den errealitate hau kasik izan dezakegun onena dela aitortzeraino etsipen alaiz, irribarre orbainduz, sorbaldak gora beheratuz. Batek baino gehiagok esango du oraina baino ez daukagula eta hori topera bizitzea dela geratzen zaigun helduleku ia bakarra. Baina ezin da mundua aldatu etorkizuneko planik gabe. Etzia eta ahal dela biharra irudikatu gabe. Leire Vargas idazleak Erriaren urrengo zenbakietan gero hobe hori irudikatzen lagunduko digu. Hemen lehen atala.



Leire Vargas. *Idazlea*

Geranioak lehortzean (I)

“Oxa! Oxa!”, egin zuen deiadar Nikolak, bere ondoan beharrean Janplazaren beste muturrean banengo lez.

Begirada babarrun-plater ia ukitu gabetik altxa eta berari zuzendu nion. “Jango dun ogi zati hori?”, galdetu zidan.

Une batez pentsatu nuen erantzuna. Hormako erlojura begiratu nuen: 13.43ak. Ia hiru ordu laurden generamatzan jantokian, eta banekien Nikola ez zela gose, eta, hala balitz ere, eska zezakeela beste ogi zati bat, edo beste platerkada oso bat. Janaria ez botatzeko printzipioak bultzatu zuen galdera: inguruko guztiak ia amaituta zeuden ja, eta nik ez nuen nire erretilua ukitu azken hamar minutuetan. Buruaz baietz egin nion, ogi zatia hartu izanagatiko damuaz libre uztearren eskertuta.

Ukalondoa mahai gainean eta burua eskuan pausatu eta ingurura begiratu nuen: bost eta hamabi urte bitarteko haurrak zeuden bertan eserita, gu baino gazteagoak batzuk eta helduagoak besteak, eta, neure isiltasunaren eraginez agian,

inoiz baino zaratatsuagoak iruditu zitzaizkidan. Lezoren kontaktak gogoratu nituen, nola itzultzen zen aurpegi alaiz etxera helduen Janplazan lan egitea egokitu zitzaion urtean, elikagaiak banatu eta prestatzea behar ederra zela azalduz. “Bazkari orok bukatzen dun jai bihurtzen!”, zioen. Jendeak janari goxoaz eta lagunarteaz gozatzeko espazioa apreziatzen ei zuen, kantuz eta dantzaz eskertzeraino.

Helduen Janplaza zapaltzen nuen unea heldu orduko elkartasun hura indargarria izango zitzaidalda hitz emana nion neure buruari. Baina egun hura desberdina zen: Lianen Agurra geneukan aurretik. Eta nik oraindik segundo erdi bat behar izaten nuen Lian burura ekartzean laguna oroitzapen huts bihurtua zela gogoratzeko.

Nikola eta Renoren hitz bizkorgarrien ondotik, azken babarrun koilarakadak irentsi nituen, haurrik azkarrenak Janplazatik ateratzeko ilara osatzen hasiak zirela. Osteko txokolate zatitxoak paparra epeldu zidan.

Guztiok ilaran batu eta Janplazatik atera ginen. Kanean behera ikastetxetik aldentzen gindoazela, Baratze baten ondotik igaro ginen, eta Osasun-etxe ondotik gero, egunero bezala. Ibilbide osoan zehar ongi konposatuta mantendu zen ume-saldoa, bi edo hiruko pertsonako errenkadek osatua. Nire bi lagunek euren artean hitz egiten jarraitu zuten, nik berba solteekin esku-hartze bat edo beste egiten nuen bitartean.

Beirazko Jarduera-eraikinera heldu eta arin batean sakabanatu ginen guztiok; goiko solairuko

tailerretara zuzendu ziren batzuk, beheko espazio askera besteak. “Kaixo, Oxa!”, agurtu ninduen Lurrek, zeina ilaran gu baino atzerago etorri baitzen. “Bahator dantzara?”


Begi urdin zabaletara so egin nion. Ahots fina atera zitzaidan: “Ez, gaur ez. Nekatu samar nagon.”

“Ados ba. Deskantsatu!”, eskua sorbaldan jarri zidan. “Faltan hartuko haut, baina”, gehitu zuen, irribarre txiki batez. Keinua itzultzen saiatu nintzen.

Partekatzen nuen Lurren harridura: dantza-eskolara egunero joaten zenetakoa nintzen. Normalean, dantzak askatzeko parada ematen zidan, arduratzen ninduen edozer burutik kendu edo emozio positiboak ezerezetik sortzeko. Baina egun hartan zerbaitek paparra korapilatzen zidan, irakaslearen pausuak jarraitzeko orduan inguruan korapilatu eta estutuko ninduela begitantzen zitzaidan mordoilo batek.

A large, light-colored, stylized letter 'E' is centered on a dark red background. The 'E' has rounded corners and a thick, uniform stroke. The text 'GOMENDIOAK:' is superimposed over the middle of the 'E' in a white, bold, sans-serif font.

GOMENDIOAK:



Noiz utziko dio euria egiteari

Piszifaktoria ideien laborategia, 2021

Filma

Jatorrizko ideia: Piszifaktoria ideien laborategia

Zuzendaria: Guillermo Ordas

Produkzioa: Irati Agirreazkuenaga

Gidoia: Mikel Ayllon

Musika: Igor Arzuaga

Aktoreak: Irati Agirreazkuenaga, Mikel Ayllon, Pablo Ibarluzea

Aholkularitza artistikoa: Pablo Ibarluzea

Jantziak: Betitxe Saitua & Piszifaktoria



Izen bereko kale ikuskizunean oinarritutako film experimentalak da hau, dokumentalaren eta fikzioaren artean bizi den sormen lana.

2021ko urria kokatu dute filmeko istorioa. Covidaren Omega aldaeraren ondorioz, 2021etik 2031ra iraun zuen hamar urteko konfinamendu zorrotzaren ondoren, euria egiteari ekin zion, egun bakar batean ere gelditu gabe. Oso bestelako gizarte batean bizi dira eta, bidea birkalkulatu duten GPSen antzera, euren helmugak birkokatzeke unea iritsi da.

Zein bideri jarraitu nahi diote orain? Euria egiteari utziko al dio norabidea aldatzen badute? Azkenean, ematen du ateri dela eta berreskuratu dutela

aurpegi osoa kaletik ibiltzeko. Baina utzi al dio zinez euria egiteari?

Mikel Ayllon gidoigilearen esanetan, Piszifaktoria Ideien Laborategian sekula egindako lanik bereziena da: "Lengoaia unibertsalean, periferia estetiko eta geografikotik eta euskaraz; ekintza performatibo bat izan nahi du gure alde. Etorkizunaren puska bat, gaurko zaurien sendagarri".

Piszifaktoria ideien laborategiaren azken proiektua performance zinematografiko bat da.

918 Gau

Arantza Santesteban. Txintxua Films eta Hiruki Filmak, 2021

Dokumentala

Zuzendaria: Arantza Santesteban

Gidoia: Arantza Santesteban

Argazkia: Maddi Barber

Ekoizpena: Txintxua Films, Hiruki Filmak, ETB



Arantza Santesteban artista eta zinemagilearen lehen film luzea, 918 Gau, dokumental hibrido da; esperimental, pertsonala, introspektiboa, indar eta zintzotasun ukaezinarekin formalki zatikatua, ikuspegi intimo eta sentikorretik kontatua.

Filma lehen pertsona kontakutako dago eta, hasteko, zinemagileak ahots-grabagailu batean oroitzapenenak erregistratzen du. Auto batean eserita ikusten dugu, atxiloteta eragin zuten gertakariak deskribatzen dituen bitartean.

Prozesu judizialaren dokumentuak ikusten ditugu, eskaneatzen, baita argazki pila ere, Santestebanek bere oroitzapenak eta zalantzak kontatzen dituen bitartean.

918 gau haieetatik oroitzapen batzuk gordetzen ditu: patiotik buelta amaigabeak, nola kartzelako gizon gihartsuak garaitzen dituen igeriketa lehiaketa batean, Rasharen kartzelabidaia...

Pertsonaien proflezko begiradak, zaugarritasunetik eta ausardiatik esperientzia ikusezintasuna gogoraraziz, leku politiko bat bilatzen dute.

Esplizituki edo inplizituki, filmak gai asko jorratzen edo iradokitzen ditu. Filmaren oinarria instintu mailan konektatutako segmentu sail bat da, elkarren artean, printzipioz, harreman zuzenik ez dutenak eta kasu askotan emozionalki adierazgarriak direnak.

Ez dago musikarik hitz egiten duen eszenetan, bere orde, hondoko burrunba bat dago, sotila baina mehatxagarria. Argazkia zaindua, zati bakoitzaren beharretara egokitua. Argi arin batek, bere argitasun eta ilunekin, gordetzen duen irudi eta hitzen artxiboaren berrirakurketa kritikoa argitzen du.

918 Gau Txintxua Films eta Hiruki Filmak ekoiztutako koprodukzioa da.

Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi

Kamikaz kolektiboa & Ttak teatroa, 2021

Aktoreak, zuzendaritza eta testua: Amancay Gaztañaga,

Erika Olaizola, Iraia Elias

Zuzendaritza bidelagun: Espe Lopez

Jantziak: Barbara Rasso

Argiztapen diseinua: Miriam Ubanet & Ana Da Graça

Teknika: Uhina

Zuzeneko soinu banda: Amancay Gaztañaga

Ilustrazioa eta kartela: Idoia Beratarbide

Irudigintza: Kulturaz kooperatiba

Banaketa: Goizane Barroso

Ekoizpena: Azpeitiko Kulturaz kooperatiba



Azpeitiko Kulturaz kooperatibaren Dinamoia sormen gunean hondutako antzezlanaren da Amancay Gaztañaga, Erika Olaizola eta Iraia Elias aktoreek sortu duten obra hau. Netflix plataformako Bridgerton telesaila ikusita sortutako galderek bultzatu dute obra sortzera. Hori da antzezlanaren abiapuntua. Ondoren feminismoa ardatz hartuta, umorez blaitutako bidaia batean murgilaraziko gaituzte, sakonean

patriarkatua kuestionatzen duten hainbat hausnarketa bultzatuz: fikzioak gudan izan dezakeen eragina, genero rola, maitasun erromantikoa, maskulinitate ereduak... Fikzioaren eta errealitatearen arteko mugarekin etengabe jolastuz eta pertsonala eta politikoa dena lotuz, batetik bestera eramaten zaituzte aspertzeko betarik gabe, ordubete pasa ederra gozatuz.

Askatu edo Moztu / Jan eta Jabe

Txalaparta eta Iratzar Fundazioa. Iparrorratza bilduma. 2021

Entseguak

IPARRORRATZA bildumak 150 orrialdeko, bi liburu argitaratzen ditu, urtean, poltsiko edizioan, pentsamendu kritiko-politikoarekin zerikusia duten gaiekin; gaurkotasuneko gaiei buruzko beste ikuspegi batzuk ezagutu nahi dituzten irakurleei zuzenduta.

Askatu edo moztu

Nora Salbotx

Bidasoaren bi aldeetara, hezkuntza, gurea, egundaino ez zaigu emana etorri. Bi Estaturen interesen zerbitzura eraikitako sistemen gainetik, herri honen behar eta nahiei erantzunez egin dugun eta egiten gabiltzan prozesua da euskal hezkuntza. Hori dela eta, euskal hezkuntzagintzaz hitz egiten da liburu honetan; bizirauteko behar

gorrian sortu, bulkada komunitarioan hazi eta gaur egunean mehatxu eta erronka berriei aurrez aurre begiratu beharko diena. Euskal hezkuntza sistema publiko-komunitario euskaldun, feminista, demokratiko eta aske baten korapiloa dekolonitateetan askatzea dagokigu, kanpo, barne zein gure baitakoetan. Askatzea diogu... edo mozte!



Jan eta jabe

Tasio Erkizia

Mendebaldean, jatea ekintza aski arrunta da, ohikoaren zentzuan, bai eta beharrezkoa ere; hain zuzen horregatik du dimentsio sozial eta politiko ikaragarria. Esperientziatik eta konbentzimendutik idatzitako saiakera didaktiko honetan, elikadura estrategikotzat aurkeztuko zaigu, nazio baten ekonomia, osasuna, kultura eta izaera uztartzen dituen esparrua delakoan. Egun nagusi diren nekazaritza intentsiboa eta agroindustria hizpide hartu

eta, alternatiba gisara, zirkuitu laburraren, ekonomia zirkularraren eta saltoki kolaboratiboen alde egiten du. Egunez egun bestelako gizarte eredu bat eraikitzeko bidean lanabes izan nahian, liburuxka honek Euskal Herrian martxan diren proiektuak ezagutzera eman eta plangintza-manifestu adostu baten beharra agertzen du, bai eta botere eraldatzaileen arteko sinergiak proposatu ere. Elikadura baita, akaso, multinazionalen morrontzetatik askatzeko eta euskaldun jendea eta herria sartzeko alor oinarritzkoena.



Herriak ez du barkatuko

Irati Goikoetxea Asurabarrena. Elkar, 2021
Eleberria



ETAk aita hil zion Oihanari duela hogeita bi urte, berak hemeretzi zeuzkala. Zauria bizirik du oraindik, baina ez du horretaz inorekin hitz egiten; bere seme-alabei ere ez die ezer argirik kontatu, nahiz eta barruan sumatu on egingo liekeela denei. Ezustean, biktima ezberdinen lekukotasunak jasotzen dabilen antropologo baten deia jasoko du, ea berarekin bildu nahi duen.

Gai minbera bat sentiberatasunez landu du Irati Goikoetxeak bere lehenengo eleberri honetan, aldarri ozenen orde enpatia ahalegin bat eginez, delikadeziaz eta emozioz. Hitzen ukenduak ere balio duelako oinaze zaharrak leuntzeko, edertasunak ere lagundu dezakeelako pertsonak –eta herriak– hobeak egiten.

Alde erantzira nabil

Ekhine Eizagirre. Susa, 1984
Poesia



Liburua azken hamar urteetako ibilbidearen uzta da, eta izenburuak aditzera ematen duenez, alderantzizko bide-zidorretan galdu edo bilatu izanaren emaitza ere bai. Hiru etapa nagusi bereiziko nituzke idazketan: lehenik, Euskal Herrian bizi nintzeneko garaia; bigarrenik, klandestinitatea; eta hirugarrenik, espetxealdia.

Poema batek dioen bezalaxe, “neure-neurea” da egindako lan hau, intimoa, errailetatik jalgitakoa. Baina neurea izanik ere, igurtzi eta fereka ugari bildu ditu bidean. Jarraian kontatuko dizuet, zein osagaik borobiltzen duten egindakoa.

Liburuko olerki askok emozio jakin bat azaltzea eta transmitzea dute xede. Denboraren joan-etorrian, nire zein hurbilekoen memorian marratzen joan diren gertaeren kontakizun laburrak bildu nahi izan ditut. Ene baitako oroitzapen kuttunek bizia gal ez dezaten, berreskuratu, elkarri josi eta atondutako hitzak dira, bat-batekoak gehienak, inprobisatuak, uneak eskatzen zuelako idatziak, eta momentu txikiei arreta berezia eskaini nahi dietenak. Inguratzen nauen egoerari baino, uneari eta nire momentuko bizipenei eman nahi izan diet tarteak. Gogo-gorputzaren adierazpen anitzek osatzen dute

lan hau, olerkiok gogoak ez ezik gorputzaldiak aginduta idatzi ditudalako. Horregatik, emozioei estu lotuta, gorputza oso presente dago liburuan.

Belarri Bero, bai esan?

Websaila Iraupena: 15/20 minutuko 6 kapitulu

Egilea: ZEHAR KABLEA

Uxue Bereziartua Lonbide, Uxue Amonarriz Zubiondo eta Aitor Altuna Etxabe

Hizkuntza: Euskara

Belarri bero telefono linea erotikoa diru arazoak ditu. Axunek, negozioaren nagusiak, isilpean darama afera Ines, Garazi eta Eider langileei ezer kontatu gabe. Halere, lehenago edo beranduago, mahaiaren bueltan bildu eta aurre egin beharko diote errealitateari. Zein bide aukeratuko ote dute?

Sei kapituluz osatzen da "Belarri bero, bai esan?" websaila. Lau protagonistek egunerokoan dituzten bizipen ezberdinek egituratzen dute trama nagusia. Hauek aitzakia izango dira sexualitateak erdigunean jarri eta umoretik lantzeko.

Helburuak eta asmoak

Gazteei begirako ikus-entzunezko bat sortzea izan da helburua. Websail formatuan, baina multimedia proiektu baten baitan. Sexualitateen gaia ikuspuntu feminista batetik mahai gainean jarri, eta hau lantzeko oinarri eta aitzakiak ematen ditu telesailak. Horrez gain, euskarazko umoregintzari bestelako ekarpen bat egiten dio. Sorkuntza prozesua eragile eta pertsona ezberdinen parte hartzearen bidez egituratu dela azpimarratu behar da.



Órale, compadre... ¡Nos vemos en Iparralde!

Mikel Korta. *Sortuko kidea*



Arantza Eziolaza Galán. Ataramiñe, 2021

Entsegua

Liburu honetan iheslari politikoen errealitatea ulertzeko elementu oso garrantzitsuak agertzen dira.

Lehena: Euskal Herrian atxiloketa torturaren sinonimoa izan da beti. Torturatik ihes egitea izan da familia, lagunak, lana, herria, ... utzi eta iheslari politikoa bihurtzeko arrazoi nagusia. "Huidos de la Justicia" da iheslarien kontrako errepresioa justifikatzeko eta exilioa bizi osorako kondena bihurtzeko.

Bigarrena: iheslari baten bizitza, iraunkorra bihurtzen den ihesaldi bat dela argi ikusten da. "Libratu da": hau da Guardia Zibila, CNP edo Ertzantzaren atzaparretatik ihes egitea lortu duen pertsonaren inguruan geratzen zaigun perzeptzioa. Iheslari baten errealitatea ulertzeko oso kaltegarria dena, batez ere lehenengo ihesaldi horretatik 10, 20, 30, 40... urte pasatu direnean.

Hirugarrena: iheslariak ez dute beraien egoera era pasiboan bizitzen. Euskal Herriaren askapen prozesuari begira eta Mexikoren inguruan egiten duen azterketa sozio-politikoak argi adierazten du izaera militantea ez dela exilioarekin amaitzen.

Laugarrena: Exilioan ere elkartasuna hitz polit bat baino bizitzaren elementu garrantzitsuenetakoa dela.

Bostgarrena: Silueta beltz baten atzean dagoen errealitatea argitara ekartzeko pisu handiko lekukotza da.

Seigarrena: "Nos vemos en Iparralde" hazpi tituloarekin, etxeratze prozesuaz hitz egiten du. Desio indibiduaez gain askapen eta bake prozesuak irekitzeko bidean Kolektibo baten borondatearen adierazle argia. Lizarra-Garazi garaietan hasi zena eta Biarritz eta Arrangoitzeko adierazpenekin berrindartu zena. Ipar Euskal Herria lehenengo pausoan, jaiotetxea hurrengoa. Bide horretan 230 inguru dira etxera bueltatu diren iheslari eta deportatuak.

Gauza askoz gehiago agertzen dira liburuan, esan nahi handikoak, iheslarien egoeraz haratago Mexiko bera sakon dekrabatzen dituztenak. Europarrok magiko bezela definitzen dugun errealismoak errealitatetarekin zerikusi handiagoa duela magiarekin baino.



Desarmar la masculinidad

Paul Laka. *Militante de Sortu*



Beatriz Ranea Triviño. La Catarata, 2021

Ensayo

Aunque su título sugiera lo contrario, este libro no nos deja claro si la masculinidad se ha de desarmar, transformar, o simplemente abolir. Está claro que la masculinidad cambia, se adecua, se transforma. ¿Pero es, en sí misma, esa transformación positiva? ¿Son las nuevas masculinidades algo bueno? Si por transformación nos referimos a adecuación al momento, y con nuevo a simplemente renovado, desde luego que no. En cambio, ese andar el camino, ese plantearse algo diferente, amplía nuestra perspectiva y nos da la oportunidad de imaginarnos algo que hoy día no es. En este ensayo se nos presenta la masculinidad como un estatus lleno de privilegios y en constante fiscalización por parte del resto de hombres. Y es que no todos gozamos del mismo estatus, y dependiendo cómo de cerca se encuentren nuestros

atributos a los de esa masculinidad hegemónica, nos situaremos en un lugar diferente. Pero, aun entendiendo esas [inter]relaciones de poder, y conociendo nuestro lugar y cotas de privilegio, no debemos perder de vista que, al fin y al cabo, todos los hombres nos situamos en lugares privilegiados. Cada cual ha de plantearse las preguntas adecuadas atendiendo a su posición, pero siendo consciente de esta realidad global. Es este trabajo precisamente una invitación a auto-incomodarnos. Reflexionaremos sobre la pornografía mainstream como elemento disciplinante, sobre el blanqueamiento de la prostitución y el irse de putas, sobre la heterosexualidad como sostén de la masculinidad hegemónica... y mucho más.



Txomin. Aurrera bolie

Jokin Urain. Gara, 2021

Biografia



Txomin Iturbe Abasolok (Arrasate, 1943-Medea- Aljeria-, 1987) 1936-39ko gerra galduaren ondoren jaiotako euskaldun belaunaldi baten espiritua irudikatzen du. Herri gisa galzoriaren ertzeraino makurrarazita zegoen gizartean etorkizunaren alde zutitzera ausartu zen belaunaldia da Txominena. Etsipenaren isilpetik herri kontzientziaren kimuak berpiztera datorrena. Kulturean, borroka sozialean eta

nazionallean, lantegietan, ikastoletan, kantagintzan...


Herri ekimenetan eta kirolean, kooperatiban eta baserrian, premia ikusten zuen lekuan ekiten zion Txominek, eta askapen borrokan premia ikusi zuenean ETAn militatzen hasi zen. 1960ko hamarkada amaitu aurretik alde egin behar izan zuen Arrasatetik Iparraldera. Hainbat aldiz atxilotu, konfinatu eta deportatu

zuten; hainbat aldiz saiatu ziren talde parapolizialak hura hiltzen. 1987an hil zen, Aljerian, 43 urterekin.

Txomin Iturbe, Etxazuriko semea. Egile eta buruzagi handi baten biografia da honakoa, baina aritu ziren beste hainbat kideren ahotsak eta historiak kiribiltzen dira bertan. Eta herri honen historian kiribiltzen dira, aldi berean, haiek guztienak.

De los neocón a los neonazis. La derecha radical en el Estado español

Miquel Ramos. Rosa-Luxemburg-Stiftung, 2021



Existe el fascismo en el Estado español? ¿Hay crímenes de odio? ¿Hay asesinatos motivados por odio racial o por motivos políticos? ¿Asistimos a un retroceso en la conquista de derechos de las mujeres? ¿Vox es fascista? ¿Qué hay más a la derecha de Vox? ¿Cómo combatimos a la extrema derecha? ¿Cuáles son sus alianzas internacionales? Estas y muchas más preguntas se realizaron los autores de este exhaustivo trabajo de investigación que coordinó Miquel Ramos y como señala Amelia López Lobo, de la Fundación Rosa Luxemburg mapea, dibuja, desnuda y desgrana con rigor a la extrema derecha en el estado español y sus conexiones en el ámbito internacional.

Este informe colectivo, ofrece un abanico de las múltiples expresiones de la extrema derecha y el fascismo desde el marco institucional hasta su presencia en el fútbol, las redes sociales, o esferas del pensamiento como fundaciones o lobbies. Miquel Ramos hace un extenso repaso del ideario y programa político de Vox y aporta claves para el análisis del “cosmos” de la extrema derecha, principalmente en el estado español pero situándolo en el centro de la llamada “internacional reaccionaria”. Internacional reaccionaria puesto que sus miembros son homófobos, islamófobos, racistas y con capacidad para imponer su marco de debate y agenda política. Internacional reaccionaria ya que inclina el escenario político y social

hacia valores ultraconservadores y comportamientos de una derecha casposa que muchos creían finiquitada.


Como subraya Amelia López en el prólogo de esta investigación, la tarea de la izquierda transformadora debe de ser la búsqueda y defensa de alternativas políticas progresistas. El socialismo, como horizonte y el compromiso, feminista e internacionalista.

De obligada lectura para conocer al monstruo de cerca.

SARE sozialetarako gomendioak

Ilustratzaileak

[Instagram kontuak oinarri gisa]



IG: @nereamauleon
Nerea Mauleon. Gasteiz.
Ilustrazio digitalak




IG: __eneritz__
Bilbo.
Collage digital
aldarrikatzaileak




IG: @studioolrait
Beñat Rodriguez. Azkoitia.
Kantuen letrekin diseinu grafikoa


IG: @femme.sapiens
Helena Sotoca. Espainia.
Meme feministak




Argazkilariak
(Instagram kontuak oinarri gisa)




Ig: @An_txu
Ane Berriotxo. Zornotza.
Erretratuak eta espazioak



Ig: @agentsdelamort
David Garceran. Katalunia.
Argazki historikoak



Ig: @_danilopes
Dani Lopes. Brazil.
Gorputzak
eta zaurgarritasuna



Ig: @nataliekarpushenko
Natalie Karpushenko. Turkia.
natalie-karpushenko.com
Itsasoa eta giza gorputzak

